# Goienkaria

2008ko abenduaren 12a > Egubakoitza > IX. urtea > 357. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Ezin da irabaziak hainbat enpresaren esku izan, eta kostuak sozializatu"

**Gregorio Lopez** Ekonomia irakaslea > 09


**G2a** Euskadiko Orkestra gaur Bergaran > 35

**ARRASATE** Pedro Biteri gogora ekartzeko hitzaldi zikloa astean barrena > 18

**BERGARA ETA ESKORIATZA** Bidegorri tarteak egokituko ditu Aldundiak bi herriotan > 21 eta 27

**KIROLA** Puntako eskalatzaileak bihar Arrasateko boulder txapelketan > 32


**ZERBITZUAK** > OSTALARITZA

# Guardiako jatetxeak ipini nahi dituzte

**ITXITA** Jatetxe guztiak itxita daudenean emango luke zerbitzu guardiako jatetxeak

**ELKARLANA** Erakunde eta ostalarien ekimena da, bailarako turismoa bultzatzeko > 02-03

**MANKOMUNITATEA** > DIRUA

## Laugarren garbigunea egiteko lursaila gertu

2009ko aurrekontua onartu du Mankomunitateak. Leintz aldeari zerbitzua emango dion garbigunea egiteko 220.000 euro bideratuko ditu. > 04

**EUSKARA** > KONTSEILUA

## Hiru autobus Kontseiluaren X. urteurren festara

Antzuolatik, Bergaratik eta Arrasatetik autobus bana abiatuko da bihar BECera. Arrasatekoan eta Bergarakoan oraindik lekua dago. > 06




DENDARIAK Argazkian, Raquel Alonso, M. Jose Untzueta eta Arantza Arantzabal, Ibai-Arteko kideak. M.B.

## 'Arrasate bizirik' izeneko aldizkaria kaleratu du dendarien elkarteak

Herritarrekin hartu-eman zuzena izateko asmoz kaleratu du Ibai-Arte dendarien elkarteak 16 orriko aldizkaria. Helarazi nahi diete herritarrei krisi garaian ere merkatari txikien aldeko apustua egin daitekeela eta herria aberasteko askotariko ideiak dituztela. > 13

### Danbakako 5. kontzertua

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro, Gaztekutxa, 3 euro

- > Flipin Folk
- > Rock Privado
- > The Wet Band
- > Turboshit

DANBAKA

**UDALAK** > DIRULAGUNTZA

## Madrildik 11 milioi euro bailarara

Udalek kopuru hori jaso dezakete Espainiako Gobernutik > 07

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 05-07
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10
**Gutunak** > 11
**Herriak** > 13-31
**Kirola** > 32-33
**Kultura** > 36-37
**Sailkatuak** > 38-40
**Telebista-Irratia** > 43
**Denbora-pasa** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Non-zer** > 46-47








**EKONOMIA** > OSTALARITZA ETA TURISMOA

# Erakundeak eta ostalariak, bat eginik turismoa indartzeko

**SEINALEAK** Ostalariak kexu dira errepide nagusietan zein herrietan euren establezimenduetarako seinaleak egokiak ez direlako

**JATETXEAK** Aste barruan, gauetan, jatetxe asko ixten direnez, asmoa da guardiako jatetxeen figura sortzea zerbitzuaren hutsunea betetzeko



**MENUAK** Eguerdietan jatorduak ematen dituzte Arrasateko Hilarion jatetxean, turistendako zein

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Ekintzetako Zentroak ibarreko ostalariekin hainbat batzar egiten dihardu, sektorearen eta erakundearen arteko harremana indartzeko eta ostalaritzan turismoan dauden gabeziei denen artean irtenbideak aurkitzeko.

Mankomunitateko Turismo Ekintzetako Zentroko Ana Erizek zera azaldu digu: "Hasi gara eskualdeko turismoa garatzeko ardurak hartzen eta sektore pribatura zuzendutako hainbat neurri hartzeko bideak lantzen. Esaterako, kalitatearen gaineko plangintza ipini dugu abian. Horren helburua ez da establezimenduek kalitatezko Q agiria lortzea, baizik aurrerapausoak ematea. Hau da, praktika onak bultzatzea alojamenduetan eta jatetxeetan. Alegia, zerbitzuaren kudeaketa hobetzea helburu duten neurriak hartzea, kalitatea ere hobetuz. Bestalde, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean dihardugu establezimendu turistikoetarako irisgarritasuna hobetzeko pausoak eman ditzaten".

**SEKTORE PRIBATUAREKIN BAT EGIN**

Horrelako ekintzak bultzatzeko sektore pribatuarekin harremanetan jarri dira Mankomunitatekoak, "eta euren erantzuna ona izan da", esan digu Erizek. "Gainera, gure planifikazioan jasota dago beharrezkoa dela turismo arloa garatzeko sektore pribatuaren eta publikoaren arteko harremana egotea, zehaztea eta zabaltzea".

Debagoienean 31 dira alojamenduak eta 100 inguru jatetxeak. Mankomunitateko Turismo Zerbitzuko ordezkariak jatetxeetako, hoteletako, baserri turismo etxeetako ugazabekin elkartuta azken horien kezken berri izan dute eta asmoa da arazoei konponbideak ematea.

> **"Mankomunitatetik kalitatearen gaineko plangintza dugu abian praktika onak bultzatzeko jatetxeetan eta alojamenduetan"**

> **"Ostalari bakoitzak nahiko luke bideetan eurendako kartel bana, baina zirkulazio seinaleek dute lehentasuna gidariei bidaia errazteko"**

**SEINALEAK, ARAZO NAGUSI**

Mankomunitatean langintza horri ekin ziotenean ikusi zuten hainbat arazo zeudela Debagoienean turismo arloa garatzeko, eta jatetxe zein alojamendu batzuetako arduradunek planteatutako batzarra egiteari egoki iritzi zioten. "Horrela, sektoreko ordezkarien eskutik zuzenean jakin dezakegu zein arazo dauden eta zer egin daitekeen horiek konpontzeko. Hortaz, Mankomunitatetik ere egoki iritzi genion koordinazioa lantzeari", esan digu Ana Erizek.

Orain arteko batzarretan hainbat arazo eta kezka izan dituzte mahai gainean. "Beti aipatzen den arazo bat da seinaleen kontua. Seinaleak, bai herrietakoak, bai autobidekoak… batzuetan ez dira nahikoak, beste batzuetan arazoak egoten dira seinaleak ipintzeko… Errepide nagusietatik Debagoienetik pasatzen direnean gidariek ez dakite gurean zer topa dezaketen eta errepide txikiagoetan galdu egiten dira gidari asko. Hortaz, gaia lantzeko beharra sumatu zen bai Foru Aldundiarekin, bai Bidegirekin…", azaldu digu Ana Erizek.

Horren harira, datorren astean, abenduaren 17an, batzarra egitekoak dira Mankomunitateko ordezkariak eta ostalariak Foru Aldundiko Errepide Sailekoekin. Sail horretatik esan digutenez, "ikusi beharko da ostalaritza sektoretik zer eskatzen duten eta zer emateko aukera dagoen. Ostalari bakoitzak nahiko luke errepideetan edo autobidean eurendako kartel bana izatea, baina ikusi behar da zirkulazio seinaleez gain ea besteak onartzen diren ala ez. Izan ere, horretarako araudia dago. Errepideetan zirkulazio seinaleak ipintzen dira gidariei bidaia errazteko eta beste kartelak bigarren mailan leudeke. Horrek ez du esan nahi bestelako seinalerik ezin denik ipini. Baina betiere erreparatzen zaio zirkulazioa errazten duten seinaleek lehentasuna izateari. Horregatik, esaterako, kendu ziren errepide bazterretatik iragarki panel handiak, gidarien oharkabetasuna saihesteko. Debagoienean, bileraren ostean ikusi beharko da zein seinale ipin daitezkeen eta zein ez".

Ibarreko jatetxeetako ordezkariek ezinbestekotzat jo dute seinaleak ipintzea. Baster-Alde jatetxeko Aitor Telleriak hauxe esan digu: "Ikusi dugu jendeak ez duela gure ingurua ezagutzen; Donostia aldekoek, esaterako. Badirudi eurendako hau ez dela existitzen. Autobidea zabaltzen denean ibilgailuak Arrasatetik pasako dira, eta zera nahi dugu: jakin dezatela hemen zerbait badagoela bisitatzeko eta jatetxeak eta hotelak ere badaudela".

Bergarako Lasa jatetxeko Koldo Lasa ere bat dator esatean seinaleak behar direla: "Badirudi Euskal Herriaren sakonean, barruan, gaudela eta ahazturik gauzkatela. Turismoa abuztuan bultzatu nahi bada, adibidez, baliabideak behar dira, baina seinale egokirik ipini ezean zein etorriko da ba gurera?", dio.

Ostalariek aipatzen duten beste arazo bat herrietako azpiegiturena da; aparkalekuena, adibidez. Ana Erizen esanetan, "aparkaleku falta dago herrietan eta ostalariak kexu dira udalek pixkanaka aparkalekuak kentzen dihardutelako. Arrasaten, esaterako, lur azpiko parkingaren prezio garestia ere aipatzen dute. Zenbait garaitan eta ordutan oso zaila izaten da toki batzuetan aparkatzea, eta horrek, turismoari ez ezik, oro har eguneroko jardunari eragiten dio. Garraio publikoan ere ikusten dituzte arazoak. Garai batzuetan ordutegiak mugatuak dira, eta aipatzen dute baita ere taxi zerbitzuekin koordinazioa hobetu beharra".

Koldo Lasaren esanetan, "horrek eskatzen du beste sektore batzuk indartu beharra. Esaterako, taxi zerbitzuak. Hotel batean egonez gero jatetxera joatea ahalbidetuko duen taxia beharrezkoa da".

**GUARDIAKO JATETXEAK**

Beste arazo bat da jatetxeak itxita aurkitzen dituztela turistek. Aste barruan, hainbat jatetxe itxita egoten dira, batik bat gauetan, eta zerbitzu hori leku batzuetan egokia ez denez, hobetzeko

TURISMOA ZUBIAN

## Zubia motzagoa izan arren, iaz beste turista izan da

Joan den asteburuan jai zubia izan zen eta horrelako egunak izaten dira egokiak jakiteko turistek gurerako joerarik duten ala ez.

Zubia nola joan den oraindik aztertu gabe duten arren, Mankomunitateak Arantzazun duen bulegoan jakinarazi digute iazko datuen parekoak izan direla, nahiz eta zubi laburragoa izan den. Jatorriari dagokionez, batik bat Euskal Herriko jendea ibili da. Kontuan hartuta zein eguraldi egin duen, nahiko jende dela uste dute.

Oñatiko Turismo Bulegoan ere uste berekoak dira. "Zubia motzagoa izan da eta eguraldiak ere ez du askorik lagundu, baina faktore horiek biak kontuan hartuta ez gaude kexatzeko moduan, bisitariak izan ditugulako: 70 inguru, bai, gure bulegoan", esan digute. Batez ere Euskal Herrikoak izan dira bisitan, eta Kataluniako jendea ere ibili da, nahiz eta ez zuten espero.

Hortaz, gertuan mugitzen da jendea eta horiei zerbitzu hobea emateko dihardute lanean.



n herriko jendearendako. XABIER URTZELAI

beharra sumatu dute ostalariek. "Horretarako, guardiako jatetxearen figura sortzea proposatu dute batzarretan. Astelehenetik eguenera bitartean hainbat jatetxe itxi egiten dituzte gauetan, eta zerbitzu hori hobetu egin behar da. Oraindik proposamena baino ez da eta aztertu egin beharko litzateke ideia garatu aurretik. Zehazteke dago, esaterako, eskualde mailan edo herri bakoitzean funtzionatuko lukeen guardiako jatetxeen asmo honek", esan digu Ana Erizek.

Arrasateko Hilarion jatetxeko Gabino Iartzak dio guardiako jatetxeen kontua dela "nahi duenari, eskatzen duen bezeroari, zerbitzua emateko modua. Horrela, jatetxe batera afaltzera joan nahi duen jendeak ez dezan esan ez daukala nora joanik gure inguruan. Jatetxe batera deitu eta egun horretan gauez itxita egongo bada, bezeroari emango diote horren berri eta esango diote zein den guardiakoa. Gero, bakoitzak erabakiko du joan ala ez, baina aukera izango du; hori bai, derrigortu ez da inor derrigortuko guardiakora joaten".

Koldo Lasaren esanetan: "Gure jatetxean, esaterako, gutxienez sei laguneko erreserbak badauzkagu bakarrik zabaltzen dugu gauetan, eta ibarrean badira beste jatetxe batzuk ere horrela jokatzen dutenak. Hortaz, uste dut gaueko zerbitzuaren hutsunea betetzeko, ideia ona dela guardiako jatetxeak egotearena".

**ESKAINTZA ZABALTZEKO BEHARRA**

Arazo horiek konpontzeko ez ezik, beharra ikusi da ekintzak sortzeko eskualdeko turismo eskaintza zabaltzeko eta indartzeko eta, era berean, eskualdeko baliabideak promozionatzeko. Esaterako, Mankomunitatetik esan digute gastronomia jardunaldi batzuk antolatzeko ideia darabiltela esku artean. "Ikusi dugu krisiaren eraginez gero eta jende gutxiago dabilela batera eta bestera eta arazo horri aurre hartzeko mugitu egin behar dugula ostalariok. Lanean hasi baino ez gara egin, baina badugu esperantza zerbait lortzeko", esan digu Baster-Aldeko ugazaba Aitor Telleriak.

Lehen pausoak baino ez dituzte eman jatetxeetako, hoteletako eta baserri turismo etxeetako ordezkariek Mankomunitatekoekin batera lantaldea osatuz. Aurrerantzean, sektorea indartzea da taldearen eginbeharra.

OSTALARIEN ESANETAN



**Gabino Iartza**
Hilarion jatetxea

## "Gure ingurua, turismo arloan, ahaztuta daukatela dirudi"

Ostalariok Mankomunitatearekin elkarlanean jardutearen helburua da sektoreari bizia ematea. Gauetan jatetxe guztiak itxita egon ez daitezen irtenbideak bilatzen saiatu behar dugu; gastronomia jardunaldiren batzuk ere gertatu nahi ditugu... Gure ingurua ahaztuta daukatela dirudi, eta lortu behar dugu beste gune batzuen parera iristea. Arrasaten, esaterako, ez dago Turismo Zinegotzigorik, eta ondorioz, ez da diru partida berezirik bideratzen turismorako.



**Koldo Lasa**
Lasa jatetxea

## "Erakundeek turismoa sustatzeaz gain, euren laguntza behar dugu"

Turismoa sustatzea da gure asmoa, ingurukoena, ezagutzen gaituztenena, eta kanpotik gurera datozenena. Zerbitzua emateko gertu gaude, bezeroak baldin badauzkagu, baina jendea kostaldera joaten da, hemen ikusteko gauza mordoa egon arren. Ondo dago erakundeek turismoa bultzatzea, baina eurek ere lagundu beharko lukete. Ostalariok uste dugu zerbitzuak koordinatu behar direla, eta batzarretan horretarako ideiak proposatzen dihardugu.



**Aitor Telleria**
Baster-Alde jatetxea

## "Asko galduta ibiltzen da jatetxe bila, ez dagoelako seinalerik"

Errepide Saileko ordezkariekin eta udaletakoekin batzartuko gara seinaleen gainean berba egiteko. Herriko zein bideetako seinaleetan markatzeko jatetxeak, hotelak, baserri turismoko etxeak... Bidegikoei ere eskatu nahi genieke autobidean, seinaleetan, ipin dezaten Debagoiena non dagoen. Asko galduta ibiltzen da jatetxe bila, eta askotan aurkitzen dituzte kasualitatez, herri erdian daudelako. Guk nahi dugu denak topatzeko moduan egotea seinaleen bitartez.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Abenduko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
10 euro abendura arte

SARRERAK
BRUESA FC Barcelona
BRUESA CB Granada

BONUAK
ADATS ile apaindegian edertasun BI bonu.

JOKUAK
Ikastolen elkartearen eskutik 8 joku ezberdin 2-3 eta 4-7 urteetako umeentzat

BONUAK
GIARTZU gimnasioa- estetikan edertasun BI bonu.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
"LA PERLA"
TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).



Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak

## 270 €-rainoko alokairuko etxebizitzak*

### "la Caixa"ren Modu oneko etxebizitzak

"la Caixa" Gizarte Ekintzaren programen bitartez, premia duten pertsonen bizi-kondizioak hobetzeko lan egiten dugu. Hori dela eta, Modu oneko etxebizitzak programak alokairurako 3.000 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Ordaintzeko moduko errentak izango dituzte, eta dagoeneko 1.084 eman dira.

**Arrasaten**, 148 etxebizitzako sustapen bat eraikitzen ari gara. 35 urtetik beherakoentzat, 65etik gorakoentzat, genero-indarkeriaren biktimentzat, mugikortasun murriztu iraunkorra duten pertsona minusbaliatuentzat eta guraso bakarreko familientzat dira etxebizitzok.

Zatoz "la Caixa"k Arrasaten dituen bulegoetako batera, eta egin eskaera.




Obra Social "la Caixa"

MODU ONEKO ALOKAIRUAK ZURETZAT



*Kontsultatu baldintzak www.laCaixa.es/ObraSocial web orrian edo 943 30 63 89 telefono-zenbakian

**MANKOMUNITATEA** > 2009KO AURREKONTUA ONARTUTA

# Laugarren garbigunea egiteko lursaila erosteko, 220.000 euro

Mankomunitateak joan den egubakoitzean onartu zuen datorren urteko aurrekontua

Ingurumen eta Turismo sailetan aurreikusi dira diru lerro esanguratsuenak


Gaur egun Debagoienean hiru garbigune daude; irudian, Bergarakoa. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE
Debagoieneko Mankomunitateak datorren ekitaldirako aurrekontu orokorra onartu zuen joan den egubakoitzean. Kontuek udalerri guztietako ordezkarien oniritzia jaso zuten, Oñatikoena izan ezik.

Behin-behineko erabakia da hori. Orain, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da eta hamabost eguneko epean, alegaziorik ez bada aurkezten, aurrekontuak automatikoki behin betiko onartuak izango dira.

Esan bezala, oñatiarrek kontra bozkatu zuten. Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak (EAJ) azaldu du pozik daudela sail guztietako funtzionamenduarekin, Kirola eta Euskara departamentuekin izan ezik: "Inongo adostasunik gabe, sail horietako proposamenak eta programak murriztu egin dira".

**IA 11 MILIOI EURO**
Datorren ekitaldiko aurrekontu orokorra 10.770.349,64 euro izango da. Aurtengo kontuekin alderatuta, %5,62ko igoera izango du. Pertsonal gastuetarako 2.492.790,91 euro eta gastu orokorretarako 6.253.715 euro bideratuko dira. Inbertsioetarako, berriz, 676.000 euro osatzen duten diru lerroak onartu dira.

Arloka, Ingurumenerako aurreikusi dira diru partida esanguratsuenak. Zerbitzu orokorretan, kontzientziarazte kanpainen partida 60.000 eurotik 120.000 eurora izatea adostu dute. Bestalde, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagari zerbitzu emateko datozen urteotan laugarren garbigune bat martxan jartzea planteatu da, Esteibar moduan ezagutzen den gunean. Bi partida sartu dira horretarako: lurzoruaren erosketaren inbertsiorako, 220.000 euro eta proiektua idazteko 24.000. Hiri hondakinen atalean, Mankomunitateak 25.000 euro bideratuko ditu ibarreko kaleetan pilak jasotzeko edukiontziak jartzera.

Zaborren bilketan eta kudeaketan aldaketak daude. Uztailetik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa arduratuko da Gipuzkoa osoan horretaz eta mankomunitateek zerbitzu hori ordaindu beharko dute; 125,74 euro tonako. Gainera, 120.000 euroko partida bat aurreikusi da Epele inguruan lursaila erosteko. Bertan konpost planta, transferentzia planta eta Mankomunitateko garajea egin nahi ditu. Epeleko zabortegiari dagokionez, zigilatzeko lehen fasearen proiektua idaztea aurreikusi du, 60.000 euroko kostuarekin.

Turismoaren aurrekontua 413.051,33 euro da; %11,88 igo da sail hori. Horren harira, esan beharra dago Eskoriatzak hartuko duela Bergararen tokia, Mundumira jaialdian, 2009an.

Euskara, Kultura, Garraio, Kirol eta Abere Hiltegietarako ere partidak onartu dira. Joan den urtekoak baino txikiagoak dira horiek, hala ere.

DIRU LERRO ESANGURATSUAK

**> SENTSIBILIZAZIOA** Zerbitzu orokorretan, kontzientziarazte kanpainen partida, 60.000 eurotik 120.000ra igoko da.

**> ZABORRAK** Zaborren bilketa eta kudeaketaren ardura hartuko du uztailean Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak. Mankomunitateak 125,74 euro tonako ordainduko ditu.

**> KONPOSTA** Epele inguruan, konposta egiteko plantarako, lursaila erosteko 120.000 euro.

**> GARBIGUNE BERRIA** Eskoriatza, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagari zerbitzua emango dien laugarren garbigunerako lursaila erostea eta proiektua erosteko 244.000 euro bideratzea aurreikusi du Mankomunitateak.

**BATZAR NAGUSIAK**

## Mesedeetako ikastetxean zaharren egoitza nahi du Aralarrek

Aldundiaren 2009ko aurrekontuari zuzenketak jarri dizkio

**M.B.** > ARRASATE
Aralarrek 236 zuzenketa partzial aurkeztu dizkio datorren urteko Gipuzkoako aurrekontuaren proiektuari eta batzuen berri eman du asteon egindako agerraldian. Besteak beste, diru-lerro berri bat eskatu du orain arte Arrasateko Mesedeetako ikastetxea izan den eraikinean zaharrendako egoitza publikoa egiteko. Diputazioak eraikina eros dezan milioi bat euro behar dela aurreikusi du.

Garraio publikoan ere zuzenketak sartu ditu. Debagoieneko herrien arteko loturak hobetzeko bitartekoak jartzeko partida eskatu du, baita bailararekin harreman estua duten Bizkaiko herriekin ere; esaterako, Elorriorekin. Bestalde, bidegorrien eraikuntza "mantsotu" egin dela salatu du. Hortaz, Landa-Mekolalde bidegorrirako eta Antzuola eta Bergara tarterako dirua gehitzea proposatu du.

**ETXEBIZITZA ETA HONDAKINAK**
Etxebizitzarekin ere arduratuta dago. Diputazioak lurren banku bat sor dezan nahi du, alokairu sozialerako bideratuta egongo dena. Hondakinei dagokienez, errausketa planta bertan behera uzteko eta gasifikazio errausketa bultzatzeko eskakizuna egin du. Azkenik, errenta txikienak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko eskatu du.



Zorionak eta Urte berri on!
leku eta egun ahaztezinak
120 eta 250 gonbidaturendako jangelak ditugu.
Etxe Aundi
Jatetxea-Hotela**
www.etxeaundi.com
Torre Auzo 9
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56

**EUSKARA** > KONTSEILUAREN X. URTEURRENA

# Ibarretik hiru autobus, 'euskaraz bai' esateko

Bergaratik, Antzuolatik eta Arrasatetik 16:00etan irtengo dira autobusak Kontseiluaren festan parte hartzeko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Debagoiendarrek parte-hartze zuzena izango dute bihar BECen egingo duten festa erraldoian. *Euskaraz bai* leloarekin antolatu du Kontseiluak hamargarren urteurreneko festa, eta hiru autobus irtengo dira Debagoienetik 16:00etan: Bergarako autobusa geltoki nagusitik irtengo da, Arrasatekoa Garibai Etorbidetik eta Antzuolakoa Sagastitik. Plazak libre daude Bergarako eta Arrasateko autobusetan. Interesatuek izena eman dezakete AEK-n (943 77 03 69) eta Jardunen (943 76 08 19).

Antolatzaileek 10.000 lagun inguru espero dituzte bihar. "Aurreikuspenak egitea oso zaila da. BECen 13.000 lagun inguru sartzen dira, eta dagoeneko sarrera erdiak saldu ditugu. Baina azken ordura arte zain egongo gara. BECen salduko dituzte sarrerak", esan digu AEK-k Kontseiluan duen ordezkari Oskar Elizburu arrasatearrak.

**EUSKARAREKIN KONPROMISOA**

Eneko Olasagasti zinema zuzendariak antolatu du biharko ekitaldia eta zirkuko ikuskizunak izango dira ardatz nagusiak. Besteak beste, Kirmen Uribe idazlea, Elena Irureta, Asier Hernandez, Patxo Telleria eta Mikel Martin aktoreek, bertsolariek eta Kiliko-lo taldeak parte hartuko dute festan. Kontseiluko kideek herritar guztien parte-hartzea espero dute. "Jendetza espero dugu bihar, egun garrantzitsua da-eta. Duela hamar urte hartutako konpromisoa berrestu behar dugu. Euskaraz bai esan behar dugu, euskaraz bizi izateko pausoak eman eta sostengua behar dugu-eta", dio Oskar Elizburuk.

Kontseiluko kideen nahia da festan parte hartzen duten guztiek konpromisoarekin bat egitea: "Nork bere mailan, euskararen ezagutzaren eta erabileraren alde pausoak emateko konpromisoa hartzea gura dugu. Ez da nahiko euskararen alde gaudela esatea. Jakin behar dugu pauso asko eman behar ditugula euskararen normalizazioa lortzeko, eta bidea bihar hasiko dugu"

## "Arrazonamendu politikoa berreraiki behar dugu"

Horixe aldarrikatu zuten Orreaga Taldeko kideek eguaztenean, Arrasaten egindako *Arrazonamendu politikoa berreraikitzea, askatasunerako arma bat* delako mahai inguruan. "Euskal Herriaren egungo egoera politikoa, estrategia faltan eta noraezean ibiltzean datza. Zortzi mendeko okupazioak arrazonamendua larriki zauritu du, eta berreskuratu behar dugu", esan zuen Orreaga taldeko kide Joseba Ariznabarretak Kulturaten.



ARRITXU BARRUSO



Xabier Mugartza eta Estepan Plazaola hitzarmena sinatzen. TXOMIN MADINA

**HITZARMENA** > ULMA ETA GOIENA ELKARREKIN

# GOIENKARIA bultzatuko du Ulma enpresak

Ulmako langileek erdi prezioan jasoko dute 'Asteleheneko Goienkaria' datorren urtean

**M.B.** > OÑATI

Ulmak eta Goienak lankidetza hitzarmena sinatu zuten eguaztenean. Ekitaldian parte hartu zuten Goiena Komunikazio Zerbitzuen presidente Estepan Plazaolak eta Ulmako presidente Xabier Mugartzak. Akordioari esker, Ulma Taldeko langileek erdi prezioan jaso ahalko dute *Asteleheneko Goienkaria*. Harpidedunek, prezioaren %50 ordainduko dute eta beste erdia bi enpresen artean jarriko dute: %38 Ulmak eta %12 Goienak.

Bi enpresek sinatutako lankidetza hitzarmena urtebetekoa izango da 2009ko urtarrilaren 1etik hasita, baina akordioa luzatzeko eta sendotzeko asmoa adierazi zuten bi ordezkariek.

**PLAN ESTRATEGIKOA**

Estepan Plazaolak esan zuen hitzarmen hori "bat datorrela Goienaren plan estrategikoarekin", eta datorren urteko helburuak betetzeko laguntza garrantzitsua izango dela. Gaineratu zuen epe ertain-luzera *Asteleheneko Goienkaria* "ordaindutako ibarreko egunkari salduena izatea lortu gura dutela".

Bestalde, Xabier Mugartzak esan zuen akordioak Ulmak euskararekin dituen konpromisoa berresten duela.

ESANAK

**"Epe ertain-luzera 'Asteleheneko Goienkaria' oraindutako ibarreko egunkari salduena izatea lortu gura dugu"**

**Estepan Plazaola** > Goiena

**JARDUNALDIA:**
**WEB 2.0: Debagoieneko enpresak Web 2.0 mundura gerturatzea.**

Antolatzailea:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Babesleak:

Garapen
Valora
Gizarte funtsak zure ekorkizunean inbertitzen du
El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro

- **Nori zuzendua:** Edozein tamaina nahiz sektoretako Debagoieneko enpresak.
- **Eguna:** 2008ko abenduak 18.
- **Tokia:** Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa etorbidea 17, 2. solairua. Arrasate.
- **Ordutegia:** 17:30 - 19:30.
- **Aurkezlea:** David Sanchez. Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea.
- **Egitaraua:**

**ENPRESA 2.0. BALOREAK ETA TEKNOLOGIAK**
- Web 2.0. Gizarte-iraultza berri bat sarean.
- Enpresa 2.0.
- Merkatuak elkarrizketak dira.
- Taldeko inteligentzia.
- Nortasun digitala eta gardentasuna.
- Gure inguruko enpresentzako erronka nagusiak.

**Izena emateko edo informazioa eskatzeko:** Tel.: 943 79 30 90. e-posta: *enpresa@debagoiena.net*

Jardunaldi hau PO FSE 2007-2013 VALORA proiektuko egitasmo bat da. Europako Gizarte Funtsak %50ean kofinantziatua.

Natra-Zahorreko arduradunen esanetan, banatzaile marka lantzea oinarrizkoa da

Natra taldearen produktuak saltzen dituzte, bere markarekin, Europako 30 banatzaile handienetatik 24k

**ELIKADURAREN SEKTOREA** > NATRA TALDEA

# Natraren produktuak Europako 24 banatzaile handitan daude

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Txokolatezko eta kakaozko eta horietan oinarritutako produktuak egiten dituen Natra enpresa –Oñatin Natra-Zahor lantegia duena– Europako 30 banatzaile handienetatik 24tan dago, besteak beste, Carrefour, Metro Group, Tesco, Rewe edo Lidl, talde horrek duen estrategiaren bidetik, hau da, Europako banatzaile marka lantzea. Bestelako marka batzuei eusten die Natrak –gurean, Zahor, edo Belgikako marka batzuk–, "tokian errekonozimendu handia dutelako eta oso erantzun ona dutelako". Horixe esan digu Natra-Zahor negozio unitateko zuzendari Pedro Anduagak.

Anduagaren esanetan, egungo krisi ekonomikoan, "zentzuzkoa da herritarrek gero eta gehiago kontsumitzea banatzaile markak; eta kalitatezko produktuak prezio komenigarriago baten erosteko aukera ematen dute".

**ZAHOR MARKA**

Oñatin Natrak duen lantegian 450 langilek dihardute, eta txokolatezko barratxoak eta Zahor markako tabletak eta bonboiak egiten dituzte. Pedro Anduagak dioenez, "sektore honetan, Europako lantegi garrantzitsuenetako bat da Oñatikoa, mundu osorako 400 produktutik gora egiten ditugu eta; 2008. urtean, 30.000 tona bukatutako produktuko bolumenaz ari gara". Era berean, "Natra-Zahor da Natra talde barruko zentro garrantzitsuenetako bat, 40 herrialde baino gehiagotara esportatzen dugu, eta Europa da gure merkatu nagusia". Horren arrazoia da Europako zenbait herrialdetan kakaozko produktuak kontsumitzeko ohitura handiagoa dagoela: Estatuan, urteko eta biztanleko 1,5 kilo da batezbestekoa; Suitzan, Britainia Handian edo Belgikan, 7-9 kilo.

Hala ere, "tokiko merkatua garrantzitsua da Zahorrendako, hemen daukagun tradizioarengatik", dio Pedro Anduagak.

**EKOIZLE HANDIENA IZATEA**

Krisiaren aurrean, Natraren estrategia ez da aldatu: "Banatzaile markarako txokolatezko eta kakaozko produktuen ekoizle eta merkaturatzaile handiena izatea". Urteko azken hiruhilabetean, "igoera garrantzitsua" izan dute Natraren salmentek, iazko datuen aldean. "Gure errezeta berbera da: lehiakorrak izatea kostuetan eta kalitatean, eta I+G-n inbertitzea kontsumitzaileen beharretara egokitzen diren produktuak sortzeko, eta banatzaileei produktuok euren markarekin eskaintzeko aukera ematea".

Natra taldeak inbertsio garrantzitsua egin du Oñatiko lantegian, eta horren lehenengo emaitza Vital'Crusty barratxoa izan da. Pedro Anduagak gaineratu duenez, "zapore eta osagarri berrien konbinazioekin lanean gabiltza". Horrez gain, beste arlo batzuetan berritzen dabil taldea; besteak beste, osagarri funtzionalak dituzten produktuetan, Natraceutical enpresarekin elkarlanean.

ESANAK

"Kakaoaren sektorean, Europako lantegi garrantzitsuenetako bat da Oñatikoa: 400 produktutik gora egiten dugu"

**Pedro Anduaga** > Natra-Zahor

**UDALAK**

## Madrildik 11 milioi euro jaso ditzake ibarrak

**L.K.** > BERGARA

Debagoieneko udalek eta Aramaiok, guztira, 11.172.738 euro jaso ditzakete Espainiako Gobernuko Administrazio Publikoen Ministeriotik, azaroaren 28an Ministroen Kontseiluak Udal Inbertsio Estatu Fondoa sortzea onartu zuen-eta. Dirulaguntza horiek udalek, udal taldeek edo mankomunitateek eskatu behar dituzte, eta baldintzak dira planifikatu berri diren, berehala hasiko diren eta enplegua sortuko duten udal proiektuetarako edo obretarako eskatzea. Urtarrilaren 24a da mugaeguna.

Horren harira, Alderdi Popularrak abenduaren 4an proposamen bat aurkeztu zuen, legez kanporatutako alkateak dituzten udalek dirulaguntzarik jaso ez dezaten.

**Gehienezko dirulaguntza**

| | |
|---|---|
| Antzuola | 375.392 € |
| Aramaio | 264.243 € |
| Aretxabaleta | 1.160.866 € |
| Arrasate | 3.914.272 € |
| Bergara | 2.623.497 € |
| Elgeta | 186.015 € |
| Eskoriatza | 700.520 € |
| Leintz Gatzaga | 44.247 € |
| Oñati | 1.903.686 € |

ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA




Eroskik Arrasaten duen hipermerkatuko irudi bat. GOIENKARIA

**KOOPERATIBAK** > EROSKI

# Eroskik bere barne egitura erabakiko du urtarrilaren 17an

Mondragon Taldeko enpresak, EAEtik kanpoko filialak kooperatiba bihurtu nahi ditu

**L.K.** > BERGARA

Eroski taldeak urtarrilaren 17an bozkatuko du EMES delako proiektua, talde osoaren izaera aldatuko duena; izan ere, proiektu horren ardatza da Eroskiren enpresa filialetan dihardunten 47.000 langileak kooperatibista bihurtzea. Langile horietako gehienak Euskal Herritik kanpokoak dira. Horretaz guztiaz informatu dute egunotan zenbait komunikabidek –Correo taldekoak eta *Noticias de Gipuzkoa*, batik bat–, Eroskiko iturriak aipatuz. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko batzarretara deitu dituzte langile bazkideak, abenduaren 14tik 21era bitartean.

**ERABAKI GUNEA**

Egitura aldaketa handiak ekarriko lituzke EMES proiektua onartzeak, eta, dirudienez, Eroskiko agintariak horren oso aldekoak dira. Gaur egun Eroski Taldeak Eroski S. Coop. delakoaren bidez eragiten du EAEn, eta kanpoan, filialen bidez; bada, filialak elkarte kooperatibo bihurtuko lirateke; Eroskiren erabakitzeko eskumena bigarren mailako kooperatiba batek izango luke, eta hor parte hartuko lukete kooperatiba berriek eta Eroski S.Coop.-ek; eta zenbait ahots kritikok ohartarazten dutenaren arabera, Eroskiren erabakitzeko gunea Euskal Herritik irten eta Espainian kokatuko litzateke.

> KRISIA

## Garayko 400 langileei eragingo die enplegu erregulazioak

Oñatiko Hijos de Juan de Garay enpresak iragarri du enplegu erregulazio espedientea bideratu behar duela. Oraingo astean ziren hastekoak espedientearen baldintzak negoziatzen enpresa batzordearekin, adostasunaren bidetik joan gura dutelako. Espedienteak langile guztiei eragingo die, 400 bat laguni.

Joan den egubakoitzean jakinarazi zion enpresak asmo hori enpresako batzordeari; dena dela, langileen ordezkariek esan dute langileek ez dutela informazio zehatzik jaso enpresaren aldetik. Automobilgintza eta eraikuntza dira enpresaren bi bezero nagusiak, eta horien krisiak Garayri eragin dio.

> KRISIA

## Cegasak pilak egiteari utzi nahi dio Gasteizko lantegian

Cegasa enpresak pilak egiteari utzi eta 240 langile aurreerretiratzea edo kaleratzea planteatu du. Horixe proposatu zion enpresa batzordeari joan den astean. Hala ere, Oñatin dituen jarduerei ez die eragiten proposamen horrek; batez ere, Gasteizen duen lantegiari eragiten dio.

Proposamenaren arrazoia da enpresak aitortzen duen egoera "kritikoa": oraingo ekitaldian 22,5 milioi euro galdu ditu eta produktuen prezioa jaitsi egin da. Atzerakada hori azken 20 urteotakoa da, baina azkenaldian areagotu egin da.

## gure artekoak

**CITROEN BERLINGO** > Berlingo autoaren aldaera da Berlingo berria; maiatzean merkaturatu zuten, eta batez ere tamaina da aldatu dena. Oraingoa handiagoa dela azaldu digu Mikel Loitik, Chapimeko arduradunak.

**Mikel Loiti** > Citroen Chapime kontzesionarioko arduraduna

# "Berlingo berriak ez dauka monobolumenen inbidiarik"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Maiatzean merkaturatu zuen Citroen etxeak Berlingo berria. "Orain, bi eratara matrikula daiteke Berlingoa: turismo moduan edo auto misto moduan", azaldu digu Mikel Loitik, Citroen Chapime etxeko arduradunak. Hori dela eta, bi prezio ditu autoak: furgoneta moduan, enpresentzat, 14.600 eurotik aurrera eskura daiteke eta turismo moduan, 15.475 eurotik aurrera.

Aurreko modeloa baino handiagoa da oraingoa: luzeagoa da, altuagoa eta zabalagoa. "Autoak dituen neurriak kontuan hartuta, Berlingo berriko eserlekuak merkatuko erosoenak direla esan daiteke", azaldu du Loitik. Atzealdean hiru pertsona nagusi erraz eta eroso sartzen dira. "Esan daiteke monobolumen baten antza duela", dio Loitik.

**SEGURTASUNA**

Industrial kutsua daukan autoa da Berlingoa, baina oraingo Berlingo berriak turismoaren berezitasunak hartu ditu. Hala, aire poltsa bikoitza eta ABS segurtasun sistema dakartza autoak. Gainera, EuroNCAP azterketan lau izar lortu ditu Berlingoak.

Berlingoaren furgoia bi tamainakoa izan daiteke: 4,380 metrokoa edo 4,628 metrokoa.



Maiatzean merkaturatutako Berlingoaren ondoan Mikel Loiti. A.E.

### Citroen Berlingo HDI 75 ZP X

| | |
|---|---|
| Prezioa | 14.600 euro |
| Luzera | 4,38 metro |
| Zabalera | 1,81 metro |
| Maletategia | 678 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,7 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 150 km/h[3] |
| Otik 100era | 17,1 seg. |
| CO2 isurketak | 150 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

"Azken horretan bi europale sartu ahal dira", adierazi du Loitik.

**MOTORRAK**

Motorrei dagokienez, bost motor aukera daude: dieselezko hiru eta gasolinazko bi. Dieselezkoak HDI 74 zaldi potentzia, HDI 90 zaldi potentzia eta HDI 110 zaldi potentzia dira; gasolinazkoak, ostera, 1.6 90 zaldi potentzia eta 1.6 16 v 110 zaldi potentzia.

"Enpresariei edo autonomoei eta familiei zuzendutako autoa da", azaldu du Loitik, nori zuzenduta dagoen galdetuta. Auto segurua eta erosoa dela gaineratu du.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > eazkarate@goiena.com

# Bailara dinamizatzeko ideia berriak elkarrekin

Ibarreko dendari, ostalari edo jatetxeetako ugazabak sarri entzun izan ditugu kexaka. Eskatuz aparkalekuak, ekitaldiak, seinaleak... Arrazoiz, seguruen. Kexatu bakarrik ez; buruari eragin eta proposamenak ere jarri dituzte mahaiaren gainean, eta batzuk aurrera atera ere bai: azoka edo jai bereziak, aldizkariak, bezeroak leialtzeko erosketa-txartelak... Ibarreko herri nagusietan hori.

Orain, ostera, Mankomunitate mailan dabiltza. Politikariak zein ostalaritza sektorekoak kezkatuta daude, Gasteizerako autobidea zabaltzeak ekar dezakeenaz. Eta kezkak konpartitzeaz gain, elkarrekin ekimen konkretuak lantzen hasi dira. Kuriosoena, guardiako jatetxearena. Izan ere, gure ibarrera kanpotik etorri eta jatera nora joan izan ez duenik bada. Beste ideia batzuk: errepideetan seinaleak jartzea, egun boladan dauden jardunaldi gastronomikoen erako ekitaldi handiak, pintxo lehiaketak, jatetxe guztiek menuan sartzeko jakia, saltzeko produktu berezituak... marka bateratu bat sartuz. Txalotzekoa da. Iruditzen zait, halere, beste bide lagun batzuk ere topatu beharko lituzketela ekimenok sozializatzeko.

**"Kexatu bakarrik ez; buruari eragin eta proposamenak ere egin dituzte"**

**> Krisian gaudela-eta, bezeroak erakartzeko proposamen deigarriak egin ditzakete: prezioak jaitsi, esaterako. Donostiako taberna ospetsu batean egin zuten eta oihartzun zabala izan zuen ekimenak.**

**> Mundumira moduko ekimenekin asmatu du Mankomunitateak. Zalantzak izan arren, datorren urtean ere egingo da: Eskoriatzan. Aurten Bergaran egindakoaren balorazio oso positiboa egin dute.**

## begi-bistan




**Suhiltzaileen lanrober berria (Donostia) 2008/12/09**

**Argazkia:** Diputazioa.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Lur orotariko zortzi ibilgailu banatu ditu Diputazioak. Oñatiko arduradun Hipolito Pozak jaso zuen Oñatiko parkeko ibilgailuaren giltza, Edurne Egaña diputatuaren eskutik.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Juan Zelaia**
ENPRESARIA

Zapatuan eman zioten Juan Zelaia oñatiarrari Argizaiola saria Durangoko azokan. Azken urtean Durangora ez joatea erabaki zuen Zelaiak, eta haren ordez Joseba Intxausti Euskal Fundazioko kideak jaso zuen aipatutako saria Durangoko azokan.



**Aritz Aranburu**
SURFLARIA

Hawaiin jokatzen dabilen proba erabakigarria da Aranbururentzat. Aurten izan duen lesioaren ondorioz, jaitsiera postuetan dago Aranburu; hala, Hawaiiko probako sailkapena erabakigarria izango da datorren urtean Aranburuk WCT proban jarraitzeko.



**Alberto Iñurrategi**
MENDIZALEA

Aretxabaletarrak FDMEk –Espainiako Eskalada eta Mendi Federazioa– emandako saria jasoko du datorren urtarrilean. Joan den udan egindako proiektua saritu du Federazioak: beste hiru lagunekin Gasherbrum lau egunean igo zutenekoa, hain zuzen ere.

Elkarhezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan Taldeak krisiaren gaineko hitzaldiak egin ditu asteon Arrasaten, Oñatin eta Eskoriatzan. Gregorio Lopezek (unibertsitate irakaslea) egin du hitzaldia eta Paul Nicholsonek (EHNEko kidea) laster egingo du. Besteak beste, zera aldarrikatu gura izan dute hitzaldiokin: "Euren krisia eurek ordain dezatela".

**Gregorio Lopez** > Unibertsitateko irakaslea

# "Ezin da irabaziak hainbat enpresaren esku izan, eta kostuak sozializatu"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Gregorio Lopez da Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslea. Horrez gainera, Attac elkarteko kide ere bada. Besteak beste, elkarte horrek aldarrikatzen du beharrezkoa dela interbentzionismo publiko handiagoa:**



Gregorio Lopez irakasleak, besteak beste, Kulturateko areto nagusian egin zuen hitzaldia, Arrasaten. UBANE MADERA

**Gaur egungo krisia, krisi finantzarioa barik, krisi sistemikoa dela diozu. Zer esan gura du horrek?**

Sistema neoliberal-kapitalistaren barruan dauden hainbat arlo garrantzitsutan krisian gaudela esan gura du horrek. Ez da bakarrik krisi ekonomiko edo finantzarioa, komunikabideetan ageri den moduan, baizik eta ingurumenaren, energiaren, jakien prezioen eta, adibidez, etorkinen mugimenduen krisia ere bada azkenaldian duguna.

**Badiozu, baita ere, krisiaren jatorria 2001ean dagoela. Zertan oinarritzen zara?**

Sistema kapitalista-neoliberalak gorabeherekin funtzionatzen du, krisi eta atzeraldi (errezesio) sasoiak izaten ditu. Kasu honetan, 2001ean bi gertakari izan ziren: puntukom izeneko enpresen krisia, batetik. Modu azkarrean loratu ziren Internetekin lotutako teknologia berri ugari; askok esan zuten orduantxe egoera hura ez zela normala. Eta bestetik, irailaren 11ko atentatuak. Horiek munduko sistema politiko eta ekonomikoa astindu zituzten eta AEBak krisian sartu ziren. Horri aurre egiteko, AEBetan egin zutena izan zen interes tipo txikien politika aplikatu. Hau da, krisia gertatzen da hazkunde ekonomikoa jaitsi egiten delako. Horri aurre egiteko, gobernuak kontsumoa eta inbertsioa indartzen ahalegintzen dira. Eta hori zelan egin daitekeen? Bada, interes tipoak jaitsita. Jendeari zorrak izatea gutxiago kostatzen zaionean, errazago kontsumitzen edo inbertitzen du. 2001ean hasi zen sortzen *eraikuntzaren burbuila*. Hau da, etxeen prezioak arrazoizkoa baino askoz gehiago igo izana hor hasten da. Etxebizitza bilakatzen da espekulatzeko ondasun. Jakina, errenta mugatua duten herritarrek arazo larriak dituzte etxebizitza lortzeko. Eta hori arriskutsua da. Orduan, interes tipoa txikia zen, baina interes tipoak igo ahala (orain hiru urte), etxeko ekonomia asko gainbeheran etorri dira. Etxeen krisiak ekarri du haien prezioa jaistea eta kalteak igarri dituen lehen sektorea eraikuntzarena izan da. Horren eskutik, aurreikuspen ekonomikoak behera etorri dira, banketxeek ez dute finantzatzen, eta azkenean, adibidez, automobila erosi gura duenari ez diote dirurik ematen... Horrek guztiak dakar automobilgintzan langabezia, eta horrela, krisia apurka-apurka dabil arlo guztietara zabaltzen.

**Eta 2001 ezkero ez dute aurreikusi krisia etorriko zenik?**

Analista askok esan dute ondasun baten prezioa igo eta igo egiten denean, iristen dela momentua prezioa jaitsi egin behar dela, hori ez delako erreala, espekulatiboa delako. Gertatzen dena da urte hauetan guztietan jende askok izan dituela irabaziak: banketxeek, espekulatzeko helburuarekin etxeak erosi dituzten herritarrek... eta administrazio publiko askok erraztasuna eman diote egoera horri. Handitzen eta handitzen doan burbuila baten aurrean bi aukera daude: gehiago puztu, lehertu arte; edo apurka-apurka eta modu kontrolatuan hustu. Lehenengo bidea aukeratu zuten, zoritxarrez.

AZKEN URTEOTAKO IRABAZIAK

**"Urte hauetan guztietan jende eta erakunde askok izan ditu irabaziak"**

NEOLIBERALISMOA

**"Kredo neoliberalak agintzen duena da: irabaziak arriskatzen dutenendako"**

HIPOTEKAK

**"40 urterako hipotekak sumisioa eragiten du; jendea ez da ausartzen protesta egiten"**

**Irabaziak aipatuta, zer gertatu da azken urteotako irabaziekin? Ezin dira ardurak eskatu?**

Enpresa handiak, entitate finantzarioak, aberastu egin dira. Eraikuntza enpresa handiek energia enpresak, informazio enpresak eta beste erosi dituzte. OPA eta fusioen zoramena izan da. Irabaziak pribatizatu egin dira, kredo neoliberalak agintzen duen moduan: irabaziak dira dirua arriskatzen dutenendako. Baina orain ikusten duguna da bereziki entitate finantzarioei eragiten dien krisi horren aurrean, segituan erakunde publikoen ateak jotzen dituztela, laguntza publiko eske. Hori da, justu, Attac moduko elkarteek salatzen duguna: ezin dena da irabazi pribatuak hainbat enpresaren esku izan eta kostuak, berriz, sozializatu, guztion esku utzi. Attac (Asociacion para la Tasacion de las Transacciones Financieras Especulativas) da mundu mailako elkartea eta, oro har, pentsatzen duguna da espekulazioan jarduten duenak, irabazteko helburuarekin, ordaindu egin behar duela. Attacen uste dugu herritarrek kontrola berreskuratu behar dutela. Etxebizitza lortzeko moduko gaiak, edo merkatu finantzarioen kontrola, ezin daitezke utzi enpresa pribatuen esku, enpresa pribatuek bakarrik interes pribatuaren alde egiten dutelako, eta horrek garamatza 30-40-50 urte bitarteko hipoteketara, eta hori egundoko zoramena da. Egoera hori dabil familia asko itotzen; bizitza guztirako, gainera. Hipoteka duten herritarrak, gainera, ez dira protesta egiten ausartzen, lanpostua galduko duten beldurrez, adibidez. Sumisioa eragiten dute hipotekek.

**Noiz arte iraungo du egoerak?**

Aurreikuspenak oso negatiboak dira eta egoera horretan ezin dugu itxaron epe motzera ez kontsumoa eta ezta inbertsioak indartuko direnik. Jendeak uste duelako hau luze doala eta luze badoa jendea egiten dabilena da kontuz jokatu, gutxiago kontsumitu. Aurreikuspenek diote 2009an krisia okertu egingo dela. Gaur irakurri dut Paul Krugmanek, Ekonomiako Nobel saridunak esan duela krisiak 2011ra arte iraun dezakeela. Denetik entzuten gabiltza. Eta kontuz ibiltzekoa da, duda barik. Arazoa da, gainera, aurreikuspenak ez badira hobetzen, kontsumoa eta inbertsioa ez direla indartuko, eta berdin jarraituko dugula. Baina egia da, baita ere, orain gobernuek bultzatu gura duten kontsumoa, neurrigabeko kontsumo horrek ere ingurumen mugak dituela, eta hori ja guztiok badakigu. Gaur egun kontsumoan, produkzioaren ugaritzean eta hazkundean oinarritutako ekonomian bizi gara. Ez bagara gauza horri bueltа emateko, ez dago konponbiderik. Orain ikuspuntu finantzariotik lehertu da egoera, baina bide beretik segitzen badugu, sei-zazpi urte barru lehertuko da errekurtso naturalen ikuspuntutik. Bidegurutze batean gaude, gertatzen dena da G20a moduko taldeek egiten dutena dela *tiritak* bakarrik ipini. Eta gu konturatzen gara egoera horren atzetik ekonomiaren erregulaziorik eza dagoela. Ekonomia libre lagatzen denean eta ez bazaie mugarik ipintzen gehiago irabazi gure dutenei, burbuilak sortzen dira, burbuila guztiak lehertu egiten dira eta krisia eragiten dute.



zabalik

Txipi Ormaetxea

# Nagi-aitormena

Beste berba batzuetan, neure nagikeriaren berri ematera nator hona. Izan ere, horixe bainaiz: nagi, alfer, zuri, ustel, sats (bueno, bueno, hainbeste ere)… bat.

Ez da kasualitatea hogei urte honetan funtzionarioa izatea, funtzionario espainola gainera, Aretxabaletako Goronaeta (eta ez, mesedez, Goroeta, Euskaltzaindiak berak ere horrelaxe bedeinkatu duen arren) auzoko pastore batek behin eta berriz gogorarazten didan bezala. Konstituzioari berari ere oniritzia eman behar izan niola ez dizuet kontatuko, horrek lotsa ematen dit eta.

Ba bai, jo eta su irakasten eta ikertzen aritu beharrean, hor jarduten dut jo eta ke hitz gurutzatuak osatzen, eta holako pitokerietan denbora ematen. Eta ez bakarrik etxeko egongelan, edo komunean, edo tabernazuloan; baita ere unibertsitateko kafetegian eta, egia aitortu behar badut, klasean bertan ere bai, nire ikasle gaixoak lanean ari diren bitartean.

**"Jo eta su irakasten aritu beharrean, hor jarduten dut hitz gurutzatuetan"**

**"EHUn ehunka irakaslek erretiroa hartuko dute; neu ere hor sartzea erregutzen diet"**

Hori eskolak ematera joaten naizenetan, ez bainaiz beti ere joaten. Horretan ez naiz nagia, eskolara ez joateko aitzakiak bilatzen. Badakizu, kongresu bat hemen, hitzaldi bat han… eta den-dena neure hitz gurutzatu maiteetan murgiltzeko. Bestela, zelan lortu, bada, negurako buru-estalki preziatua?

Eta zertara datorren aitormen hau? Egoismo hutsak hartaratu nau. Gaur (abenduaren 4an ari naiz idazten) hautatuko dugu EHUko hurrengo errektorea, eta bai Iñakik eta bai Marisolek azpimarratu digute datozen urteetan ehunka irakaslek erretiroa hartuko dutela, eta hala irakasleria gaztetuko dela.

Neu ere ehunka horietan sar nazaten erregutzen diet. Izan ere, zertarako behar du unibertsitateak ganoraz soilik hitzak gurutzatzen dakien pertsona bat?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## PUNTU BERDE MUGIKORRAK JARRAITUKO DU?

**Bergarako irakurle batek, joan den astean argitaratutako albiste baten harira, hauxe jakin nahi du: "Irakurri dut zelan Mankomunitateak olioa batzeko sistema berri bat ipiniko duen bailara osoan. Jakin nahi nuke gaur egungo Puntu Berde Mugikorrak oraindik zerbitzua ematen jarraituko duen".**

Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Saileko Kristina Iraolagoitiari zuzendu diogu gure irakurlearen galdera. Honakoa erantzun digu hark: "Bai, oraingoz Puntu Berde Mugikorraren zerbitzuak orain arte bezala jarraituko du, berdin-berdin; gutxienez, datorren urte osoan. Izan ere, Mankomunitateak gertu dauka 2009rako egutegia eta, ohi bezala, etxerik etxe banatuko du datozen egunotan". Hortaz, debagoiendarrek jakin ahal izango dute herri bakoitzean noiz egongo den Puntu Berde Mugikorra olioa eta bestelako etxeko hondakinak batzen.

Horrez gain, olioa batzeko sistema berri horren gainean, Iraolagoitiak gogorarazi du oraindik ez dagoela "ezer erabakita" zelakoa izango den; aztertzen dabiltza Arrasaten dagoen bilketa sistema hedatzea ibar osora, bestelako bat ipini edo beste aukera batzuk.

## GIDATZEN GOAZEN BITARTEAN ERRE DEZAKEGU?

**Arrasateko auto-gidari batek honako zalantza helarazi digu: "Gidatzen goazen bitartean erre dezakegu? Susmoa daukat debekatu egin dutela, eta entzun dut horretarako kontrol bereziak egiten dabiltzala, baina ez nago ziur. Eta, bestalde, esku libreko telefonotik hitz egin daiteke?".**

Arrasaten eta Aretxabaletan diharduen Larringan auto-eskolako Eukenek erantzun digu: "Ez, ez da horrela; ibilgailuan erretzea baimenduta dago". Hala ere, zehaztapen bat egiten du: "Ez erretzea gomendatzen da, distrazioa sor dezakeelako". Arduradun horren esanetan, kontu horrek nahasmena sortzen du, eta "jende askok, azterketetan, debekatuta dagoela erantzuten du". Horrez gain, ezeztatu egin digu erretzea debekatzeko inongo asmorik dagoenik agintarien aldetik.

Gure irakurlearen beste galderari erantzunez, hauxe esan digu: "Hitz egin daiteke telefonotik, betiere, eskuak edo aurikularrak erabili gabe; aurikularrak erabiltzea debekatuta dago, gidariak ondo entzuteko gaitasuna izan behar duelako. Arau horiek hautsiz edo telefono arruntez jardunez gero, gidabaimeneko bi puntu gal daitezke".

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrazkiz

Unai Busturia




blog-top

## Informazioa: informazioa soilik

**Iban Arantzabal**
goiena.net/blogak/arantzabal

Horixe dio Euskadi Irratiak egin duen irrati-spot berriak. Etxerunzkoan entzun dut, *Mezularia* amaitu eta gero. Informatiboez dihardu iragarkiak auto-bonboa eginez. Baina "informazioa: informazioa soilik" izatea ontzat ematen da?

Informazioa eta ez komunikazioa? Informazioa bakarrik? *Soila* dioenean *purua* esan gura du? Soila zer da, sinplea? Soila zer da, garbia? Soila esklusiboaren zentzuan? Soilik bai, eta iritziekin lagunduta ez?

Zer pentsatua ematen du *soil* berbak.

## Greziako demokrazia?

**Asel Luzarraga**
goiena.net/blogak/asel

Batzuetan isolatuak agertzen diren gertaera asko, haien protagonistek jakin gabe ere, elkarri lotuta daude. Beharbada horrelako zerbait ari da gertatzen orain munduko leku askotan, eta Grezian poliziak tiroz hil duen 16 urteko anarkistaren hilketa del-eta munduan gaztearekiko elkartasunez gertatzen ari diren protestak aspaldiko zurrumurru isilen esnatze ozena baino ez dira.

Kapitalismoa ahul dagoen honetan jo, kolpatu, borrokatu behar da.

Hemendik nire elkartasuna hildako gaztearekin eta Greziako anarkista guztiekin.

# Amorrua eta gaitzespena adierazten dugu!

**Mikel Alvarez, Iñaki Barcena, Joxe Iriarte 'Bikila', Rosa Lago eta Iñaki Antiguedad**
Bilbo

Adierazpen hau sinatzen dugunok, Abiadura Handiko Trenaren aurkako iritzia duten hainbat indar politiko eta erakunde sozial nahiz pertsona biltzen dituen AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak izanik, gure gaitzespena adierazi nahi dugu Inaxio Uria enpresariaren erailketa dela-eta. Uste dugu atentatu honen ondorioz AHTren kontrako herri mugimenduan borroka moldeei buruzko gogoeta sakona abiatu behar dela.

Inaxio Uria enpresaburuaren hilketak amorrua eragin digu eta ETAk auzi honetan esku hartzea gaitzesten dugu. AHTren aurkako mugimenduaren oinarriak mobilizazioa, erresistentzia eta desobedientzia zibila direla nabarmentzen dugu. Zinez uste dugu AHT geraraztea eta eztabaida sustatzea gizarte mugimendutik sortzeko gai izango garen dinamika herrikoiak eragingo duela, eta ez erakunde armatu batek hartu duen ustezko berme rolak. ETAri gatazka ekologiko eta sozial honetan esku hartzeari bertan behera uzteko eskatzen diogu.

Biolentziaren erabilera, dialektika geroz eta gogorrago batean abiatu eta indarkeriaren kontundentzia bestelako balorazio etiko eta politikoen gainetik nagusitzen denean, ikuspegi moral eta politikotik zentzugabea bihurtzen dela uste dugu. Hori da Euskal Herrian ETAren jarduerarekin eta gure herria astintzen duten amaierarik gabeko indarkeria ezberdinekin (Estatuen indarkeria barne) gertatzen ari dena.

Aldi berean, gogoeta eskatzen diegu agintari politikoei, egungo egoerara nola iritsi garen hausnartzeko eta atentatu hau AHTren aurkako herri mugimendua kriminalizatzeko erabili ez dezaten, ezta jendartean desadostasun zabala sortu duen AHTren egitasmoaren inposaketari ETAren aurkako borrokaren izenean eusteko ere. Izan ere, egoera tamalgarri hau AHTren aurkako oposizio sozialari zilegitasuna kentzeko eta ingurugiroan, ekonomian eta gizarte arloan hainbeste kalte eragingo lituzkeen egitasmo horren aldeko jarrera itsua suspertzeko baliatu nahi dutenen jokabidea errefusatu behar dugu.

AHTren aurkako mugimenduak bere ideiak era irekian plazaratzen eta defendatzen segituko du, sarritan nozitu ohi dugun zerko informatiboa eta AHTren bultzatzaileek (Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, etekinak ateratzen dituzten indar ekonomikoek) ezarritako zailtasun guztiak gaindituz. Gure armak arrazoian eta konbikzioen indarrean datzate, milaka herritarrek AHT gelditzeko aldarrikapenarekiko agertu duten atxikimenduan bezalaxe.

# Ikasle guztiak euskaldundu!

**Ibai Redondo**
(Euskal Herriak Bere Eskola)
Bergara

Mikel Laboaren abesti famatuak "Hegoak ebaki banizkion..." zioen, beste batzuen buruan ibili denak eta dabilenak "mingainak ebakiko bagenizkie..." dio; hau da, ez zutela hitz egingo; ez, behintzat, euskaraz.

Hori izan da mendetan Espainia eta Frantziako estatuek Euskal Herriko ikastetxe eta kaleetan erabili duten hizkuntza politikaren doinua: debekua, ukazioa eta askotan zigorra. Zorionez, euskaldunok gure hizkuntza maite dugu eta lan handia egin dugu berreskuratzeko, baita ikastetxeetan ere; ikusi besterik ez dago gure eskualdeko haur eta gazte guztiak euskaldunak direla eta Mikel Laboaren abestia ezagutzen dutela.

Baina zer-nolako panorama bizi dugu Euskal Herrian? Oso bestelakoa. Gaur egun Debagoiena oasi bat besterik ez da basamortuan, gure egoera ez bezalakoa da euskal lurralde gehienean. Gaur egun, Euskal Herriko hiru ikasletik batek bakarrik ulertu dezake Laboaren abestia, beste biek ez dakitelako euskaraz, eta hori bezain kezkagarria dena, administrazioetatik ezer gutxi egiten ari dira egoeari buelta emateko. Gai honetan, EAEko Hezkuntza Sailaren jokaera ere guztiz tamalgarria da: Hizkuntza Ereduen Politikaren porrota onartu eta legegintzaldi honetan lege berria onartuko zutela adierazi zuten, baita beraien hauteskunde programan sartu ere. Zoritxarrez, azkenean aurkeztu duten lege proiektua eskasa, hutsunez betea eta porrotera kondenatua dago. Hori diogu guk eta baita hezkuntzako eragile gehienek eta sindikatu abertzale guztiek ere.

Tontxu Camposen Hezkuntza Sailak aurkeztu duen Lege Proiektuak ez du ikasleak euskalduntzeko balio eta hurrengo hamarkadetako hizkuntza berreskurapen prozesua oztopatu eta ezinezko egiten lagunduko du, baldin eta bertan behera ez bada gelditzen. Oraindik denboraz gaude legea gelditzeko; horregatik, "Iruzurraren Legeari ez!" esateko Eskolak Euskaldundu Herri Ekimenak abenduaren 17rako egin duen mobilizazio egunarekin bat egiten dugu. Eskualdean ondoko mobilizazioan parte hartzeko dei egiten dizuegu: ikastetxeetan bi orduko geldialdia eta mobilizazioak ikasleek; arratsaldean Aretxabaletan, Arrasaten eta Bergaran mobilizazioak.

Espero dezagun berandu baino lehen euskal ikasle guztiak euskaraz abesteko gai izatea, horretarako hezkuntzan ere burujabetza behar dugu, Hezkuntza Sistema Nazionala eraikitzen jarraitu behar dugu.

# Beste behin...

**Iñaki Arantzabal**
Bergara

Litekeena da abenduaren 20an Realeko presidente izateari uztea. Ez borondatez, jakina; akziodunek kargutik kendu dutelako baizik...

Denok ikusten dugu Realetik kanpo Badiola eta bere kontseilariak. Baina, badaezpada ere, botak ipinita eta tiroka hil nahi du. Eta, hala, kritikatu ditu Loren kiroleko idazkari teknikoa eta Ibargutxi Diputazioak jarritako administratzailea, eta horien aurka irainka egin du, etsaien zerrenda luzea handituz. Baina neurri edo amets populistak ere zabaldu ditu: futbolaren ustelkeria salatzen segituko du, abendu-urtarrilean jokalari berriak ekarriko ditu, Realaren 100. urteurreneko ospakizunetarako batzordea eta logotipoa aurkeztu ditu. Joan zaitez Badiola!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**jpenagarikano@goiena.com**
**Telefonoa: 943 25 05 05**

Goiena.net

**www.goiena.net/blogak**

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikaberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

**Eta baita ere:**

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Kutxa Aurreikuspen Planak




# Gaurdanik ziurta ezazu.

Etorkizuna ezin daiteke bat-batean egin, egunetik egunera eraiki behar da. Horregatik, zure etorkizuna baldintza ekonomiko onenetakoa izan dadin ziurtatzeko, **Kutxaren Aurreikuspen-planak** dituzu aukeretan bikainenak. Gainera, gaur, **Aurreikuspen-plan Bermatu berria** aurkeztu nahi dizugu. Kontrata ezazu berehala, eta ziurtatu ahalik eta errentagarritasunik handiena.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

# Herriak

**Arrasate** > 18-19 **Bergara** >24-25 **Aretxabaleta** > 31-32 **Oñati** > 33
**Eskoriatza** > 34-35 **Antzuola** > 36 **Elgeta** > 37 **Aramaio** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39



**> ARETXABALETA**
Sahararako jostailuak batzeko kanpaina bukaerako jaia **> 25**



**> ESKORIATZA**
Udaberrian hasiko dira bidegorriaren beste tramu bateko lanak **> 27**



**> ELGETA**
Bigarren eskuko kirol materialaren azoka egingo dute gaur eta bihar **> 29**



**> ARAMAIO**
Borroka libreko erakustaldia egingo du Maider Undak etzi **> 30**

**ARRASATE** > ALDIZKARIA

## Herritarrekin hartu-eman zuzena izateko aldizkaria egin du Ibai-Artek

**BANAKETA**
'Arrasate bizirik' aldizkaria etxeetako postontzietan utziko dute

**HELBURUA**
Herri bizirik mantendu eta herritarrengana heldu gura dute aldizkariarekin

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Ibai-Arte merkatari eta zerbitzu elkartea 1992. urtean sortu zen, eta ordutik helburu nagusi bakarra izan du: herriko merkataritzaren eta zerbitzuen interesak defendatzea. Helburu horiek indartzeko asmoz, *Arrasate bizirik* aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu dute, Arrasateko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

**HERRIA ABERASTEKO IDEIAK**

"Ibai-Arte erakundearen gaineko informazioa zabaldu gura dugu aldizkariarekin. Krisi garaian gaude eta merkatari txikien aldeko apustua egin daitekeela erakutsi nahi dugu. Ibai-Arteko merkatariok saldu egiten dugu, baina herria aberasteko askotariko ideiak ditugula erakutsi nahi dugu", esan digu Ibai-Arteko presidente Arantxa Arantzabalek. Herritarrekin hartu-eman zuzena izateko aldizkaria sortu dutela dio Arantzabalek: "Ibai-Arteko kideek kuota ordaintzen dugu hiru hilean behin, eta poltsan genuen diruarekin herritarrengana heltzeko aldizkaria sortzea erabaki genuen". Merkataritza eta zerbitzu bako herririk ezin dela egon diote, ezta bezero eta herritar bako merkataritzarik. "Herria bizirik mantendu behar dugu, eta hori indartzeko egin dugu aldizkaria; alegia, gure ideia, kezka, egitasmo eta ekintzak herritarren artean zabaltzeko. Bestalde, herritarren iradokizunak jaso eta aldizkarian lantzeko prest gaude". Herritarren kritikak "begi onez" hartuko dituztela esan digute.




Argazkian, Ibai-Arteko kide Asun Loiti, Raquel Alonso eta Arantxa Arantzabal. MIREIA BIKUÑA

**EROSLEENDAKO INFORMAZIOA**

Arrasateko merkataritzaren aldizkariak 16 orri ditu eta koloretan kaleratu dute. Besteak beste, erreportajeak, elkarrizketa, auzoetako merkataritzaren gaineko albisteak, Udaleko berriak eta laburrak bildu dituzte. Guztira, 9.500 ale banatuko dituzte: "Dagoeneko hasi dira banaketa egiten. 8.500 Arrasateko etxe guztietako postontzietan utziko dituzte eta gainerako aleak Ibai-Arteko dendetan utziko ditugu, etxean jaso ez dutenek har dezaten edo beste herri batzuetatik datozen erosleek irakur dezaten. Beste herri batzuetan gure merkataritzaren berri izatea oso ona da guretako".

**HIRUHILABETEKARIA**

Ibai-Arteren asmoa da aldizkaria hiru hilean behin kaleratzea. "Garbi genuen lehen zenbakia abenduan egin gura genuela. Bigarrena martxo aldera egingo dugu. Gure asmoa da hiruhilabetekaria egitea. Ez dakiguna da orri kopuru berbera izango duen beti. Lantzen ditugun gaien arabera, aldaketak egon daitezke", azaldu digu Arantzabalek.

**PUNTU GORRIA**

Bestetik, Ibai-Arte txartela erabiliz, puntu gorria duten dendetan %5eko deskontua jasoko dute erabiltzaileek astelehenera arte. Azaroaren 24an hasi ziren deskontuak, eta herritarren erantzuna ona izan dela esan digu elkarteko presidenteak: "Denboraldia nahiko eskas zihoan, Fagorren aparteko pagari uko egingo ziotela jakin genuenean. Hortaz, Gabonetako erosketei indar apur bat emateko, deskontuak egitea erabaki genuen. Hiru astean egon gara horretan, eta herritarrek aprobetxatu egin dute. Gure dendara, behintzat, asko etorri dira Ibai-Arte txartelarekin".

Krisi garaian gaudenez, aurrera begira halako beste ekintza batzuk egitea ez dute baztertzen: "Zailtasunei aurre eginez eta arazoetatik aukerak sortuz, Ibai-Artekook herriaren eraikuntzan zuzenean parte hartu gura dugu".

ESANAK

**"Zailtasunei eta arazoei aurre eginez, Ibai-Artekook herriaren eraikuntzan parte-hartze zuzena izan gura dugu"**

**Arantxa Arantzabal**> Ibai-Arte

DATUA

**9.500**
**ALE**

Guztira, 9.500 ale argitaratuko dituzte. 8.500 ale etxeko postontzietan utziko dituzte eta gainerakoak Ibai-Arteko dendetan utziko dituzte erosleek hartzeko.

LEHEN ZENBAKIAN

### San Andres auzoko merkataritzari buruz

*Arrasate Bizirik* aldizkariko lehen zenbakian askotariko gaiak landu dituzte. Besteak beste, Ibai-Arte txartelaren abantailei buruzko eta San Andres auzoko merkataritzaren gaineko erreportajeak irakur daitezke. Gainera, Hirigintza Planifikazioan katedradun Jose Allenderi elkarrizketa egin diote. Zortzigarren eta bederatzigarren orrietan hainbat labur irakur daitezke; besteak beste, Merkemerkauaren III. edizioari eta Gabonetako apaingarriei buruzko laburrak. Merkataritzarekin zerikusia duten Udaleko gaiek ere badute tokia *Arrasate bizirik* aldizkarian.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 14 | Corcuera | Maisu Aramberri | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 15 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 16 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 17 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 18 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 19 | Etxeberria | Zarugalde, 42-44 | 943 77 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Domeka, 14 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Astelehena, 15 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Martitzena, 16 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 17 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguena, 18 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Egubakoitza, 19 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 14 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 15 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 16 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 17 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 18 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 19 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 15 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 16 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 17 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 18 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 19 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)........943 46 11 11
DYA (Antzuola)........943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)........943 76 55 76
Suhiltzaileak........943 78 28 00
Ertzaintza........943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala........943 03 53 00
- Antzuola........943 76 62 23
- Aramaio........945 44 53 40
- Aretxabaleta........943 71 19 59
- Bergara........943 03 54 00
- Elgeta........943 03 54 00
- Eskoriatza........943 71 44 52
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola........943 76 62 46
- Arrasate........943 79 14 39
- Aretxabaleta........943 71 18 63
- Bergara........943 77 91 06
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA........902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate........943 79 12 22
- Aramaio........945 44 50 33
- Aretxabaleta........943 77 12 64
- Bergara........943 79 12 22
- Eskoriatza........943 71 40 59
- Oñati........943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea........943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)........943 78 15 12
Nekazaritza ganbera........943 76 10 15
Zerga Bulegoa........943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate........943 77 11 43
- Bergara........943 76 44 42
- Oñati........943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio........945 44 53 35
- Arrasate........943 77 16 77
- Aretxabaleta........943 71 26 28
- Bergara........943 76 56 41
- Elgeta........943 76 82 84
- Eskoriatza........943 71 53 28
- Oñati........943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola........943 76 60 65
- Aramaio........945 44 53 74
- Arrasate........943 77 01 05
- Aretxabaleta........943 71 10 27
- Bergara........943 77 91 58
- Eskoriatza........943 71 46 88
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 03 53

Udalak
- Antzuola........943 76 62 46
- Aramaio........945 44 50 16
- Arrasate........943 79 09 00
- Aretxabaleta........943 71 18 62
- Bergara........943 77 91 00
- Elgeta........943 76 80 22
- Eskoriatza........943 71 44 07
- Leintz Gatzaga........943 71 47 46
- Oñati........943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 13**
Eguna ia euririk gabe hasiko dugu; baina arratsalde eta gauean giro euritsua bueltatuko da. Elurra gauean 600-700 metrotik gora botako du.



**Domeka, 14**
Tenperaturak behera egingo du eta ekaitz arriskuak jarraituko du. Aste hasierarako, berriz, tenperatura pixka bat igoko da.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburuan tenperaturak behera egingo du nabarmen eta txingorra eta ekaitza ere izango dira, tarteka. Elurra 700-800 metrora egingo du. Astean zehar tenperaturak igo egingo diren arren –batez ere kostaldean–, hotz egiten jarraituko du eta elur maila jaitsi egingo da.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Eguaztena,3 — **3 ºC**

**MAXIMOA** Domeka, 7 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **107,6 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 3** | 7 ºC | 3 ºC | 37,8 l/m² |
| **Eguena, 4** | 12 ºC | 7 ºC | 18,6 l/m² |
| **Egubakoitza, 5** | 11 ºC | 9 ºC | 6,3 l/m² |
| **Zapatua, 6** | 11 ºC | 5 ºC | 7,1 l/m² |
| **Domeka, 7** | 16 ºC | 7 ºC | 0,3 l/m² |
| **Astelehena, 8** | 12 ºC | 7 ºC | 15,3 l/m² |
| **Martitzena, 9** | 8 ºC | 6 ºC | 22,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA ABENDUAN



| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| **5** | **12** | **19** | **27** |

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Langabeendako ikastaroak Miguel Altunan**
Miguel Altuna institutuak honako ikastaroak antolatu ditu: batetik, ebaketa eta jantzigintza, 150 ordukoa; eta bestetik, Office teknikari ikastaroa, 210 ordukoa. Langabezian dauden emakumeei, iraupen luzeko langabeei, lehen enplegu bila daudenei... daude zuzenduta. Argibideetarako telefonoa: 943 76 93 94.

OÑATI
**> Mondragon Unibertsitateko aurkezpena**
MUko arduradunek unibertsitatea eta datorren ikasturterako ikasketa planen aurkezpena egingo dute hilaren 18an, eguena, Elkar Hezi ikastetxeko mediatekan, Santa Marinan, 18:30ean.

OÑATI
**> Sahara, Haiti, Peru eta Nikaraguako egoerak**
Herrialde horietan izan diren hainbat lagunek hango egoeraren berri emango dute, batez ere urarekin dituzten arazoen harira. Gaur, egubakoitza, izango da hori Elkar Hezi ikastetxean, 14:45ean.

BERGARA
**> 1980an jaioetakoen kinto bazkaria**
1980an jaiotakoek bazkaria izango dute abenduaren 13an Tartufon; autobusa izango dute hara joateko, azokan, 14:30ean. Izena emateko, diru sarrera egin behar da Euskadiko Kutxan ireki duten kontu korrontean.

BERGARA
**> 1989an jaiotakoek kintada egingo dute**
1989an jaiotakoek batera afalduko dute abenduaren 20an Agorrosinen. Izena emateko, sartu 35 euro Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan, abenduaren 14a baino lehen.

BERGARA
**> 1943an jaiotakoek loteria erosi dute**
1943an jaio eta urriaren 25ean Hondarribira irteera egin zutenek honako zenbakiekin jokatzen dute loterian: 21.705 eta 81.943.

BERGARA
**> Dantza ikastaroak antolatu ditu Jardunek**
Euskal dantza ikastaroak antolatu ditu Jardun elkarteak: erromeriako dantzak, otsailetik maiatzera, martitzenetan, 19:30-21:00 Ipintzako gimnasioan; eta fandangoa eta arin-arina, urtarrilean hasiera eta otsailetik maiatzera maila guztiak; eguenetan, 19:30-21:00, Ipintzako gimnasioan. Izenematea zabalik ago Jardunen edo 943 76 36 61 telefonoan; ikastaro bat 10 euro da, eta biak, 15 euro.

ARETXABALETA
**> Psikoterapia, meditazioa eta yoga**
Honako ikastaroak eta tailerrak emango ditu Aretxabaletako Yoga eta Psikoterapia Taldeak urtarrilean: psikoterapia eta norbere buruaren garapena, eguaztenetan, 19:30ean; meditazioa eta thailandiar masajea, hilaren 17an, 10:00-14:00; eta yoga eta norbere hazkuntza, urtarrilaren 10ean, 10:00-14:00. Argibideak: 616 96 57 95.

ARRASATE
**> Pedro Biteriren gaineko hitzaldi zikloa egingo dute datorren astean**
Pedro Biteri zenaren inguruko hitzaldi zikloa antolatu dute: *Viteri y la modernización de Mondragón* (abenduak 16), *Teresa García eta Felix Arano maisu-maistra ezin hobeak* (abenduak 17); eta hilaren 18an, Alberto Colo buru-kalkulu txapeldunaren erakustaldia. Kulturaten dira, denak 19:00etan.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Gehituren dokumentala eta hitzaldia**
Gehitu elkartearen eskutik, *Rainbow's end* dokumentala eta hitzaldia izango dira eguaztenean, hilak 17, kultura etxean, 18:00etan. Europan orientazio sexualarengatik jasandako bazterketak dira ardatza.

BERGARA
**> Patchwork eta antzerki ikastaroak aukeran**
Bergarako Udalak honako ikastaroak antolatu ditu: patchwork (martitzenetan, 18:30-20:30) eta antzerki tailerra (eguaztenetan, 18:30-20:30). Urtarriletik martxora izango dira. Izenematea zabalik dago kultura etxean (943 77 91 60) abenduaren 19a arte.

ELGETA
**> Gizonduz ekimenaren aldeko sinadurak**
Elgetako Udalak bat egin du Emakundek bultzatu duen Gizonduz delako ekimenarekin. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako idatzia da. Horrekin adostasuna adierazteko sinadurak batzen dabil Udala hilaren 14a arte.

ELGETA
**> Bigarren eskuko kirol azokarako materiala**
Bigarren eskuko kirol materialaren azoka egingo dute gaur, egubakoitza 18:00-20:00, eta bihar, zapatua 11:00-13:00 kultura etxean.

kale inkesta

# Liburutegira joateko ohiturarik badaukazu?



**Karlos Baleztena**
Langilea
Antzuola

Ez daukat liburutegira joateko ohiturarik. Noizean behin seme-alabekin joaten naiz liburuak hartzera. Liburutegi berria oraindik ez dut ikusi, baina herriarendako ona izango dela uste dut.



**Juan Kruz Madariaga**
Langilea
Antzuola

Oraindik ez dut liburutegi berria ikusi, eta normalean ez naiz joaten, semealabendako zerbait baldin badago bakarrik joaten naiz. Liburutegi berria nola geldituko den ikusteko gogoa daukat.



**Iñigo Alonso**
Langilea
Antzuola

Goizean zabalduko balute joango nintzateke, baita irakurtzeko egunkariak egongo balira. Semea arratsaldeetan joaten da bere amarekin, baina, bestela, liburuak hartzeko ohiturarik ez daukat.



**Rakel Dueñas**
Langilea
Antzuola

Nik apenas erabiltzen dut liburutegia. Libururen bat edo beste hartu izan dut, baina ezer gehiago. Berria zabaltzen dutenean, erabiliko dudala uste dut; gainera, zerbitzu gehiago egotea ere espero dut.



**Mikel Arregi**
Ikaslea
Antzuola

Batzuetan liburuak irakurtzera joaten naiz eta beste batzuetan, berriz, lanak egitera. Badaukat berria estreinatzeko gogoa; hala ere, ez dut ezer faltan igartzen, dauden zerbitzuak egokiak dira.

txistuak



GOIENKARIA

## Gidariek ikusteko oztopoak kale baten

Arrasateko irakurle batek bidali digu aste honetako kexa. Zehazki, Arrasateko San Vicente Ferrer kale amaieran dagoen bidegurutzea gidariendako oso gaizki dago, ez dutelako ezkerraldetik –ospitaleko norabidetik– datozen autoak ikusten, bertan dagoen zaborrontzia dela eta; gainera, batzuetan autoren batek ere bertan aparkatzen duela adierazi digu hark.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

**12**

Bihar, abenduak 13, Oñatiko plazan gobernuz kanpoko erakundeek (GKE) elkartasun azoka ipiniko dute. Hain zuzen, Euskal Herri osotik etorriko diren 12 GKE inguruk jarriko dituzte postuak, eta hainbat produktu salduko dituzte. Elkarhezik antolatu du azoka.

usteak uste

Iker Barandiaran

## 'Malbe': iraganetik ikasi

Iragana ahazteko erraztasun handia daukagu, itzela. Hain azkar bizi gara, aurrera begira besterik ez dugu egiten. Eta ezagun da atzera eginez gero, izan garena eta orain garena jakin ahal izango dugula. Zer izan dugun eta zer daukagun orain.

Halako ariketa egin dute *Malbe Alejandro Iturbe Arana* liburua egin dutenek. Hain zuzen ere, XIX. eta XX. mendeen artean Bedoñan jaio eta bizi izan zen baserritar ezagun bezain polemikoa zen *Malbe*-ren bizitza jaso dute, hainbat lekukoren laguntzarekin.

Are gehiago, haratago jo dute: *Malbe*-k ezagun egin zuen *¡Aguas y pastos libres!* aldarrikapena nondik datorren artxiboetan arakatu, eta jakin dute ibarreko hainbat herri-lur saldu zituztenean baldintza zehatz batzuk jarri zituztela, gaur egun betetzen ez direnak.

Zeresan handia daukan herri-lurren gaineko aldarrikapen horrez gain, aipatutako artzain eta baserritarraren bizitzako pasarteak ezagutzearekin bat, orain dela 60 bat urte Leintz ibarrean zelan bizi ginen zehaztasun handiekin azaltzen dute: usadioak, tradizioak, bizimodua... Liburua jendaurrean aurkeztuko dute astelehenean, 18:30ean, Kulturaten.

5 galdera...

## Aintzane Aizpurua

Lie osagarri dendakoa
Aretxabaleta

**1. Gabonak gainean ditugu. Opari on bat egin nahi duenak aukera zabala dauka zuen dendan, ezta?**

Bai, noski; gauza ugari, gainera, bai gizonendako zein emakumeendako: poltsa on batetik hasi eta zapiak, osagarriak, euritakoak, barruko arropak eta beste hainbat gauza dauzkagu aukeran dendan.

**2. Urtean zehar zein da jendeak gehien erosten duen produktua?**

Dendan dauzkagun produktuak urte osoan saltzen dira ondo, baina urte osoan gehien edo ondoen saltzen dena osagarriak dira.

**3. Lurrinetan zein da gehien saltzen dena emakumeendako eta gizonendako?**

Emakumezkoetan gehien saltzen dena Narciso Rodriguezen lurrina da eta gizonezkoetan, berriz, Iseey Miyake-rena saltzen da gehien momentu honetan.

**4. Lepoko zapiak eta poltsak ere saltzen dituzue: zein kolore daude modan orain?**

Beltza eta marroia sekula modaz pasatzen ez diren koloreak dira eta asko saltzen dira beti; baina aurten, adibidez, grisa eta morea bete-betean etorri dira eta jendeak asko erosten dituen koloreak dira.

**5. Gizonezkoak ala emakumezkoak, zeintzuk etortzen dira gehien zuen dendara produktuak erostera?**

Bada, ohiturari jarraituz, oraindik ere emakumezkoak dira gehien etortzen direnak. Edozelan ere, esan beharra daukat gero eta gehiago direla gizonezkoak; gero eta gehiago datoz, eta, jende askok uste duenaren kontra, erosteko orduan ideia finkoekin etortzen dira gehienak, nahiz eta badauden oraindik dendara etorri eta behar duten hori aukeratzen lagundu behar zaienak ere.






Kanpanzarrera bidean eraiki dute espiral itxura duen garajeen eraikina; Biterikoaren ostean, Arrasateko handiena da Muxibarkko parkinga UBANE MADERA

**AZPIEGITURAK** > MUXIBARKO GARAJEAK

# Muxibarko garajeak laster estreinatzeko moduan izango dira

Bizilagunek berriro eskatu dute goiko sarrera oinezkoendako izatea; Udalak ez du onartu haien eskaera

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ezustekorik ezean, datorren astean eskrituratu eta entregatuko dituzte Muxibarko garajeak, Kanpanzarrerako bidean eraikitzen dabiltzan horiek. Okupazio eta jarduera baimenak falta dira garajeak erabiltzen hasteko, eta baimen horiek lortzeko derrigorrezkoa da Arrasateko udal teknikarien ikuskaritza.

Bada, justu asteon izan dira udal teknikariak garajeak ikusten. Obraren arduradunak, Irurok enpresako ordezkari Jose Tomek, esandakoaren arabera, xehetasunen bat falta den arren, "datorren astean eskriturako" dituzte; "betiere, baimena ematen" badiete, jakina. Dena den, ez dute "arazo handirik" espero, "Udalarendako ere presazkoa da-eta".

**250 GARAJE, ERDIAK SALDUTA**

Espiral forma duen eraikin horrek zazpi solairu ditu, solairu bakoitzean 31 garaje inguru. Guztira 250 dira, eta horietatik sei garaje zailtasunak dituztenendako egokituta daude. Garajeen erdiak baino gehiago salduta dituzte: "Krisiaren eragina igarri dugu", dio Tomek. Hala ere, azpimarratu du norbaitek garajea erosteko asmorik badu, arin ibil dadila, "prezioak igotzeko asmoa" duelako; izan ere, espero du "garajeak funtzionatzen hasten direnean jende gehiago animatuko" dela. Oraingoz, garaje bakoitzak iazko prezio bera dauka: 21.636 euro BEZ barik. Halako bat eskuratzeko interesa izanez gero, honako telefonora deitu beharra dago: 943 77 09 92.

**IGOGAILU PUBLIKOA GERTU**

Muxibarko garajeen ezaugarrietako bat da bi igogailu dituela: bata publikoa eta bestea pribatua (garajeetarakoa).

Igogailu publikoa Muxibartik atera eta zuzenean iritsiko da Gorostizako bidegorrira, eta jakina, izenak esaten duen moduan edozein herritarrek erabili ahal izango du. Enpresa eraikitzaileak esandakoaren arabera, igogailu biak daude erabiltzeko gertu.

**GOROSTIZAKO AUZOTARRAK KEXU**

Bestalde, Muxibarko garajeen harira, Gorostizako bizilagunek atzera ere eskatu diote Udalari alda dezala garajeen goiko zubia, hura oinezkoendako bakarrik izan dadin. Udan ere eskaera bera egin zuten, 230 sinadurak babestuta. Arrasateko Udalak orduan ez zuen onetsi haien eskaera, esanez garajeen proiektua aspaldi onartuta zegoela eta bazuela baimena sarrera hori egiteko. Ino Galparsoro alkateak jakinarazi du orain ere erantzun bera eman dietela.

bere ustez



Jokin Etxebarria

## 'Highway to hell': autobidea infernura

Barkatuko didazue zutabe hau ingelesez titulatu izana, baina AC/DC taldea azkenaldian notizia izan dugula kontuan hartuta, egokia iruditu zait beraien kantu baten titulua erabiltzea. *Txoria txori* edo *Martxa baten azken notak* ere titulatu ahal nuen artikulua, gure kulturaren ikonoetako bati agur eginez. Izan ere, tamalez, Mikel Laboak martxa egin digu eta bere gitarraren azken notak ere jo ditu dagoeneko. "Munduaren esker ona" mundu honetatik zu zauden mundura, Mikel. Ez da, baina, azken egunetan eduki dugun galera bakarra, Azpeitian ere herriko gizon batek era tamalgarrian esan baitio agur munduari. Honek berriz ere AC/DCrengana darama nire pentsamendua. Sekulako iskanbila sortu zen talde australiarraren kontzerturako sarreren salmentan. Asko kontzertua ikusi barik gelditukо gara. Baita Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusia ere, eta bere haserrea adierazteko Diputazioko 70 sarrerak zozketatuko dituela esan du. Nik ez dut Bilbao AC/DCren kontzertu baten imajinatzen, baina hori da mundua aldrebestuta dabilen beste adibideetako bat. Ez dakit ez ote dugun *Infernurako autobidea* hartu.

**"Mikel Laboak martxa egin digu. 'Munduaren esker ona' zu zauden mundura, Mikel"**



**OHITURAK** > GABONETAKO OSPAKIZUNAK

# Kantuz hasiko dituzte Musakolan Gabonak

Jendetza biltzen den hitzordu berezia egiten dute Meneta tabernan Gabonetan, 24an eta 31n, elkarrekin ospatu eta abesteko

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE
Gabonak gerturatu ahala, sabel eta zintzur aldeak bakarrik ez, askok eztarria ere berotu ohi dute. Abesbatza eta kantu-taldez ez gabiltza urri gurean, baina agian guztiak ez dira hain ezagun; ez, behintzat, kalekoen aldetik. Horietako bat da Musakolan egiten dutena, Gabon egun eta Gabon zahar bezperatan. Koadrila galanta biltzen da han, Meneta tabernan, gaueko bederatzietan.


Arimarik ere ez da kabitzen egun horretan Menetan. BEÑAT APRAITZ

**ASPALDIKO OHITURA**
Hain zuzen, 25 bat urte daroate auzoan Gabonetan abesten Meneta tabernan. Hasi, San Isidro elkartean hasi ziren, Jesus Mari Apraitz sustatzaileetako batek azaltzen duen moduan: "Elkartean *Ziorlako ereserkia* abesten hasi ginen data horietan", dio erdi txantxetan, ereserki bitxiaren lerro batzuk erdi kantatuz; "geroago hasi ginen txikiteoan *Hator, hator eta Txoria txori* abesten". Ohitura gustatu, zabaldu eta sustraitu egin da azkenean, eta, Apraitzek dioenez, "*overbooking*-a" egoten da. Meneta tabernan ere egun "polita" dela diote. Egungo tabernariak, Norber Mondragonek, orain dela bi bat urte hartu zuen taberna. "Jende mordoa etortzen da abestera", dio Norber Mondragonek, tabernariak. "Jendea taberna kanpoan ere egoten da kantuan", azaltzen du. Txikiteo orduan, edalontzietan abestien hitzak ipintzeko ohitura daukate, aitzakia barik, guztiek izan dezaten elkarrekin kantatzeko aukera.

'ZIORLAKO ERESERKIA'

## Gabon kantuak, 'ziorlarren erara'

*Ziorla, donde reina la alegría*
*es en Ziorla donde reina el buen humor; no pararemos ni de noche, ni de día; aunque nos den con un dragón. Por eso las chicas guapas cuando se van a dormir*
*dejan la puerta abierta*
*por si alguno de Ziorla (x 2)*
*quiere ir*

> TXATXILIPURDI

### Ehun jostailutik gora Txatxilipurdi elkartearen jostailu-truke azokarako, biharko

Okendoko ludotekan egin dute hitzordua Txatxilipurdikoek biharko (zapatua) jostailu-truke azokarako. 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Denetarik batu dute: "Panpina piloa, mahai-jokoak, kamioiak, puzzle piloa…", dio Maite San Vicentek, Txatxilipurdiko teknikariak. Hark gogora ekarri du asteotan jostailuak eraman dituztenei txartel bana eman dietela eta horren truke eskuratu ahal izango dutela beste jostailu bat bihar.

> ELKARTASUNA

### Presoen eta haien senideen aldeko bigarren eskuko azoka bihar eta etzi egingo dute, Seberren

Material gutxiago, baina kalitate hobea duena; horixe da bigarren eskuko jantzi eta osagarrien azokan aurkituko duguna. 0,50 eurotik hasi eta, asko jota, 15 eurorainoko prezioak ipini eta txamarra, kamiseta, jertse, osagarri eta beste erosi ahal izango dira, "larregiko merke", antolatzaileen esanetan. Seber Altuben egingo dute azoka, zapatu eta domekan, 11:00etatik 20:00etara.

> KARTA JOKOAK

### Mus azkarreko III. txapelketa jokatuko dute gaur, egubakoitza, gauean, Txinato tabernan

Mus txapelketarako hitzordua egin dute Txinato tabernan gaurko, 22:00etan. Parte hartzeko nahikoa da hasi baino bost minutu lehenago izena ematea. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu eta, asko jota, 50 bikote onartuko dituzte. Lau sariak izango dira: 1.000 euro, garaikurra, txapela eta botilak; 500 euro, garaikurra eta botilak; 300 euro garaikurra eta botilak; eta 200 euro.

> JAIAK

### Lizaso eta Mendiluze bertsolariak izango dira, besteak beste, Bedoñako jaietan, asteburuan

Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara arte Bedoñako auzotarrak jaietan ibiliko dira. Besteak beste, bihar, zapatua, paint-ball jokoan jardungo dute, 10:30ean; 11:00etan, umeendako jolasak izango dira; 15:00etan, ipuin kontaketa, Amalur taldearekin; eta 21:00etan, auzotarrek afaria egingo dute, Lizaso eta Mendiluze bertsolariek lagunduta. Domekan, berriz, 11:00etako meza ostean Lore Gazteak taldeak saioa egingo du eta 11:30ean aitzur jaurtiketan ibiliko dira.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.
Telefonoak: 943 79 83 08 - 615 70 34 72
KONPROMISORIK GABEKO BISITA
BIZITZEKO GERTU
ELGETAN - TORREALDEA
2 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
36.407.000 pzta-tik aurrera
3 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
40.327.000 pzta-tik aurrera
4 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
56.481.000 pzta-tik aurrera
Garaje itxiak
1.997.000 pzta-tik aurrera

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50





Juan Ramon Garai, Ana Isabel Ugalde eta Alberto Coto. GOIENKARIA

### Hitzaldiak eta erakustaldia

**16, martitzena**
Ana Isabel Ugalde. *Don Pedro Viteri y la modernicación de Mondragón*. Kulturate, 19:00.

**17, eguaztena**
Juan Ramon Garai. *Teresa Garcia eta Maisu Arano. Maisu maiztra ezin hobeak.* Kulturate, 19:00.

**18, eguena**
Alberto Coto. Kalkulu mental ultrabizkorraren erakustaldia. Kulturate, 19:00.

**BERBALDIAK** > PEDRO BITERI

# Pedro Biteri gogora ekartzeko hitzaldi zikloa

Arrasateko filantropoak herriari egin zion ekarpena aztertuko dute Ana Isabel Ugaldek, Juan Ramon Garaik eta Alberto Cotok

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Pedro Biteriren gainean berba egiteko, Juan Ramon Garai historialaria, Ana Isabel Ugalde Gorostiza Artearen Historian doktorea eta Alberto Coto kalkulu mentalean munduko txapelduna gonbidatu ditu Udalak.

Berbaldi ziklo horren helburua da Petro Biterik Arrasateri egin zion ekarpena aztertzea, eta horretarako, hiru ikuspuntu ezberdin erabiliko dituzte hizlariek: arkitektura, hezkuntza eta kalkulu mentala.

**HIZLARIEN NONDIK NORAKOAK**

Ana Isabel Ugalde Gorostiza Artearen Historian doktorea da, eta baita Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultateko eta Arizmendi ikastolako irakaslea ere. Hala, Ugalderen berbaldiaren izenburua da *Don Pedro de Viteri y la modernización de Mondragón*.

Juan Ramon Garaik hainbat liburu idatzi ditu azken urteotan, eta beste askotan egin ditu kolaborazioak. Horrekin batera, Arrasatekoak Biteriren gaineko zenbait prentsa artikulu idatzi ditu: esaterako, *Biteri eskola, behartsuentzako eskola aberats bat* edota *Los ultimos alumnos de Arano*.

Azkenik, Alberto Coto asturiarra munduko txapelduna da kalkulu mentalean. Hain zuzen, kalkulu mentala ikasgai moduan lantzen zuen Pedro Biterik, eta garrantzi handia ematen zion horri. Hala, maisu Aranorekin batera eskolako hainbat ikaslek bidaia mordoa egin zituzten euren abileziak erakusten.

**KULTURA** > LITERATURA

# Lessing-en 'Belarra kantari' liburua aurkeztu zuten atzo

21. Jokin Zaitegi sariketa irabazi duen Koro Navarrok itzuli du Nobel saridunaren eleberria

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

2007an Literaturako Nobel saria irabazi zuen Doris Lessing idazle britainiarraren (Persia –egungo Iran–, 1919) *Belarra kantari* eleberriaren itzulpena aurkeztu zuten atzo Kulturaten. Idazlea ezagun egin zuen nobela Koro Navarrok itzuli du, eta horretarako, AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Kutxaren babesarekin antolatzen duten Jokin Zaitegi lehiaketak eman zion aukera. Izan ere, itzultzaile donostiarrak irabazi zuen 21. Jokin Zaitegi sariketa.

**JOKIN ZAITEGI ARETOAN**

Liburua urriaren 28an aurkeztu zen Donostian. Atzo heldu zen Kulturateko Jokin Zaitegi aretora. Aurkezpenean Koro Navarro, AEDko presidenteorde Ander Etxeberria, Elkarreko ordezkari Aintzine Mendizabal eta Kutxako kultura arduradun Mikel Irizar izan ziren.




Liburuaren azala.

> GAZTETXEA

### Kanpoko eta etxeko taldeek punk-oi! festa antolatu dute biharko

Gaurko hip-hop saioari punk-oi!-ak hartuko dio errelebua bihar. Herriko hiru musika taldek –The Crackers, Aggressive Combat eta Enboskada– eta Alemaniako beste batek –The Crackeels– kontzertua eskainiko dute gaztetxean, 22:30ean.

Lau talde, distortsioa eta ahots urratuak nagusi, hortaz.

> AURKEZPENA

### Alejandro Iturbe Aranaren bizitza hizpide duen liburua

Datorren astelehenean, hilak 15, *Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza* izeneko liburua aurkeztuko dute Kulturaten, 18:30ean. Aurkezpenera herritar guztiak daude gonbidatuta.

Liburuak Bedoñako *Malbe* ezinenez ezaguna zen Alejandro Iturbe baserritarraren bizitza kontatzen du.

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

BASATI TABERNA
943 711768

((112))
SOS DEIAK

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82


Xumearen
Dotoretasuna
Ehune
Apainketa
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

# GABONAK BERGARAN

**8**

**9**

**10**

**11**

**12**
19:00 eta 20:00 **Bergarako Orfeoiko umeen kontzertua** Zabalotegi aretoan. Sarrera: 2€.
22:30 **Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua** Udal pilotalekuan. Sarrera: 15€.

**13**
17:00 **Zine emanaldia.** *Horton**
19:30 **Zine emanaldia.** *Juno***
22:30 **Zine emanaldia.** *Juno***
20:00 **Bergarako Orfeoia**, **Gabero** eta **Ganbara Gazte** taldeen **kontzertua** Mariaren Lagundian.

**14**
17:00 **Zine emanaldia.** *Horton**
19:30 **Zine emanaldia.** *Juno***
11:30etatik aurrera **Koadroen erakusketa** eta **merkatua** Domingo Iralan (euria eginez gero San Martin plazako arkupeetan). Antolatzailea: Beart Arte Elkartea.

**15**

**16**

**17**

**18**

**19**
18:00 - 21:00 **Gabonetako II. artisau azoka**ren irekiera Munibe plazan.
18:30 **Bergarako Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua** Udal pilotalekuan. Sarrera: 4€.
19:30 **Gaztain-erre eguna**. Antolatzailea: Jardun Euskara Elkartea.

**20**
**Gabonetako Napar feria** San Antonio auzoan, Gure Ametsa elkarteak antolatuta.
10:30 – 14:00; 17:00 – 21:00 **Gabonetako II. artisau azoka.**
17:00 **Zine emanaldia.** *Kung Fu Panda**
18:00etatik aurrera; **Slalom bikoitza** Bideberrin, Beti Bustik antolatuta
19:30 **Zine emanaldia.** *En el valle de Elah***
22:30 **Zine emanaldia.** *En el valle de Elah***
22:30 **Gabonetako kontzertua** Udal pilotalekuan: **Bergarako Udal Musika Banda**, **Aritzeta**, **Bergarako Orkestra Sinfonikoa**, **Bergarako Orfeoia** eta **Musika Eskola**. Sarrera: 5€.

**21**
**Artearen III. merkatua** eta **txistorrak dastatzea** San Antonio auzoan, Gure Ametsa elkarteak antolatuta.
17:00 **Zine emanaldia.** *Kung Fu Panda**
19:30 **Zine emanaldia.** *En el valle de Elah***
10:30 – 14:00; 17:00 – 21:00 **Gabonetako II. artisau azoka.**

**22**
10:30 – 14:00; 17:00 – 21:00 **Gabonetako II. artisau azoka.**

**23**
10:30 – 14:00; 17:00 – 21:00 **Gabonetako II. artisau azoka.**

**24**
10:30 – 14:00; 17:00-20:00 **Gabonetako II. artisau azoka.**
**Herriko hainbat talde kantuan** Bergarako kaleetan.
17:00 **Olentzaro eta Mari Domingiren kalejira**.
17:15ean harrera egitea merkatu aurrean. Ondoren kalejira Bergarako kaleetan.

**25**

**26**
16:00 – 19:30 **Gabonetako jolas parkea** Labegaraietako kiroldegian. Eguneko sarrera: 3€.

**27**
16:00 – 19:30 **Gabonetako jolas parkea** Labegaraietako kiroldegian. Eguneko sarrera: 3€.
19:00 *Circ-cabaret Armando Rissotto*, Nartxi Azkargortaren **txotxongilo emanaldia** Zabalotegi aretoan. Sarrera: 5€.

**28**
11:30 – 14:30 **Bolu-ko** hainbat **artisten ate irekien jardunaldia**.
16:00 – 19:30 **Gabonetako jolas parkea** Labegaraietako kiroldegian. Eguneko sarrera: 3€.
18:00 **Nerabeentzako antzerki emanaldia** Zabalotegi aretoan. Sarrera: 3€.

**29**

**30**

**31**

**1**

**2**
18:00 – 20:00 **Umeentzako jolasak** (marrazkiak, Gabonetako postalak, jolasak…) Munibe plazako karpan. Antolatzailea: Jardun Euskara Elkartea.
22:30 **Ezinean eta Sarkor taldeen kontzertua** Munibe plazako karpan. Antolatzailea: Jardun Euskara Elkartea.

**3**
18:00 **Umeentzako antzerki emanaldia** Zabalotegi aretoan. Sarrera: 3€.

**4**

**5**
17:30 **Bizarzurik erregeentzako kartak jasoko** ditu San Martin plazan.
18:00 **Txokolatea** San Joxepe jubilatuen elkartearen eskutik San Martin plazan.
19:00 **Errege kabalgata**.
20:30 **14-18 urte bitartekoentzako afaria** Munibe plazako karpan. Koadrilek izena emateko kultura etxera deitu (943 77 91 60). Udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu. Jatekoa norberak eraman beharko du.
23:00 **Hesian taldearen kontzertua** Munibe plazako karpan, eta ondoren **Drindots taldearekin erromeria**.

**6**

**7**

**8**
19:00 **Helduentzako ipuin kontaketa** saioa Zabalotegi aretoan.

**9**

**10**
Goizean. **Ziklokros proba Osintxun**, Lokatza txirrindulari elkarteak antolatuta.

**11**

## ERAKUSKETAK

Berbildu seilu eta bildumazaleen elkartearen erakusketa: abenduaren 5etik 14ra.

Beart margo elkartearen erakusketa: abenduaren 19tik 28ra.

Aroztegi aretoan.
Ordutegia:
Asteartetik ostiralera: 18:00 – 20:30
Larunbatetan: 12:00 – 14:00 eta 18:00 – 20:30
Igandetan: 12:00 – 14:00

**Zine emanaldiak Zabalotegi aretoan.**
* Umeentzako saioa. 2€
** Helduentzako saioa. 3€

Leihatila saioa bakoitza baino ordubete lehenago irekiko da.

**BERGARAKO UDALA**
Kultura Saila

*Bergarako Udalak Gabon zoriontsuak opa dizkizue. Ondo bukatu urte zaharra, eta hobeto hasi berria!*

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIA

# Osintxu-Mekolalde bidegorriko lanak udaberrian hasiko dira

## Osintxu eta Mekolalde artean ia bi kilometro egokituko dituzte

## Soraluzetik Mekolalderaino zorua konponduta dago, eta orain argia jarriko dute


Irudian argi nabari da Osintxun non bukatzen den konpondutako bidegorri zatia eta non hasten den konpontzeko dagoena. M.B.

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Foru Aldundiak, Garapen Iraunkorreko Departamentuaren eskariz, erabaki du Soraluze eta Mekolalde artean –trenbide zaharrean– bidegorria egiteko lanak enkantera ateratzea, 1.080.816 eurotan. Era berean, kontratazio eta esleipen espedienteak ere onartu ditu. Lanok udaberrian hasiko dira eta sei hilabete eta erdi iraungo dute.

**BI TARTE**
Egingo dituzten lanak bi tartetan banatzen dira: alde batetik, Osintxu eta Mekolalde artean zoladura egokituko dute, egoera oso kaskarrean dago-eta. Horrekin batera, beharrezkoa den argiteria ere jarriko dute. Osintxu eta Mekolalde arteko tarte horrek 1,75 kilometroko luzera du.

Beste aldetik, Soraluzetik Osintxurainoko tartea –2,25 kilometro ditu– bidegorri gisa egokituta dago, baina beharrezkoa den argiteria jartzea falta da, eta horixe da egingo dutena.

Esandako bi tarteak oinezkoek nahiz bizikletariek batera erabiltzekoak izango dira. Dena den, oinezkoek lehentasuna izango dute eta bizikletek abiadura mugatua izango dute.

**KULTURA** > MUSIKA KORALA

# Orfeoiko nagusien eta gazteen emanaldia

## Gaztetxoen taldeek gaur, egubakoitza, egingo dute saioa eta nagusien taldeak bihar, zapatua

**M.B.** > BERGARA
Aste bukaeran, Bergarako Orfeoiak eta haren harrobi diren gaztetxoen taldeek emanaldia emingo dute.

Gaur, egubakoitza, emanaldi bikoitza egongo da, Zabalotegin: Orfeoi Txikitxoak eta Gaberok 19:00etan egingo dute emanaldia. 20:00etan, berriz, Orfeoi Txikik eta Gaberok jardungo dute. Taldeok estilo askotariko Gabonetako kontzertua egingo dute.

Nagusien taldeak ere Gabonetako kontzertua egingo du bihar, zapatua, 20:00etan, Mariaren Lagundiko elizan. Saioaren lehen zatian konpositore ingelesen lanak abestuko dituzte eta bigarrenean J.Rutterren *Mass of the children* egingo dute. Horretan lagunduko diote Oñatiko Ganbara Gazte Abesbatzak eta Gaberok. Bestalde, bakarlari jardungo dute Nere Ibarra sopranoak eta Carlos Etxaniz baritonoak.


Orfeoiko talde txikienek gaur egingo dute saioa, Zabalotegi aretoan. GOIENKARIA

**bere ustez**


Iñigo Garitano

# Notizia on bat gutxienez

Udazken-negu goibel eta euritsu honek notizia txarrak besterik ekarri digulakoaren sentsazioa dut gaur: Mundu mailako krisi ekonomikoaren aurpegi gordina gurean (langabezia, EREak nonahi, etorkizunari beldurra...), negozioaren porrotak lur jota laga duen gertuko baten egoera, Uria enpresariaren hilketa ETAren eskutik, AHTren kontrako mugimendu zabala kutsatuz, egoera politikoaren etorkizun iluna (beltza), lagun baten senidearen gaixotasun larria, beste ezagun baten depresioa... hau da hau!

**"Pentsatu nahi dut egun ilun, motz eta bustiok ez dutela laguntzen mundua bestela ikusten"**

Pentsatu nahi dut egun ilun, motz eta busti hauek ez dutela laguntzen mundua beste kolore batekoa ikusten lagatzen (lanbroak ezkutatzen dituen bazterrak; e, Mikel!) eta etorriko direla garai hobeak. Ez dut albiste txarrik jaso nahi, eta nahiz eta jakin gizakiok gaitasun imajinaezina dugula zailtasunei aurre egiteko, benetan aspertuta nago notizia desatseginak hartzeaz. Ez dut mirarietan sinesten, baina itxaropena ez dut galtzen gutxienez Urte Berriak, Olentzerok, Erregeek, Obamak edo eta G8ak zein G20ak, berdin zait, notizia onak ekarriko digutenik. Gutxienez bat, mesedez.

SANTOS
TIEN 21
DESKONTUAK
Renove plana etxetresnetan
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea. BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

**AZPIEGITURAK** > ARRIZURIAGA-ERREGE MINTEGIA

# Lorategien aldeko taldeak dio "EAJk ez duela asmatu" emandako argudioekin

Lorategi historikoen aldeko ekimenak uste du guztiz bateragarria dela Uned Arrizuriagan kokatzea parkeak dituen kultura balioa babesarekin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Aurreko astean prentsaurrekoa egin zuen EAJko udal taldeak, Udal Gobernuak eta UNEDek egin nahi duten eraikin trukaketaren harira. Hain justu, UNED Arrizuriagan kokatzeko eta Errege Seminario osoa Udalaren esku geratzeko proposamenaren harira egin zuten agerraldia, eta baita horren kontra daudela azaldu ere.

Proposamen horren kontra agertzeko eman zituzten argudioen artean erabili zuten Untzeta-Arrizuriagako lorategiaren izaera historikoa, eta Bergarako Lorategi Historikoak Ekimena ez dator bat horrekin, erredakziora bidalitako oharrean azaltzen dutenez.

**EKIMENAREN ADIERAZPENAK**

Ekimenak uste du "guztiz bateragarria" dela "Arrizuriaga handitzea eta UNED han kokatzea "Arrizuriagako lorategi historikoak dituen kultura balioen babesarekin". Dio, baita ere, "erabat bateragarriak" direla "berdegunearen erabilera gozamen publikoarekin. Kontua da gauzak ondo egitea". Horren haritik, uste dute kultura balioekin bateragarria ez dena dela "aurreko Udal Gobernuak egindako kalea, era guztiz arduragabean, lorategiaren zati bat suntsituz eta testuingurutik kanpo utziz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emandako irizpideei batere jaramonik egin gabe".

Bestetik, ekimenaren ustez, "deigarria da EAJko udal taldearen berehalako sentsibilitatea" lorategi historikoen gainean. Eta dio: "Benetako interesa konfirmatuko balitz, herriko lehenengo talde politikoa izango litzateke urrats hori ematen". Hala, zalantzak argitze aldera, EAJri eskatzen diote osoko bilkuran aurkez dezala proposamena Jaurlaritzak 2007ko ekainean Bergarako Udalari proposatutakoa bete dadin.

Horrez guztiaz gain, argi laga nahi izan dute Arrizuriagako lorategiaren kultura balioak babestea bateragarria dela guztiz "herritarrek gune hori gozatzearekin, zein Arrizuriaga eraikinaren handitze eta erabilera akademikoarekin".

**TRUKEA, INTERESGARRIA**

Ekimenak "oso interesgarritzat" jotzen du UNED eta Udalaren arteko eraikin trukea. Hala, "traketsa" iruditu zaie "EAJko udal taldeak Bergaran UNEDen etorkizuna baldintzatzeko modua", eta, era berean, "taxugabea" "Seminarioko eraikin esanguratsuaren erabilerari uko egitea", besteak beste, "preziorik ez duelako herriko ekimenak Errege Seminarioan libre geratuko litzatekeen espazioa kokatu ahal izatea". Eta gehitzen dute: "Argudio ekonomikoa gelditzen da bakarrik ezezkoa emateko eta hori erabiltzea da justifika ezina justifikatu nahi izatea".



UNED Arrizuriagan –irudian– kokatzearen aurka dago EAJko udal taldea. ARTXIBOA

**IKASTAROAK**

## Dantza eskolak eta lehiaketak

**M.B.** > BERGARA

Jardunek erromeriako dantzak eta fandango eta arin-arina ikasteko ikastaro bana antolatu ditu. Erromeriako dantzak otsailetik maiatzera izango dira –martitzenetan, 19:30-21:00, Ipintzako gimnasioan– eta fandango eta arin-arinekoak, urtarrilean hastapenekoak eta otsailetik maiatzera maila guztiak –eguenetan, 19:30-21:00, Ipintzako gimnasioan. Bietan ala bietan, eskolak hasiko dira urtarrilaren 8an. Izenematea zabalik dago 943 76 36 61 zenbakian.

**OLENTZERO LEHIAKETA**

VII. Olentzero marrazki lehiaketa ere deitu du Jardunek. Oinarria da Olentzero marraztea, eta helburua, herriko umeen artean Olentzeroren irudia indartzea. Lehiaketan parte hartuko dute 6 eta 11 urte arteko herriko ikastetxeetako umeek. Adin bakoitzeko onenek jasoko dute saria –euren marrazkiekin egindako koadro bana eta liburu bat. Saria emango dute hilaren 18an.

**JOSTAILU eta HAURREN OINETAKOEN BILKETA**

ABENDUAREN 20an, goizez, San Martin plazan.

ARGENTINAKO JOSÉ C. PAZ herrirako

ARANZADI IKASTOLA



ELKARTASUNA

Antolatzailea:

ARANZADI ikastola

Kalitatezko Euskal Heziketa

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Zigalitis-Internacional | **3-0** |
| Zigalikatis-UD Akabaoak | **4-7** |
| CM Errotagain-Niu Tim | **7-2** |
| CM Errotagain-Irubide Taberna | **9-3** |
| Los Latinos-Irubide Taberna | **12-3** |
| Irish Pub-Internacional | **8-5** |
| Monte Taberna-Los Blus | **3-5** |
| Los Latinos-Carboneros | **4-8** |
| Diego Valor-Belengua | **6-6** |
| Niu Tim-Komando Piperrak | **5-6** |

**PARTIDUAK**

| Abenduak 13, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **19:00** Carboneros-Internacional | **Los Blus** |
| **20:00** Zigalikatis-Los Blus | **Carboneros** |
| **Abenduak 14, domeka** | **Epaileak** |
| **16:00** Niu Tim-Irubide Taberna | **Komando** |
| **17:00** Irish Pub-Komando Pip. | **Niu Tim** |
| **18:00** CM Errotagain-Belengua | **Irish Pub** |
| **19:00** Diego Valor-UD Akabaoak | **Belengua** |
| **20:00** Monte Taberna-Los Latinos | **Diego V.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 30 | 10 |
| **2.** | Carboneros | 28 | 10 |
| **3.** | Los Latinos | 24 | 10 |
| **4.** | CM Errotagain | 23 | 10 |
| **5.** | Zigalikatis | 19 | 10 |
| **6.** | Komando Piperrak | 16 | 10 |
| **7.** | Belengua Taberna | 13 | 10 |
| **8.** | Los Blus | 12 | 10 |
| **9.** | Diego Valor | 11 | 10 |
| **10.** | Internacional | 10 | 10 |
| **11.** | Niu Tim | 7 | 10 |
| **12.** | Irish Pub | 6 | 10 |
| **13.** | Monte Taberna | 3 | 10 |
| **14.** | Irubide Taberna | 1 | 10 |

### Arazoak konpontzeko bidean daude

Labegaraietako antolatzaileak orain arte ez dira Udalarekin oso pozik egon, eurek egindako hainbat eskaera ez dituztelako aintzat hartu. Esaterako, Labegaraietako kantxako sare batek denbora asko darama apurtuta, eta futbolean jokatzerako orduan oso deserosoa da hori.

Konponketa horiek egin asmoz, eta beste eskaera batzuk egiteko antolatzaileak Udal ordezkariekin jarri dira harremanetan, konponbide bila. Hala, antolatzaileek aurreratu dute Udaletik erantzun positiboa jaso dutela, eta arazoak konpontzeko asmoa erakutsi dutela.



Imanol Cabanillas Zestoako kontrarioa gainean duela; Bergarak denboraldiko partidu onena egin zuen, 5-0 irabaziz. J.A.

**FUTBOLA** > ERREGIONALA

# Laugarren dagoen Urolaren bisita izango du Bergarak etzi

Mahoneroek lidergoari eusten diote joan den astean Anaitasunari Azkoitian 0-1 irabazita

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bergarak bide beretik jarraitzen badu nekez utziko dio erregionalean agintzeari. Orain arteko hamabi jardunalditan Manu Diazen mutilek ez dute partidurik galdu –9 berdinketa eta 3 garaipen–, eta lau gol baino ez dituzte jaso. Hain zuzen, hor dago Bergararen arrakastaren lehen gakoa, taldeak defentsa lanetan duen egonkortasuna –gol gutxien jaso duen taldea da–. Askotan, baina, atzean indartsu egoteak hankamotz uzten du aurrealdean egiten den lana, baina ez da Bergararen kasua –gol gehien egin dituen hirugarren taldea da.

Bolada horri jarraipena eman asmoz zelairatuko dira Bergarako jokalariak domekan Agorrosinera (15:30 Agorrosin). Laugarren postuan dagoen Urola izango dute aurrean.

**BTLS-EK TOLOSAN JOKATUKO DU**

Helburu xumeago batekin, BTLS ere maila polita erakusten dabil, sailkapenaren erdian. Oraingo asteburuan Tolosan jokatuko dute, bihar (17:30).

**PIRAGUISMOA** > ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA

# Beti Bustik Eskola Arteko Txapelketa egingo du bihar, eta Kayak festa hilaren 20an

**X.U.** > BERGARA

Datozen bi asteburuotan piraguismoak aparteko protagonismoa izan behar du Bergaran. Hasteko, bihar arratsaldean Eskola Arteko Txapelketa egingo dute Deba ibaiko uretan, Labegaraieta parean dauden ur bizkorretan. Piraguistak 18:00ak arte ibiliko dira txapelketan lehian, eta eguraldiak laguntzen badu ekintza gehiago antolatuko dituzte.

**ABENDUAREN 20AN JAI HANDIA**

Piraguismoaren jai handia, baina, hilaren 20rako antolatu dute, musika eta kirola bateratuko dituzten Kayak festan.

Santa Marinako zubi inguruan slalom txapelketa egingo dute; 18:00etan hasiko da txapelketa, eta 22:30ean egingo dituzte finalak –18.000 watt-eko argiak ipinita. DJ-ek girotuko dute final hori, eta horrekin batera 2007an AEBtako Colorado kanoietan kayak eta baltsatan egindako zeharkaldiaren ikus-entzunezkoa ere emango dute.

> LEHIAKETAK

### Gabonetako jaiotza eta postal lehiaketa San Antonion

Jaiotza eramangarrien VII. lehiaketan –Serafin Esnaola memoriala– edonork har dezake parte. Jaiotzek irudikatuko beharko dute Gabonetako misterioa duintasunez eta begirunez. Lanak aurkeztuko dira abenduaren 19an, 20:00etan, San Antonioko Gure Ametsa elkartean.

Gabonetako postalen IV. lehiaketa ere deitu dute 3 eta 12 urte artekoendako. Marrazkiak Gabonen gainekoa izan beharko du. Postalok eroango dira Gure Ametsara hilaren 19an, 19:00etatik 21:00etara.

> AISIALDIA

### Film emanaldiak Zabalotegin eta gaztetxean

Zabalotegin emango dituzte bi film. Umeendako emango dute *Horton* bihar, zapatua, 17:00etan eta etzi, domeka, 17:00etan. Helduendako, berriz, *Juno* emango dute. Saioak izango dira bihar, zapatua, 19:30ean eta 22:30ean eta etzi, domeka, 19:30ean.

Gaztetxean emango dute *El club de la lucha* David Fincher zuzendariaren filma, domekan, 18:00etan. Filmaren gaineko informazio gehiago: *http://zinekluba.wordpress.com.*

> ERAKUSKETA

### Beartekoek salgai eta ikusgai jarriko dituzte margolanak

Domekan azoka egingo dute Beart elkarteko kideek Domingo Irala kalean –euria eginez gero, San Martin plazako arkupeetan jarriko dute. Azoka horretan elkarteko 20 kide inguruen lanak ikusgai eta salgai egongo dira, 11:00-13:30 ordutegian. Aspaldi zuten halako azoka egiteko gogoa Bearteko margolariek eta helburua da egiten duten lana jendeari zabaltzea, herritarrengana helaraztea, hain justu.




AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00


JANTZIDENDA
LASAGABASTER
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55
ETXE APAINKETA


GABONETAKO
ESKAINTZAK
Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93
Mirari jantzi dendak
Gabon zoriontsuak
opa dizkizue!

# Goienkaria

Martitzena / 2008ko abenduaren 16a / **GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA**



# SANTAMASAK
# GABONAK 08
# ARRASATE

ARGAZKILARIA: JOSETXO ARANTZABAL

MILAR ELKORO




Olarte 1, Arrasate, 943 79 74 49

Santamasetako giro
azoka eta talo,
gaur danok ez gaz baine
bixerko,… auskalo

Baserritar jantziz
jaiaz gozatu,
txerriaren omenez
ondo pasatu!

Zuen zerbitzura

Arrasateko Udala

**Goienkaria**

**Argiraratzailea**
Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Arduraduna** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Mirian Biteri, Irati Agirreazaldegi, Arantzazu Ezkibel, Mireia Bikuña, Jasone Zabala, Jon Berezibar, Maider Arregi, Jokin Bereziartua, Monika Belastegi. **Maketazioa** Oxel Arrieta **Publizitatea** Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA**
20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE**
20500 Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA**
20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila
Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza**
Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2
Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e:
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 7.450 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako aldizkaria

**Agurra**

Santamas Komisiñue, herriko hainbat kultura talde eta Arrasateko Udala

# Santamasetako agurra

Krisia gora eta behera darabilgun garaiotan, badatoz 2008ko Santamasak. Krisi zaharroi kaletarron bizitzatara heldu barri dauela emuten dauen arren, baserri munduen aspaldi gutxittu zien lanerako besuek eta flaterreko garbantzuek…

Hotza eta ezkur gutxi aurtengo negu gorrixen, baina gizendu daigun txerrixe danon artien…

Aurtenguen txarrixa gizendu dogu kultur talde eta udalan arteko hitzarmenaz. Hala ta be, txarrixoi benetan sendo eta osasuntsu egon dein egunero emun bihetzau jaten, herrixak jaixetan parte hartuz eta antolatzailiei babesa eskainiz.

Negua beroketako su bajua eta maittasuna!

Salda berua eskuak berotzeko erabiltzen dan moruen, erabili daigun jaixe Mondraueko girua beroketako. Jai honeik aurrera atarateko hainbat kultur talde elkartu garen moruen, berotu daigun kultur talde, herritxar eta udalan arteko harremana, berotu daigun kaletar eta baserritxarren arteko harremana, berotu daigun artisau eta eroslien arteko harremana, berotu daigun… berotu gaitxezen alkar danok! Senti daixiela berotasuna gure artien ez dazenek…

Santamas jai zoriontsuak eta beruak eukittia opa dotzueu danoi!




**AURKIBIDEA**

**Egitaraua** > 04-05
**Udala-Komisiñue** > 06
**Santamasak** > 09
**Baserri erakusketa** > 10
**Elkarrizketa** > 12
**Herri bazkaria** > 13
**Sagar eta kirikoketa-jotze erakustaldia** > 14
**Gozogintza** > 15
**Gabonetako opariak** > 16
**Gabonetako menua** > 17
**Gospel saioa** > 18
**Pilota partiduak** > 21
**Bertso jaialdia** > 22
**Baserritar jantziak** > 24
**Taloak eta txistorra** > 25
**Arrasate Musikal** > 26
**Gabon kantak** > 27
**Umeendako ekintzak** > 28
**Trikitilariak** > 31
**Eskaparate lehiaketa** > 32
**Kultura Aniztasun jaialdia** > 34
**Benito Lertxundi** > 35
**'Malbe' Alejandro Iturbe**
**Arana: liburua** > 36
**Gabonak: Olentzero, Erregeak...** > 38-39





TROKO
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



EGITARAUA

# ABENDUKO EGITARAUA

## Zapatua, 20

**20:00** BENITO LERTXUNDIREN kontzertua. *Itsas ulu zoila* diskoa aurkeztuko du Amaia Antzokian.
**22:30** KONTZERTUA gaztetxean: Sarkor eta Ezinean taldeek joko dute.

## Domeka, 21

**10:00** ETXAFUEGOAK.
**12:30** Herriko plazan, SAGAR eta KIRIKOKETA jotze erakustaldia eta sagar-zuku edatea. Baztango Jo Ala Jo taldeak egingo du.
**17:30** ETXAFUEGOAK.
**18:00** Seber Altube plazatik Herriko plazara, ZILIPURDI eta ZARAMAZANBA taldeen *Amalurraren hotsak* delako kalejira. Eguraldi txarra eginez gero, Biteri plazan izango da.
**19:00** Herriko plazan, "KRIXIS" TXERRIA.
**19:00** Arrasateko Erraldoi eta kilikien KONPARTSA eta KONPARTSA TXIKIA, Herriko plazatik abiatuta.
**19:30** DRAGOIALDE txarangaren kalejira.
**22:30** Amaia Antzokian, BERTSO SAIOA, honako bertsolariekin: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Miren Amuriza eta Sustrai Colina. AEDk antolatzen du.
**23:00** Herriko plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.
**00:00** SUZKO ZEZENA, Herriko Plazan.

## Astelehena, 22

**09:00** ETXAFUEGOAK.
**09:30** UDALAXPE txistulariekin eta Arrasateko GAITARIEKIN diana.
**10:00** GANADU FERIA Laubide plazan.
**10:00** HEGAZTI ERAKUSKETA Biteri etorbidean.
**10:00** FRUTA ETA BARAZKI ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA Seber Altube plazan.
**10:30** Aramaioko Sagardogileen eskutik, SAGARDO-DASTATZEA ETA TALOAK Herriko plazan.
**10:30** ARTISAU FERIA, Jokin Zaitegi plazan.
**11:30** Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeen KALEJIRA. Arrasateko TRIKITILARIAK, Udalaxpe TXISTULARI TALDEA, Arrasateko GAITARIAK eta KOPLARIAK ere ibiliko dira.
**11:30** ITURENGO JOALDUNAK ibiliko dira herriko kaleetan barrena.
**11:30** Incansables TXARANGA herriko kaleetan.
**12:15** DANTZA EKITALDIA Lore Gazteak taldearekin, Herriko plazan.
**12:30** AIZKOLARIAK: Urrezko Aizkolarien binakako txapelketa Zaldibarren.
**12:45** ARRASATEKO TRIKITILARIEN ETA KOPLARIEN ekitaldia, Herriko plazan.
**13:00** Zaldibarren, HARRI-JASOTZAILEAK: Perurena aita-semeak eta Mari Jose Sardon.
**13:15** DANTZA EMANALDIA Herriko plazan, Arrostaitz taldearen eskutik.
**13:45** TXERRI DANTZA egingo dute Herriko plazan. Bukaeran, KALEJIRA herrikoia Musakolaraino.
**14:30** HERRI BAZKARIA Musakolako kiroldegian.
**18:00** Uarkape pilotalekuan, PILOTA PARTIDUAK: Larralde-Urberoaga / Ongai-Arruti, eta Titin II.a-Laskurain / Xala-Pascual.
**19:30** Herriko plazan, TXERRI DANTZA eta LARRAIN DANTZA.
**20:00** Herriko plazan, TXERRIAREN ZOZKETA.
**20:00** LUHARTZEKIN dantzaldia Herriko plazan.



ITURENGO JOALDUNAK

## Martitzena, 23

**20:00** GOSPEL kontzertua Tye Tribbett & GA taldearekin, Amaia antzokian.

## Eguaztena, 24

**11:40** TXORONPIOK ETA TXORONPIAK Olentzerorendako gutunak batuko dituzte.
**13:15** TXORONPIO ETA TXORONPIA Seber Altuben.
**18:00** OLENTZEROren irteera Zaldibarretik.
**19:30** OLENTZERORI AGURRA, Herriko plazan. MUTIL DANTZA ETA HERRI DANTZA ere egingo dituzte.

## Eguaztena, 31

**13:00** ARRASATE MUSIKALEKO BANDAREN kontzertua Amaia antzokian.


BEREYA elektrizitatea
K21 KALITATEA Empresa Registrada Nº 3/02/003 Nivel 3
• ALARMAK. TB. SATELITEAK
• ANTENA KOLEKTIBOAK
• PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
• TB ZERBITZU TEKNIKOA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
• SOINU INSTALAZIOAK
• KONPONKETAK OROKORREAN
• ATEZAIN AUTOMATIKOAK
Ondo pasau Santamasak!




Etxagibel Notarioa 1 - 2. Pab - ARRASATE Tel.: 943 79 13 79 / 670 08 34 10 Faxa.: 943 77 15 34




**• Fruta eta barazki azoka eta lehiaketa Seber Altube plazan**
Debagoieneko baserritarrek 21 postu ipiniko dituzte. Barazkiak, fruta eta ogia erakutsiko dituzte, batik bat, Seber Altube plazako azokan.

**• Ganadu feria Laubide plazan egingo dute**
Santamasetako ganadu azoka Laubide plazara lekualdatu dute. Idiak izango dira ikusgai, aspaldiko partez, baina baita lau arrazako behiak, zezenak, astoak, poniak…

**• Herri bazkaria Musakolan izango da aurten**
Lekuz aldatu dute Santamasetako herri bazkaria: Musakolako kiroldegian izango da. Txartelak salgai daude Monte, Kajoi, Basati eta Bengoa tabernetan.

**• Pilota partidu ikusgarriak Uarkapen**
Larraldek eta Urberoagak Ongai eta Arrutiren aurka jokatuko dute lehenengo, eta Titin II.ak eta Laskurainek, Xala eta Pascualen aurka, segidan.

**• Herri kirol erakustaldia Zaldibarren**
Urrezko Aizkolarien Binakako txapelketa jokatuko da: Larretxea eta Atutxa, Mindegia aita-semeak eta Arriaga V.a eta Rekondo.

**• 'Krixis' txerria aurkeztuko dute domekan**
*Krixis* txerria Arabako Larreatik dator, eta bera da aurtengo Santamasetako ikurra. 250 kiloko txerri-eme hori hilaren 21ean aurkeztuko dute, Herriko plazan.

**• Euskal dantza eta musika emanaldiak egun osoan**
Lore Gazteak eta Arrostaitz taldeen dantzaldiak izango dira, eta Arrasateko gaitarien, trikitilarien, koplarien eta Udalaxpe txistulari taldearen saioak.

**• Santamas bezperan, sagar eta kirikoketa-jotzea**
Sagar eta kirikoketa-jotze erakustaldia egingo du Baztango Jo Ala Jo taldeak. Sagarzukua edateko aukera ere izango da. Dena domekan, hilak 21, izango da.

NATUR HOUSE
Dietetika eta Elikadura
Gabon zoriontsuak!!!
KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.
EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatua
Maalako Errabala 6, ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



PATRICIA
CLARKS
MASCARÓ
24 HRS
HISPANITAS
LODI
URSULA
PAN
CATS
KOLLFLEX
WONDERS
GEORGES
PETUSCO
LUPO
STONFLY
BRUNO PREMI
BARRAS
OINETAKOAK
Yoar
Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86



KOMISIÑUE

# Hitzarmen bitartez bermatuko da Santamasen jai-eredua

JON BEREZIBAR

**Santamasetarako hitzarmena egin du Komisiñuek antolakuntza finkatu eta jai eredua bermatuko dituena. Lau urterako sinatu dute akordioa eta horrela, zenbait urtetan gertatu izan den moduan, "jaien antolakuntza dantzan" egotea ekidingo litzateke.**

Udalbatzaren babes zabalarekin, Santamas Komisiñuek elkarlanerako funtzio eta betebeharrak zehaztuko dituen hitzarmena egitea lortu du. Joan den asteko osokoan onartu zuten lau urterako akordioa.

Hitzarmenaren garrantzia azaltzen du Eneko Barberena Santamas Komisiñoko kideak: "Helburua da denon artean adostea zelako eredua gura dugun bai Santamasetarako zein Olentzerorako. Azken finean paperean gura genuen ipintzea bai, batetik, parte hartzen duten agente ezberdinek ze lan bete behar duten eta bakoitzaren funtzioa: lanerako pausoak, ardurak eta balorazioak egiteko modua zehazten dira, zalantza edo puntu ilunik egon ez dadin". Itundutakoarekin "pozik" dago batzordea; batetik, "frogatzen delako herri honetan posible dela akordioetara iristea" eta euren kasuan "adostasun maila polita" lortu delako. Bestetik, jai herrikoien eredua eztabaidatu eta zehaztu izana garrantzitsutzat jo dute. Horrenbestez, jasota geratuko lirateke orain arte zehaztuta ez zeuden antolakuntzarako funtzioak; Komisiñuarenak bai, baina baita kultura taldeenak zein Udalarenak, agurretik hasi eta azoka bera barne.

Hain zuzen, Santamasetako jaia 1976an berreskuratu zen eta, azoka bera biziberritzeaz gain, lan handia egin du Komisiñuek antolaketan, Udalaren eta herriko kultura taldeen laguntzarekin. Hiru hamarkadetan aurrera egin dute Santamasek, baina Barberenak berak azaltzen duen moduan, "urteetan funtzionatu duen antolakuntzan kontu eta talde asko daude sartuta eta hitzarmenaren bidez gauzak lotzeko beharra" ikusi da aspalditik. "Jaia kili-kolo egon da hainbat urtetan udalen eta zinegotzien aldaketak eraginda. Jaiaren pertzepzio ezberdinak daude eta hori ere lotzea zen gure helburua" dio Komisiñoko kideak. Jaia *dantzan* egon ez dadin alde guztiekin hitzarmena egin nahi izan da, elkarlanerako printzipio modura.


Santamasak antolatzeko lau urterako hitzarmena egin dute Komisiñuek eta Udalak. JOSETXO ARANTZABAL

**"Helburua da denon artean adostea zelako eredua gura dugun, bai Santamasetarako zein Olentzerotarako"**

**"Hitzarmenarekin frogatuta geratzen da herri honetan posible dela akordioak lortzea"**

#### UDALAREN ADOSTASUNA

Udalak berak ere bat egin du asmo horrekin. Izadi Mondragon zinegotziak Udalarena bai, baina baita herritarren partaidetza eta Komisiñoaren antolakuntza bateragarri eta onuragarri ikusten dituela azaldu zuen.

Jose Antonio
ile apaindegia
GABON ZORIONTSUAK!

Otalora 22 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

Jose Ramon Otamendi
harategia
GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!
Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28


Eraman dotoretasuna
zure etxera
gelatzu
Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51


ALDEDI
ALDEDI
Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

OMU KERAMIKAK

• zeramika • bainuak
• eraikuntzarako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK
Meatzerreka 6 •Arrasate
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
943 79 07 20

ONDO PASA SANTAMASETAN!



Calcinor QUÍMICA NATURAL

Grupo Amantegi

Kanpazar Kobate harrobiak

*Ondo pasau Santamas jaixetan*

**ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK**

**KANPANZAR HARROBIA S.A.**
Meatz-Erreka 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

**KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.**
Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51

EGITARAUA

# 'Krixis'-a bezain potoloa egitaraua, herria berotzeko

**Bazkari herrikoi handiarekin eta hitzorduz jositako egitaraua aurkeztu dute aurten Komisiñuek, Udalak eta taldeek**

JON BEREZIBAR

**Hilabetetako prestakuntza lanak borobilduta, ezagutzera eman zuen Komisiñuek abenduaren 9an aurtengo egitaraua. Kultura taldeei, Udalari eta herritarrei eskerrak eman gura izan dizkiete laguntzarengatik.**



Garazi Mendizabal (kultura taldeak), Iraitz Agirre (Komisiñue) eta Izadi Mondragon zinegotzia. JON BEREZIBAR

Hedabideen aurrean eta Komisiñoko kide zein laguntzaileen babesarekin aurkeztu zuten aurtengo egitaraua taldeak berak eta Udalak. Ezin bestela, krisiari aipamen eginez, "salda beroak neguko hotza moduan", "jai herrikoiek herria berotzeko" deia eginez; "denok elkar berotzeko" eskaera egin zuten Komisiñotik Iraitz Agirrek, kultura taldeetatik Garazi Mendizabalek eta Udaleko ordezkari moduan Izadi Mondragon zinegotziak. Santamasetako giroa berotzeko nahikoa erregairekin aurkeztu ziren antolatzaileak. Hasi ere, goiz hasi dira aurten ekintzekin, aurreko zapatuko boulder txapelketa izan zen-eta aurtengo Santamasetako lehen hitzordua. Domekan, berriz, dantzari gazteen txanda izan zen XII. Binakako Suelto txapelketarekin. Era berean, astelehenetik zabalik dago Kulturaten herriko baserrien antzinako tresnen erakusketa, Arrasateko baserrien iragana eta oraina erakutsi gura duena. Santamasekin batera etorriko dena, baina, Benito Lertxundi izango da: bihar 20:00etan, Amaia antzokian abestuko du.

**BEZPERA ETA 'KRIXIS'**

Aurten txerria, *Krixis* izena ipini diotena, domekan aurkeztuko dute, Santamas bezperan. Arabako Larrean gizendu, 250 kilo hartu eta zozketatu egingo dute. Bertsolariekin, eta ez edonolakoekin gainera, izango da eguneko bigarren hitzordu esanguratsuena: 22:30ean Amaia antzokian.

**TXOTX BEREZIA**

Hori da aurten egin gura dutena prentsa aurreko aurkezpenean nabarmendu gura izan zuten moduan. Horretarako Aramaioko sagardogileak gonbidatu dituzte. Azoka bera 10:00etan zabalduko dute. Ostean, herri bazkaria etorriko da eta aurten gainera Musakolaraino egingo dute dantzariek kalejira, giroa ia herri guztira zabalduaz. Noski, dantza taldeek ere herritarrei batzeko deialdia egin diete, "Txerri dantza herrikoia" egiteko, hain justu ere. Dantza taldeek ere, hainbat saio egingo dituzte egun guztian zehar baina potoloena, txerri-dantza, 13:45ean egingo dute plazan. Ezin ahaztu ere, asteleheneko pilota partiduak, aurten Santamas egunean bertan izango direnak. 18:00etan izango dira Uarkapen. Saio nagusian Titin II.a-Laskurain bikoteak Xala-Pascualen kontra jardungo du.

**'Krixis' txerria Larreatik dator eta 250 kilo dauzka; Santamas bezperan aurkeztuko dute**

## Makina bat hitzordu, "danok alkar beroketako"

- Baserri-tresnen erakusketa / urtarrilaren 9ra arte
- Benito Lertxundi / bihar 20:00etan Amaian
- Sagar eta kirikoketa jotzea / domekan 12:30ean
- 'Amalurraren ahotsa' kalejira / Seberren 18:00etan
- 'Krixis'-en aurkezpena / domekan 19:00etan plazan
- Bertso jaialdia / domekan 22:30ean, Amaian
- Eganekin dantzaldia / domekan 23:00etan plazan
- Etxafuegoak eta diana / astelehenean 09:00 - 09:30
- Azokaren hasiera / astelehenean 10:00etan
- Txotxa/ astelehenean 10:30ean Herriko Plazan
- Kalejira / 11:30ean
- Txerri-dantza / 13:45ean Herriko Plazan
- Herri Bazkaria / Musakolako kiroldegian 14:30ean
- Pelota jaialdia / Uarkapen astelehenean 18:00etan

eya
etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku
Gabon zoriontsuak!
Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxa: 943 77 20 51
ARRASATE


Izozkitegia
Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia
Santamas jai zoriontsuak!
Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

ERAKUSKETA

# Arrasateko 50 baserrik utzitako tresnak erakusgai Kulturaten

## Gaur, martitzena, zabalduko dute Santamas Komisiñuek antolatutako Arrasateko baserrien tresnen erakusketa, Kulturaten

XABIER URTZELAI

**Santamas Komisiñokoak 2001ean hasi ziren Arrasateko hainbat baserritako lan tresnak katalogatzen, eta material hori batuta, orain, erakusketa egitea erabaki dute.**



Irudian, Arrasateko Bedoña auzoko Bidasoro baserria. JOKIN BEREZIARTUA

Arrasaten 150 baserri inguru daude, eta horietako 50 baserritan batutako lan tresnak –500 tresna inguru– erakusgai egongo dira Kulturateko klaustroetan, gaur hasi eta urtarrilaren 9ra arte (17:30-20:30).

Hala, Komisiñoko ordezkari Iraitz Agirrek azaldu ditu erakusketa hori egitearen nondik norakoak: "Neurri batean, erakusketa horren helburua da euskaldunen ohiturak eta baserritarren bizimodua kalera ekartzea. Eta erakusketa horrekin Komisiñoko hainbat lagunek orain dela zortzi urte inguru hasi zuten lanari etekina atera gura izan diogu".

**LAN HANDIA DAGO ATZEAN**

2001. urte inguruan hasi ziren Komisiñoko hainbat kide baserririk baserri bertako tresnak katalogatzen: "Abeltzaintzako, arrantzako, nekazaritzako eta sukaldeko tresnak dira, guztira 500 inguru". Bi urteko lanaren ostean bi erakusketa antolatu zituzten, eta 2003an Arrasateko Udalaren esku utzi zuten eurek egindako lana: "Udalari eskatu zitzaion lan horri jarraipena emateko, gehiago sakontzeko. Baina urte hauetan kontu horren inguruan gauza gutxi egin da, eta Komisiñuak erabaki zuen erakusketa hau antolatzea, atzean lan handia dagoelako, eta lan horri etekin handiagoa atera gura geniolako".

**URTARRILAREN 9RA ARTE**

Arrasateko baserrien antzinako tresnen erakusketa urtarrilaren 9ra arte egongo da zabalik –abenduaren 25ean, urtarrilaren 1ean eta 6an itxita egongo da–, eta gainera, LMHko seigarren mailako ikasleendako bisita gidatuak antolatuko dituzte: "Gero, material guztia berriro ere batu eta baserritarrei itzuliko diegu. Hori bai, Udalari eskatu diogu lan hori aprobetxa dezala, esaterako badago-eta liburu bat egiteko materiala".

**Erakusketa horren helburua da baserria eta baserritarren bizimodua kalera ekartzea**

**Arrasateko 50 baserritan batutako 500 tresna inguru egongo dira ikusgai Kulturaten**

**ZER DAGOEN IKUSGAI**

Kulturaten egongo den erakusketan, besteak beste, ogia eta taloa egiteko tresnak, haria kardatzeko tresnak, sagardo edo ardoa gordetzeko upelak, ura eramateko marmitak... Eta, tresna txikiagoak ere bai: artaziak, zerrak, zepilloak, aulkiak, kandelak, lapikoak, abarkak... Horiek dira gaurtik hasita ikusgai egongo diren tresnetako batzuk.

Hilarion
Hilarion jatetxea-taberna
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Sandwichak
Talde gazteendako prezio bereziak
Larrea Plaza 5 behea - ARRASATE Tel.: 943 77 01 69

SARRAILAGINTZA-LANAK, 24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
RAOS OINETAKO KONPONKETAK. Giltzen kopiak egiten ditugu.
RAOS
Bañez doktorea 6, behea
Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57

AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0238/2/97

CESPA
ferrovial

GESTION AMBIENTAL ISO 14001 SGS

- Estolderien eta putzu septikoen garbitzea
- Fatxaden, pintaden, eta abarren garbitzea
- Kale garbiketa, zabor bilketa, Lorezaintza

Ondo pasa jaixetan!

**Santalaitz 6 behea 2 - BERGARA  Tel: 943 76 17 56 - Faxa: 943 76 05 88**
**mondragon_cespa@cespa.es**

*Gabon zoriontsuak!*

FIAT
ALFA ROMEO
SUZUKI

KANPAZAR

Bizkaia etorbidea, z/g. • Tel.: 943 79 41 98
ARRASATE

**ELKARRIZKETA** KONTXITA BEREZIBAR BASERRITARRA

# "Baserriak bizi duen egoera oso latza da"

JOKIN BEREZIARTUA

**Kontxita Berezibarren (Arrasate, 1937) ustez, baserri bizimoduaren egoera "benetan eskasa" da. Baina bada argirik iluntasunean: Santamasetako azoka, esaterako.**

**Nolakoa izan da aurtengo uzta?**

Oso txarra izan da aurtengo uzta, zentzu guztietan. Salmentak ere jaitsi egin dira.

**Aurreko urteekin konparatuz askoz txarragoa izan da aurtengoa?**

Baietz esango nuke. Aurten errekor guztiak hautsiko direlakoan nago...

**Beraz, lehen sektoreak aspaldi bizi zuen krisiari, azkenaldian bolobolo dugun krisia gehitu zaio...**

Aurten salmentek nabarmen egin dute behera, eta krisia igarri dela esango nuke. Leku guztietan ez da berdin saltzen, baina Arrasate aldean nabaritu dela esango nuke. Ea Santamasetako azokak egoera pixka bat, behintzat, arintzen duen...

**Beraz, Santamasetako azoka oso egun garrantzitsua da zuentzat. Aurten ere asko salduko duzuela uste duzu?**

Ez dakit, baina orain arte, behintzat, jendeak oso ondo erantzun du. Salmentei dagokienez, bai Arrasate zein Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergara inguruko jendea oso jatorra izaten da.

**"Salmentek nabarmen egin dute behera aurten, egoera txarra da"**

**"Omenaldia detaile handia izan zen; gutaz gogoratzea bakarrik"**

**Zer ekarriko duzu zuk azokara?**

Barazkiak, ogia, gazta, fruta, txerrikiak... denetariko jakiak. Bestalde, animaliak ere ekarriko ditugu ikusgai jartzeko; hegaztiak, bereziki.

**Nola dago egun baserri bizimodua?**

Egoera oso latza da. Orain arteko guztiak pasatuta ere, etorkizun latza iragartzen da. Ez daukagu laguntzarik eta exijentzia handia egiten du egun baserritik bizi izateak.

**Zergatik uste duzu iritsi garela egoera honetara?**

Gero eta gutxiago saltzen denez, ez du dirurik ematen eta jendeak beste bizimodu batzuk aukeratu ditu. Gehienek enpresa munduan egiten dute lan, eta ez dute astirik izaten baserrian ibiltzeko. Gero eta gazte gutxiago dago baserrian.


Kontxita Berezibarrek denetariko jakiak jaitsiko ditu Santamasetako azokara. JOKIN BEREZIARTUA

**60 urtez, 10 urte zenituenetik, diharduzu baserrian. Azaroaren 8an, beste hiru baserritar emakumerekin batera omenaldia egin zizuten, baserrian egindako lan guztiagatik. Nola gogoratzen duzu egun hura?**

Baserrian bizitza osoa pasa dugun emakumeoz gogoratzea detaile handia izan zen, gogoratzea bakarrik. Eta horrek asko poztu ninduen. Eguna borobila irten zitzaigun: eguraldi ona goiz osoan eta salmenta asko.

Aldape Taberna Jatetxea
(Batzokia)
ONDO PASAU SANTAMASAK!
Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.
Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69



HERRI BAZKARIA

# Musakolan da herri bazkaria, Uarkape txiki geratu da-eta

**Herriko plazako ekitaldiak amaitzen direnean kalejiran abiatuko dira arrasatearrak kiroldegira**

MIRIAN BITERI

**Aurten herri bazkaria Uarkapetik Musakolako kiroldegira pasa dute, herritar gehiagok joateko aukera izan dezaten. Kalejiran joango dira hara.**



Orain arte Uarkapeko frontoian egin izan da Santamas eguneko herri bazkaria. GOIENKARIA

Aldaketekin dator aurtengo herri bazkaria. Joan den urtean jende asko txartel barik geratu zen, eta, beraz, Uarkapeko frontoian egin zen bazkarira joateko aukerarik ez zuen izan. Egoera horri buelta eman gura izan diote aurten Santamas Komisiñokoek, eta bazkaria tokiz aldatzea erabaki dute: Musakolako kiroldegian izango da, leku handiagoa dago-eta han.

### TXARTELAK SALGAI

Txartelak dagoeneko salgai daude 15 eurotan ondorengo tokietan: Monte, Basati, Bengoa eta Kajoi tabernetan. Antolatzaileek ahalik eta azkarren erosteko dei egin dute.

Uarkapen 650 bat lagunendako tokia dago. Santamas Komisiñuen esanetan, "azken urteotan herri bazkariak oso erantzun ona izan du arrasatearren artean eta frontoi hori txiki geratu da; joan den urtean, gainera, kaosa izan zen sarrerak eskuratzerakoan".

**Txartelak salgai daude herriko Monte, Basati, Bengoa eta Kajoi tabernetan. Bakoitzak 15 euro balio du**

Erronka berria lortzea ez da samurra izango, Musakolan 1.000 lagun inguru sartzen dira-eta. Ziur daude, baina, aurreikuspenak beteko direla, eta, horren harira, herriko jende guztia gonbidatu gura izan dute bazkarira.

### KALEJIRA

Bestalde, erdiguneko eta Musakolako kiroldegiko ibilaldian ere pentsatu dute antolatzaileek. Herriko Plazan egingo den txerridantza herrikoia amaitu bezain laster, kiroldegirantz abiatuko dira herritarrak kalejiran.

Bazkariari 14:30ean emango diote hasiera. Egun horretako menua zein izango den sekretuan mantendu nahi izan du Santamas Komisiñuek.

### TAILERRAK

Bazkaldu eta gero, jai giroa ez da desagertuko Musakola kiroldegian. Lo-kuluxka egiteko astirik ez da izango. Musika ez da bazkalostearen protagonista bakarra izango; umeendako tailerrek ere tartea izango dute. Txatxilipurdi arduratuko da horiek antolatzeaz.



SAGARDOA

# Kirikoketa erakustaldia eta txotx egingo dituzte

## Baztango Jo Ala Jo taldeak egingo du kirikoketa erakustaldia

MIREIA BIKUÑA

**Sagardoa egiteko sagarra nola zanpatzen zuten erakutsiko dute Baztango Jo Ala Jo taldekoek. Ondoren, egindako sagar zukua dastatzeko aukera izango dute.**

Bost mende atzerago egingo dute abenduaren 21ean Herriko Plazan, 12:30ean. Hain zuzen ere, kirikoketa jotze erakustaldia antolatu dute Komisiñokuek. Baztango Jo Ala Jo taldeko kideek erakutsiko dute XVI. mendean sagardoa nola egiten zuten.

Egurrezko kaxa handi bat jarriko dute Herriko plazan, eta han sartuko dituzte sagarrak. Irrintzi eta adar doinuen laguntzarekin sagarra zapalduko dute. Horri deitzen diote kirikoketa jotzea. "Kirikoketa onomatopeia bat da; hain zuzen ere, hiru kirikoketarik euren zurezko mailuekin sagarrak kolpatzean, dantzan ateratzen duten soinuari deitzen zaio. Oso garrantzitsua da kirikoketari guztiek erritmo bera eroatea, txalapartarien modura", diote adituek. Hasieran erritmo lasaiak eroango dituzte sagarrak zapaltzeko; baina bukaeran erritmoa bizitu egingo dute sagar zukua atera arte.

**Baztango Jo Ala Jo taldeak egingo du erakustaldia Herriko Plazan**

**Aramaioko sagardoa dastatzeko aukera izango dute txotxean**

Kirikoketa doinuak entzun eta poliki-poliki zanpatutako sagarretatik ateratzen den zukua erakustaldira hurbiltzen direnen artean banatuko dute.

### TRADIZIOA BERRESKURATUZ

Baztango Jo Ala Jo taldeko kideek egingo dute erakustaldia. Sagar zukua egiteko antzinako tradizioa berreskuratzeko asmoz hasi ziren kirikoketa erakustaldiak egiten Euskal Herriko hainbat herritan. Tradizioaren aldeko apustua egin dute.




Herritarrak gustura ibilzen dira txotx egunean; argakian, iazko irudia. ARTXIBOA

### TXOTXA

Iaz egindako modura, aurten ere txotx egingo dute Herriko plazan, abenduaren 22an, 10:30ean hasita. Aldaketak daude txotx egunean: kupelaren ordez, botilatan ekarriko dute sagardoa; eta Saizar sagardotegikoa izan ordez, Aramaioko sagardogileena izango da."Inguruko sagardoaren alde egitea erabaki dugu, eta Aramaioko sagardo ekoizleen sagardoa edateko aukera izango dugu Santamas egunean".

Bestalde, sagardoa edateko ez dute iazko sistema bera erabiliko (edalontzia erosi eta nahi beste edan). Txotxean ibiltzen direnek nahi beste edan ahal izango dute, baina edaten duten bakoitzeko ordaindu beharko dute.



**ELKARRIZKETA** MARIA ANGELES MURURUAMENDIARAZ GOZOGILEA

# "Pastelak egiteko modua berbera da gaur eta orain dela 70 urte"

JOKIN BEREZIARTUA

**Maria Angeles Muruamendiarazek bizitza osoa darama Muruamendiaraz gozo dendan lanean. Aurten 69 urte bete ditu dendak, baina Arrasaten aspaldi bihurtu zen 'institu-zio'. Bertakoak omen dira bonba eta hosto-pila onenak.**

**Zenbat urte daroazu gozogile moduan?**

Bizitza osoa, txiki-txikia nintzenetik ibili naiz gozo dendan lanean. Gogoratzen dut lehengo denda txikian barra oso altua zela eta zerbitzatu ahal izateko taula bat jarri zigutela.

**Asko aldatu da orduko gozogintza egungoaz konparatuz?**

Ezer ez. Pastelak egiteko moduak berberak dira gaur eta orain dela 70 urte, eta hori horrela izaten jarraitzea gustatuko litzaiguke. Aldatu dena salmentak dira. Lehen pastelak jatea ez zen ohikoa, pastelak ez ziren egunero egiten. Normalean, enkarguen arabera eta aste bukaeretan egiten ziren pastelak.

**Zer da Gabonetan gehien saltzen duzuena?**

Tarta eta etxean eginiko turroiak saltzen dira gehien Gabonetan.

Bestalde, urte osoan zehar moduan, pastelek ere arrakasta handia izaten dute. Supermerkatuetan oso goiz hasten dira bestelako turroiak saltzen eta Gabonetarako jendeak nahiago izaten du pastelak jatea. Lehen Gabonetan ez zen pastelik jaten; egun, ordea, asko.

**Zein esango zenuke-te dela Muruamendiarazeko espezialitatea?**

Hostopilak izan dira jendeak gehien eskatu izan duena. Hala ere, azkenaldian bonbek ere arrakasta handia daukate.

**Eta zein da zuen pastelen sekretua?**

Gure kreman dago guztiaren sekretua. Besteak baino naturalagoa da, finagoa. Jendeak krema ezberdina dela igarri egiten du, eta oporretan joaten direnean Muruamendiarazkoak moduko pastelak aurkitzen ez dituztela esaten digute.

**Zergatik da hain ezaguna Muruamendiaraz?**

Bezeroekin izan dugun tratua izan dela esango nuke. Oso pozik gaude eurekin amaituko dugulako, familia bat bezala izan gara.

**Amaitu?**

Bai, urtarril erdialdean jabez aldatuko du Muruamendiarazek. Gogorra eta arraroa izango da, baina heldu zaigu erretiratzeko ordua, eta negozioak ez du familiako jarraipenik izango.



Bizitza osoa Muruamendiaraz gozo dendako barraren beste aldean egin du lan Maria Angeles Muruamendiarazek. JOKIN BEREZIARTUA

**"Kreman dago gure sekretua; jendea kanpora joaten denean gureak moduko pastelak ez dituztela aurkitzen esaten digute"**





**CITROËN BERLINGO BERRIA BENETAN NAGUSI DIRENENDAKO**

Citroën Berlingo berria ez da edozein ibilgailu.
Erabat birsortua, monobolumen baten erosotasuna eta 4 x 4 baten indar guztia ditu bateratuta.Etor zaitez Citroën auto kontsezionariora eta deskubri ezazu Citroen Berlingo berria, nagusia.

**ETA GAINERA MERKATUAN 1.AK DIREN IBILGAILU KOMERTZIALAK AURKEZTEN DIZKIZUGU.**
Aurkitu ezazu nagusimetroa www.citroen.es-en




**Talleres Chapime, S.C.L**
Debagoieneko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tailerreko ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatuetan, enpresa eta langile autonomoei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

CITROËN
NO TE IMAGINAS LO QUE CITROËN PUEDE HACER POR TI

HERRI KIROLAK

# Maria Jose Sardonek harria jasoko du

## Perurena aita-semeek ere jardungo dute Zaldibarren

MIRIAN BITERI

**Herri kirolak ez dira faltako Santamas egunean. Betiko moduan, Zaldibarren ikusi ahal izango dira eguerdian aizkolarien eta harri-jasotzaileen erakustaldiak.**

Aurtengo egitarauan berrikuntza asko sartu ditu Santamas Komisiñuek. Nobedade horiek egitarauan klasiko bilakatu den ekintza baten eragina dute: herri kiroletan, hain zuzen. Eguerdi partean, Zaldibarrera gerturatzen direnek Maria Jose Sardon harri-jasotzailearen erakustaldia ikusi ahal izango dute.

Gero eta ohikoagoa bada ere, oraindik emakume harri-jasotzaile gutxi ikusten dira. Maria Jose Sardon (Urnieta, 1973) horietako bat da, Miren Urkiola bizkaitarrarekin batera. Herri kiroletako munduan denbora luzerik ez badarama ere, Sardonek dagoeneko 131 kiloko harria jaso du aurten. Zaldibarren ez du hutsik egingo eta erakustaldi bikaina egiten saiatuko da.

**PERURENATARRAK**

Edozelan ere, gipuzkoarra ez da bakarrik egongo: ondoan, Santamasetako klasiko bilakatu den bikotea izango du: Iñaki eta Inaxio Perurena aita-semeek osatzen dutena, hain zuzen ere.

> **Herri kirolak 12:30ean hasiko dira Zaldibarko frontoian**

> **Urrezko Aizkolarien binakako txapelketa izango da**

**URREZKO AIZKORA**

Harri-jasotzaileen erakustaldia iritsi aurretik, baina, aizkolariek, aizkorek eta enborrek hartuko dute frontoia. Urrezko Aizkolarien binakako txapelketa jokatuko da, 12:30ean.

Txapelketa kanporaketen fasean dago. Hortaz, Larretxea-Atutxa bikotea norekin lehiatuko den zehazteke dago oraindik: Mindegi aita-semeen eta Arriaga V.a-Rekondo bikotearen arteko norgehiagokatik garaile irteten den bikotea izango dute aurrez aurre Larretxeak eta Atutxak. Bikote bakoitzak 26 enbor moztu beharko ditu, bost saiotan.

Esan bezala, Urrezko Aizkolarien binakako txapelketa 12:30ean hasiko da; eta harri-jasotzaileen erakustaldia, berriz, 13:00ean.



Iñaki eta Inaxio Perurena Zaldibarren izango dira urtero bezala. GOIENKARIA



Aizkolarien bikote bakoitzak 26 enbor moztu beharko ditu. GOIENKARIA



GABONETAKO MENUA

# Gabonetan pertsonako 138 euro gehiago gastatzen da janaritan

## Eskaerak gora egiten duen neurrian, garai horretako produktuen prezioek ere gora egiten dute

JASONE ZABALA

**Gabonetan, jendeak azken momentuan erosten du janaria; beste batzuk, aldiz, buruhausteak ahaztu eta jatetxeetara joaten dira.**

Gabon jaiak gainean ditugu eta ohikoa da hainbat erosketa egitea: opariak, janaria... Estatistikek diotenaren arabera, abenduan pertsona bakoitzak janaritan egiten duen gastua %30 igotzen da; hala, pertsona bakoitzak garai horretan 138 euro gehiago gastatzen ditu, janaria bakarrik erosten.

**BI ASTE LEHENAGO EROSKETAK**

Hamarretik lau pertsonak Gabon jaiak baino bi aste lehenago erosten dute janaria. Eskaerak, beraz, gora egiten duen neurrian, garai horretako produktuen prezioek ere gora egiten dute. Hamarretik bi dira Gabonak hasi baino astebete lehenago egiten dituztenak erosketak. Bestalde, %50 dira aurrez produktuak erosi eta jaiak iritsi arte izozkailuan gordetzen dituztenak; eta garai honetan gauden krisiarekin, are eta gehiago. Azkenik, badaude erosketak alde batera utzi eta Eguberri egunerako edo Gabon-zaharrerako jatetxeetara joaten direnak ere. Azken egun horretarako, Errastiko jatetxeak menu berezia prestatu du.



Gabonetan hamarretik lau pertsonak Gabon jaiak baino bi aste lehenago erosten dute janaria. GOIENKARIA

**Populazioaren erdiak aurrez produktuak erosi eta jaiak iritsi arte izozkailuan gordetzen dituztenak**

### Gabon zahar eguneko menua

**Arrasateko Errastiko jatetxeak egun horretarako prestatu digun menua erraza, merkea eta goxoa da: aza, bakailaoa saltsa berdean eta konpota. Aza garbitu, moztu eta ur askorekin 10 bat minutu egosi. Ondoren, berakatza erretako olioarekin gozatu. Bakailaoa uretan ipini 12 bat ordu. Kazuela batean oliotan berakatza erre, eta horrek kolorea hartzen dutenean ontzi batera atera, olioa epeltzen denean bakailaoa azalaz gora ipini su ertainean 20 bat minutu, eta kazuela mugituaz joan. Amaitzeko, konpota goxoa; edateko, Albariñoa eta Cava Brut Nature.**

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA

*Oparirako artikuluak • Larruzko artikuluak • Bitxiak • Kosmetika*

Kanpatorrea 4, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 12 19









GOSPEL KONTZERTUA



Tye Tribbett musikaria taldeko buru dela, kalitatezko gospela eskaintzen duen taldea da Arrasatera datorrena; 90eko hamarkadan hasi ziren nabarmentzen Ameriketako Estatu Batuetan. TYE TRIBBETT

# Tye Tribbett and the Greater Anointing, gospel musika bikaina

## Gospel estiloko emanaldia abenduaren 23an, egubakoitza, izango da, Amaia antzokian, 20:00etan

JASONE ZABALA

**Kalitate handiko gospel doinuekin gozatzeko aukera izango dugu Gabonetan, Ameriketako Estatu Batuetatik datorren taldearekin.**

Ameriketako Estatu Batuetako koru harrigarrienetako baten indar eta komunikazio ahalmen guztia dakarte. Izan ere, Tye Tribbett taldearen nortasunak eta mota guztietako ikus-entzuleekin konektatzeko eta ikuskizunean nahastarazteko duen dohainak gospeleko izar handienetako bat bihurtu dute taldea.

### GOSPEL TRADIZIOA

New Jersey estatuan gospel tradizio handiko familia batean jaioa den Tye Tribbett abeslari, musikagile, zuzendari eta multi-instrumentistak sortu zuen, XX. mendearen azken urteetan, Tye Tribbett and the Greater Anointing (GA) taldea. Hasieran, Faith Hill barkarlariaren laguntza lanak egin zituzten, hark 2000. urtean egin zuen biran, baina aparra bezalaxe igo ziren berehala. Ordutik hona eman dituzten kontzertu ugariek eta grabazioek esperientzia handia eman diete, eta agertokian ikuskizuna ematen irakatsi diote Tye Tribbett-i.

**Azken urteotan lankide izan dituzten artista prestigiotsuen artean Will Smith, Justin Timberlake eta Sting daude**

### ARTISTA PRESTIGIOTSUAK

Azken urteotan lankide izan dituzten artista prestigiotsuen artean Will Smith, Justin Timberlake eta Sting daude. *Let Go, Let God*, abesbatzaren lehen grabazio ofiziala Dreamworks etxearen *Egiptoko printzea delako* filmaren soinu-bandaren diskoan sartzeko hautatu zuten. Gospel tradizioa hain ongi menderatzen duenez eta pop, jazz, rhythm and blues eta neo-soul estiloekin fusionatzeko gauza denez, Tye Trybbett & GA taldeak leku garrantzitsua hartu du Columbia Records/ Sony Gospel zigiluan. Gainera, taldea bi aldiz izendatu dute Grammy sarietarako: rhythm and blues/gospel musika garaikide onenaren kategorian eta gospeleko emanaldi onenarenean.

Beraz, ez da aitzakiarik egongo datorren abenduaren 23an, 20:00etan, Amaia antzokian eskainiko duten kontzertura ez joateko.

JOSE MARI SALEGI
HARATEGI · URDAITEGIA
Olarte kalea 20
ARRASATE
*Ondo pasatu Santamasak eta urte berri on!*

ZABALA
oinetakoak
60 urtean elkarrekin ibili gara
Erdiko kalea 18
Tel.: 943 79 14 27

King's
Ile apaindegia
Ondo pasa Santamasak!
Zarugalde 23.
ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88



# Leihatek izbar

Leiho isolatzaileak. Kalitatea, zerbitzua, garantia. PVCzko eta aluminiozko landa-kontraleihoetan espezialistak.

Gure bezeroek bermatuta eta gure sistema integralarekin (Royal Windows), energiaren %20 aurreztuko duzu eta 2 gradu gehiago lortuko dituzu.

Leihoak aldatzeko erabakia hartu aurretik, etorri Leihatek-era. Bertan aholkatuko zaitugu leihoen berriztapenaren inguruan.

Etxera joango gara aholkatzera eta konpromisorik gabeko aurrekontua egingo dizugu.

**Etorri gure tailer eta erakusketa ikustera erabakia hartu aurretik.**




## Ondo pasau Santamasetan!

Royal Windows

Okendo kalea 1, behea 20500 Arrasate Tel.: 943 79 69 91 / Faxa: 943 79 69 91 ventanasleihatek@euskalnet.net
Izbar instalazio metalikoak SL - Urarte kalea 20, San Lorentzo industrialdea - Bergara

*DOINUA: HABANERA*

*IKATZ USAINA BADATOR
ETA HOTZETIK APARTE
GAZTAINAN BEROA ETA
ELURRA, ZENBAT NAHASTE!
JANARI PILA BAT MAHAIAN
JAN! EZ DU EGITEN KALTE!
APROBETXATU BEHAR DA
ALDEAN UTZIAZ MATE!
ALDEAN UTZIRIK BERDIN
INGLES, FISIKA TA GAZTE!
APROBETXATU BEHAR DA
GUZTI-GUZTIA JO TA KE!
OPARIEN BARRENEAN
URTE ON BAT BAITAKARTE!
GABON EDER BATZUK PASA
TA HURRENGO URTERARTE!*




*EGILEA: XABI IGOA ERIZ*

*AZALA: MARINA GARMENDIA*

arrasate Herri Eskola

Arrasate INSTITUTUA

# SANTAMASETAN EZ GAZ DANOK!


KEPA URRA


JON AGIRRE


JOSU URIBETXEBARRIA


LUIS MARI AZKARGORTA


PREMIN SANPEDRO


TXUS GOIKOETXEA


JOSU ARKAUZ


UNAI PAROT


ARATZ GOMEZ


JOSE I. GAZTAÑAGA


JESUS MARI ZABARTE


JOSE GABRIEL URIZAR


IGOR LETONA


KRISTINA GOIRIZELAIA


AMAIA ARRIETA


NATALE LANDA





ERREFUXIATUAK

# ETXEAN NAHI DITUGU!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Iturriotz, Irati, Iluntz, Ekaitz, Basati, Jai-Zale, Muxibar, Taupa, Dat.**

PILOTA

# Titin III.a eta Xala, nor baino nor gehiago aurreko koadroetan

MIREIA BIKUÑA

**Abenduaren 22an jokatuko dute Aspeko pilotariek Santamasetako jaialdia Uarkapen. Arrasateko pilotazaleek Titin III.aren eta Xalaren jokoarekin gozatzeko aukera izango dute. Sarrerak 15 eurotan salduko dituzte txarteldegian eta Aspeko telefonoan.**



Titin III.ak Aritz Laskurainekin jokatuko du Santamasetako jaialdiko partidu estelarra. GOIENKARIA

Arrasateko eta inguruko herrietako pilotazaleak animatzeko asmoz, Santamasetako pilota jaialdia egunez aldatzea erabaki du Komisiñuek: "Orain arte gauez antolatu ditugu partiduak. Aurten eguna aurreratzea erabaki dugu, eta arratsaldean jokatu dituzte partiduak. Pilotazale guztiak gonbidatu gura ditugu". Hain zuzen ere, abenduaren 22an jokatuko dute, 18:00etan, Uarkape pilotalekuan. Oraingoan, Aspe enpresako pilotariak ibiliko dira nor baino nor gehiago.

Sarrerak bi modutara eskura daitezke: alde batetik, Aspe enpresako telefonora dei daiteke (943 82 04 06). Informazio gehiago gura dutenek *www.aspe-pelota.com* webgunean begira dezakete. Beste alde batetik, Uarkape pilotalekuko txarteldegian eskura daitezke partiduaren egunean bertan.

**Sarrerak bi modutara eros daitezke: Uarkapeko txarteldegian eta Aspeko 943 82 04 06 telefonora deituz**

**Titin III.ak eta Laskurainek elkarrekin jokatuko dute, eskuz binakako txapelketako finala galdu ondoren**

### ESTELARREAN

Santamasetako jaialdiko partidu estelarrean, lehenengo edo bigarren mailan txapeldun izan diren pilotariek jokatuko dute: Titin III.ak (Tricio, 1969) eta Laskurainek (Soraluze, 1979), Xalaren (Lekuine, 1979) eta Pascualen (Abartzuza, 1976) aurka jokatuko dute.

Titin III.a eta Laskurain bikote izan ziren eskuz binakako txapelketan eta finala galdu zuten Olaizola II.aren eta Mendizabalen aurka. Arrasateko pilotazaleek elkarrekin ikusiko dituzte berriro ere. Aritz Laskurainek erakutsi du eskuz binaka jokatzen badakiela, 2004an bigarren mailako txapelketa irabazi zuen-eta. Haien aurkariak izango dira Xala eta Pascual. Bikote horrek eskuz binaka ondo jokatzen duela erakutsi du askotan. Biek ala biek jokatu dituzte eskuz binakako txapelketak: Xala txapeldun izan zen 2007. urtean eta Iñigo Pascual bigarren tokian sailkatu zen 2003ko txapelketan. Duda barik, partidu polita antolatu dute Komisiñokuek. Estelarraren aurretik, baina, beste norgehiagoka bat jokatuko dute: alde batetik, Iñaki Larraldek (Lesaka, 1985) eta Xabier Urberuagak (Aulesti, 1981) jokatuko dute; eta beste alde batetik, Alberto Ongaik (Satrustegi, 1985) eta Asier Arrutik (Usurbil, 1984).

Partidu horretako pilotariek ere eskarmentua dute binakako partiduetan, eta hainbat txapelketa irabazi dituzte.



BERTSO JAIALDIA

# Lehen mailako bertsolariak, Santamas jai bezperan Amaian

**Lehen mailako bertsolariak kantuan: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Jon Maia eta Miren Amuritza**



**Andoni Egaña**
Zarautz



**Maialen Lujanbio**
Hernani



**Sustrai Colina**
Urruña



**Jon Maia**
Zumaia



**Miren Amuritza**
Berriz



**Egoitz Aizpuru (gai-jartzailea)**
Oñati

MAIDER ARREGI

**Abenduaren 21ean, Santamas bezperan egingo da bertso jaialdia. Aurten, AEDk eguna eta ordua aldatzea erabaki du, herritarrek hala eskatuta. Bertsozaleek hitzordua 22:30ean, Amaia antzokian dute.**

AEDk, Santamas Komisiñuek eta Bertso Eskolak, jendearen eskaerari kasu eginez, Santamas bezperarako antolatu dute bertso saioa. AED elkarteko Maite Agirre kideak adierazi duenez, "helburua bertso saioak arrakasta izatea da eta jende gehiago erakartzea aurten".

Agirrek gaineratu du iazko saioan 200 bat lagun inguru batu zirela bertso saioan. "Azken urte hauetan gero eta jende gutxiago hurbiltzen da bertso saioetara, eta hori ere landu nahi dugu elkartetik. Zeintzuk diren arrazoiak aztertu beharko dugu".

Hala, AEDk eguna eta ordua aldatuta jende gehiago erakarri nahi du Amaia antzokian egingo den urteroko bertso saiora: "Aldaketarekin ze erantzun izango duen ikusi beharko da".



Aurten bertso saioa Santamas bezperan egingo da, arrakasta handiagoa izateko asmoz; Argazkian, Lujanbio. GOIENKARIA

**AEDk, herritarren eskaerei kasu eginez, bertso saioaren eguna eta ordua aldatu ditu**

**Lehen mailako bertsolariak arituko dira Santamas bezperako bertso saioan**

Sarrerak 9 euro balio du, 7 AEDko bazkideentzako. Aurretik badago erosteko aukera: AEDren bulegoan eta Irati eta Monte tabernan.

Gai-jartzaile Egoitz Aizpuru oñatiarra arituko da. Eguneroko kontuak, umorea eta jai giroa izango dituela gai adierazi digu.

**MAILA BIKAINA**

AED euskara elkartearen esanetan, bertso saioak "indarra hartzeko" lehen mailako bertsolariak izango dira kantuan: Andoni Egaña zarauztarra Euskal Herriko txapelduna da; Maialen Lujanbio hernaniarra Euskal Herriko txapeldunordea izandakoa da; Sustrai Colina urruñarra, berriz, aurten lehen aldiz jokatu den Iparraldeko bertsolaritza txapelketako txapeldunordea da; eta Jon Maia zumaiarra Euskal Herriko txapeketan beti egon izan da. Berrizko Miren Amuritza, berriz, bertsolaritzaren etorkizuna dela diote askok.

LANDALUZE
HARATEGIA -URDAITEGIA
Zorionak eta
Urte berri on!!!
Iturritz kalea 7 ARRASATE
Tel.: 943 79 14 86

MENDIZABAL OKINDEGIA

GABON ZORIONTSUAK!
Sebero Altube 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 89 60

erreka
taberna - jatetxea
Ondo ibili Santamasetan!

Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

GOERA
ERAIKUNTZAK

Zure proiektuak diseinatu eta eraikitzen ditugu

• barne - berritzeak • gremioen koordinazioa • igeltserotza
• enkofratuak • proiektuak • teilatuak • fatxadak • igogailuak

✆ 615 75 11 47

GABON ZORIONTSUAK

Udalpe kalea 12, behea 20.500 Arrasate

JOMA

Urte Berri on!

DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



OHITURAK

# Jaiegunetako baserritar jantzi dotoreak ikusiko ditugu kalean

**Urtetik urtera geroz eta jende gehiagok baserritar janztea erabakitzen du Santamas egunean, eta kaleak kolorez jantzi**

MAIDER ARREGI

**Aurten ere baserritar janzteko dei egin du Santamas Komisiñuek, Arrasateko Udalarekin batera. Iaz izandako arrakasta ikusita, jai giroa bultzatzeko herritarren parte-hartzea eskatu dute.**

Urtetik urtera jende gehiago animatzen da baserritar janztera. Hala ere, gehien animatzen direnen artean umeak, gaztetxoak eta gazteak daude. Helduak oraindik ez direla guztiz animatzen adierazi digu Ceciaga mertzeriako Rosarito Zeziagak. Egun, ordea, baserritarrek lanerako erabiltzen zituzten jantziak alde batera geratu dira eta jaiegunetako baserritar jantzi dotoreak jarri dira modan.

Izan ere, betiko baserritar jantziak, tradizionalak, ez direla saltzen adierazi digu Rosarito Zeziagak: "Jendeak koadrodunak eta patchwork teknikaz egindako gona koloretsuak eskatzen dizkigu gehienbat. Horixe da gehien saltzen duguna. Betiko puntu zuriak dituen baserritar jantzia ez dute egungo neska gazteek eskatzen".

Hala, nesken jantzi tradizionalak aldaketak izan ditu eta egungo gustuetara egokitu behar izan da baserritarren jantzia.

Oraingoak dotoreagoak direla azpimarratu du Rosarito Zeziagak. Hala, gaineratu du denda askotan jaiegunetarako jantziak direla gehien saltzen direnak.



Helduendako baserritar jantziak asko modernizatu dira. MAIDER ARREGI



Umeendako jantziak ere kolore eta gustu guztietarako daude. MAIDER ARREGI

**POLTSIKO GUZTIENDAKO**

Baserritar jantzia aukeratzerakoan, modelo ezberdinez gain, prezioari dagokionez ere desberdintasunak daude. Gainera, pieza solteak erosteko aukera ere badago: gonak, alkandorak, amantalak, lepo-oihalak, abarkak, galtzerdiak, kaikuak eta barruko gonak, besteak beste. Neskendako gonek, adibidez, 50 eta 90 euro bitarteko prezioa daukate. Rosarito Zeziagak esan digunez, aukeratzen dugun gona garestitzen joango da egindako lanaren arabera. Horrela, patchwork teknikaz egindako gonak garestienak dira; izan ere, zati-ka-zatika tela ezberdinak jostea lan handia da eta ehundik gora koadro izaten dituzte gona horiek, besteak beste.

Hain zuzen ere, aipatutako gonak dira egun moda-modan daudenak. Neska gazteek asko eskatzen dituztela esan digu Zeziagak. Osagarriei dagokienez ere, prezio eta modelo guztietakoak daude salgai Ceciaga mertzerian.

Mutilendako ere askotariko prezioak daude. Goitik behera jantzi nahi dutenek 100 euroren bueltan egin dezakete. Nesken kasuan, berriz, 130 euroren inguruan eskura daiteke jantzia detaile guztiekin.

Umeendako, ordea, 50 eta 90 euro bitartean aukera zabala dago. Kasu horretan ere, aukeratzen den modeloaren eta horrek daukan lanaren araberakoa izango da prezioa.

Hala, Rosario Zeziagak esan digu neurrira egiten dutenak gutxi direla eta eurek ez dituztela egiten. Izan ere, neurrira egindako baserritar jantziak oso-oso garestiak dira, ia bikoitza edota hirukoitza ordaindu behar dela dio.

Ea, bada, Udalaren eta Komisiñuen deialdiari erantzunez aurten ere jendea animatzen den.

**Lanerako erabiltzen ziren baserritar jantziak alde batera utzi eta jaiegunetarako jantzi dotoreak dira nagusi**

**Santamas Komisiñuek eta Udalak, iazko arrakasta ikusita, aurten ere deialdia egin dute kalera baserritar jantzita irteteko**

ION leihoak

PVC, ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK

K21 KALITATEA




20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**

**Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com**

TALOAK ETA TXISTORRA


Iazko talo postuan, Erdu-AEK eta Ekineko lagunak taloak egiten. GOIENKARIA

# Talo eta txorizo goxoak hotzari aurre egiteko

## Goizeko hamarretan Herriko Plazan jarriko dute postua

ARANTZAZU EZKIBEL

**Ohitura onak alde batera utzi behar ez direlako, aurten ere talo postua jarriko du AEK-k Santamasetan. Txorizoa, hirugiharra eta gazta aukeran.**

Urteroko hitzordua izaten da taloena Santamas jaietan. Euskal ohitura onei jarraituz, aurten ere AEK-k taloak egiteko ardura hartu du. Herriko Plazan izango da, Santamas egunean, goizeko hamarretan hasita.

Hala, 50 kilotik gora arto-irin izango dute prest. Horrez gain, beste horrenbeste kilo txorizo, hirugiharra, eta baita gazta ere. AEK-ko arduradun Oskar Elizburuk esan digu txokolatea ere izango dutela, etxeko txikienentzat.

Guztira, goiz osoan 600 talo inguru salduko direla uste dute. Talo bakoitza lau euro eta erdiren truke salduko dute.

Aurreko urteetan bezala, taloez gain pintxoak jateko aukera izango dute postura hurbiltzen direnek. Eskaintzarik, behintzat, ez da faltako; edaririk, berriz, ez dute salduko: iaz bezala, aurten sagardo kupela jarriko dute Herriko Plazan, eta, beraz, txosnarik ez jartzea erabaki dute Erdu-AEK-koek.

### GOIZ OSOAN

Goiz zabalduko dute antolatzaileek postua. 10:00ak inguruan dena prest izatea espero dute eta lehenengo taloak saltzen hastea. 15:30 bitartean zeregin horretan jarraituko dute jo eta su, Elizbururen esanetan. Guztira, 15 lagun inguru ibiliko dira lanean, talo goxoak prestatzen.

**Taloak egiteko 50 kilo arto-irin eramango dute; beste horrenbeste kilo txorizo, eta baita hirugiharra eta gazta ere**

ELKARRIZKETA | OSKAR ELIZBURU | ERDU-AEK

# "Herri dinamikatik sortutako erakundea garenez, parte hartzearen aldekoak gara"

A.E.

**Orain arte Ekin emakume elkartearekin elkarlanean egindako lana bakarrik egingo du oraingoan AEK-k. 15 lagunez osatutako lantaldea ibiliko da Santamas egunean taloak prestatzen Herriko Plazan.**

**Aurten ere AEK arduratuko da Santamasetako talo postuaz.**

Bai, orain arte Ekin emakume elkartekoekin batera ipini izan dugu postua, baina aurten gu bakarrik ibiliko gara lanean. Santamas Komisiñuekin batera plazan jarriko dugu txosna.

**Laugarren urtea izango da aurtengoa. Ez da hala?**

Bai, aurten laugarren aldiz jarraian ibiliko gara.

**Nola heldu zitzaizuen talo postua jartzeko aukera?**

Ekin elkartea urte mordoa doa Santamasetan ekitaldiak antolatzen. Hala, euskalgintzako bilera baten esan ziguten zailtasunak zituztela aurrera egiteko, batez ere lagun asko behar delako taloak egiteko. Orduan, eurekin elkarlanean hastea erabaki genuen. Aurten, baina, eurek utzi egin dute eta guk bakarrik jarraituko dugu.

**Nolako eguna izaten da Santamas eguna AEKrentzat?**

Jai herrikoia da, duda barik. Gu herri dinamikatik sortutako erakundea garela kontuan hartuta, beti horrelako ekintzetan parte hartzearen aldekoak izan gara. Herrikoia eta bertako ohiturak ezagutzeko aukera ematen duen jaia da. Gainera, euskararen presentzia nabarmena da Santamasetan. Herriko jairik errotuena da, euskal giroko jaieguna. Horretan laguntzeko prest egon izan gara beti, taloak egiten edo bestelakoetan ere bai.

Gainera, kontuan hartuta aurtengo ikasturtean Korrika izango dugula, aukera aprobetxatuko dugu Korrikaren aldeko leloak jartzeko. Zerbitzua ere, jakina, euskaraz emango dugu.

**Herritarren aldetik ze erantzun izaten du talo postuak?**

Urtero zain egoten garen postua da taloarena, txerriarena bezala. Santamasetako ohitura da, San Juanetan errementari-dantza izan daitekeen moduan.

**Lortutako diruarekin zer egin behar duzue?**

Lortutako dirua AEK finantzatzeko izango da. Erkidegoan nahiko normalizatuta dago dirulaguntzen kontua, baina Nafarroan eta Iparraldean gabezia ekonomiko handiak daude. Korrika bezalako ekitaldietan eta beste hainbatetan lortutako dirua gure ekintzak finantzatzeko izaten dira. Helburua da guztiek lan baldintza berak izatea; bestela, ezinezkoa izango litzateke haiek soldata duina izatea.

**Orain, eguraldiak laguntzea falta da.**

Hori da! Lanerako ez da erosoa, euria eginez gero dena nahasten da.

**"Santamas eguna herriko jairik errotuena da, euskal giroko jaia"**

**"Lortutako diruak, esaterako, AEK finantzatzeko balioko digu"**


Oskar Elizburu. GOIENKARIA

LOS VAQUEROS

LOS VAQUEROS-ek jai zoriontsuak opa dizkizue eta prezio baxuago baten opari onenak egiteko laguntzen zaituzte.

2 praka 8 kolore ezberdinetan : 39 €

Ehundaka kamiseta: 9,95 €

Zerkaosteta kalea 3 - ARRASATE

AZOKA



Arrasate Musikaleko gazte askok hartuko dute esku egubakoitzean Amaia antzokian egingo duten kontzertuan. GOIENKARIA

# Arrasate Musikalek bi emanaldi egingo ditu abenduan Amaian

## Egubakoitzean egingo dute lehenengo emanaldia, eta Gabon zahar eguneko kontzertuarekin esango diote urteari agur

XABIER URTZELAI

**Arrasate Musikalek bi hitzordu izango ditu urtea amaitu bitartean. Egubakoitzean (18:30) hainbat taldek joko dute, Gabonak girotzeko asmoz.**

Egubakoitz arratsaldean izango dute Arrasate Musikaleko taldeek urteko azkenaurreko hitzordua, Amaia antzokian –sarrera doan da–: "Banda Txikiarekin batera Arrasate Musikaleko beste talde batzuek ere hartuko dute parte kontzertuan, talde mistoak dira", azaldu du Edorta Aiastuik. "Neurri batean, irailetik hona egindako lana erakusteko kontzertua da, eta banda txikiko gaztetxoendako hitzordu garrantzitsua da, askok lehenengo aldiz joko dute-eta Amaia antzokia bezalako aretoan".

### GABONETAKO ABESTIAK

Egubakoitzeko hitzorduari begira, Aiastuik argitu du, neurri handian, Gabonetako abestiak joko dituztela: "Gabonak ere gaingainean ditugu, eta *Hator, hator, Adeste fideles, Olentzero* edota *Merry Christmas* moduko piezak joko dituzte".

### GABON ZAHAR EGUNEAN

Egubakoitzeko saioarekin batera, Gabon zahar eguneko emanaldirako (13:00etan Amaia antzokian) ere gonbidapena egin du: "Urtetik urtera geroago eta indar handiagoa hartzen dabil abenduaren 31ko kontzertua. Banda Handian geroago eta musikari gehiago ditugu eta abenduaren 31ko kontzertuan 65 musikari izango dira taula gainean".

**"Urtean hiru hitzordu nagusi izaten ditugu, eta abenduaren 31ko kontzertua da horietako bat"**

Hala, zenbaki horiek erakusten dute Arrasate Musikal urtetik urtera geroago eta gorputzaldi hobean dagoela.

### ZUZENDARI BERRIA

Abenduaren 31ko kontzertuak izango du beste berezitasunik, orain arte zuzendari lanetan ibili den Iker Olazabalen lekua hartuko du-eta Mikel Markiegi bergararrak: "Santa Zezilia egunean egindako kalejiran egin zuen Markiegik estreinaldia, eta orain, abenduaren 31n zuzenduko du banda lehenengoz Amaia antzokian. Horrenbestez, Banda Txikitik Handira salto egingo duten musikari gazteekin batera, zuzendariarendako ere hitzordu berezia izango da".

Eta, abenduaren 31n eskainiko duten kontzertuko pieza batzuk zeintzuk izango diren aurreratu du Aiastuik: "Hainbat filmen soinu banden bertsioak joko ditugu, tartean, Tom Sayerren *Suite.* Horrekin batera, *La jungla, La cacería real,* Johann Strauss-en *La Chasse...* eta *Olentzero* ere joko dugu.

IRUROK. S. L.
Eraikuntzak
Ondo pasa Santamasetan!
Meatzerreka, 5-bis Tel.: 943 77 09 92 • Faxa: 943 79 78 14
Apto. 246 • ARRASATE e-posta: irurok@irurok.com

GABON KANTAK

# Herriko txokoak Gabon doinuz bustiko dituzte

## Goikobalu abesbatzak kantu kalejira egingo du

ARANTZAZU EZKIBEL

**Gabonak girotzeko, herriko hainbat talde kalera irtengo dira kalejiran eta kantuan. Goikobalu, Arrasate Musikal eta ikastetxeak arduratuko dira kaleak girotzeaz.**

Gabonetan pentsatzen dugunean hainbat gauza etortzen zaizkigu burura: Olentzero, pinua, argiak, opariak; era berean, baita Gabon doinuak ere. Izan ere, ezinezkoa da Gabon kanturik gabeko Gabonetan pentsatzea. Guztiontzat ezagunak dira *Din-dan-don, Olentzero, Gaueko izar*... edo beste hainbat abesti.

**KANTU HERRIKOIAK**

Gehienak kanta herrikoiak dira, eta belaunaldirik belaunaldi gureganaino heldu dira.

Hainbat talde eta ikastetxe dira Gabon gauean kalera irteten direnak kantuan egitera. Udalak, esaterako, Olentzero aterako du hilaren 24an. Arratsaldeko seietan aterako da, Zaldibartik. Handik Portaloira egingo du Olentzerok. Gero, Otalora, Zarugalde, Udala plaza, San Andres, Abaroa, Zerkaosteta eta Portaloia zeharkatuko dute eta, azkenik, Herriko Plazara iritsiko da Olentzero.

Ikusten denez, herriko txoko guztietan izango dute etxeko gaztetxoenek Olentzeroren kalejiraz eta Gabon kantuez gozatzeko aukera.

**TXORONPIO ETA TXORONPIA**

Herriko Plazan, gainera, mutil-dantza eta herri-dantza egingo dituzte herriko dantzariek.

Olentzeroren aurretik, goizean Txoronpio eta Txoronpia irtengo dira, 11:40ean, gaztetxoenen gutunak jasotzera. 13:15ean, Seber Altube plazara iritsiko dira Txoronpio eta Txoronpia.

**GOIKOBALU**

Gabon gaua urteroko hitzordua izaten da Goikobalu abesbatzako lagunentzat. Hain zuzen ere, euren nahia herritarrak kantuz alaitzea izaten da. Betiko moduan, Iturbide egoitzan hasiko dute kalejira Goikobalukoek. Hilaren 24an izango da, 17:00etan. Handik ospitalera joango dira eta gero herriko kaleetara irtengo dira kaleak girotzera.

Iñaki Maidagan Goikobalu abesbatzako zuzendariak esan digu beste urte batzuetan Portaloikoekin irten izan direla. Guztira, 40 lagun inguru aterako dira kalera kantuan egitera. Jokin Zaitegi, Portaloia, Arbolapeta eta parrokia azpia girotuko dituzte kantuz abesbatzakoek.

> "Lagun asko batzen dira kalejiran, eta gustura egoten dira"

> Arrasate Musikaleko bandak kontzertua egingo du 31n

**TXIKI ETA GAZTEAK**

Goikobalu Gazte eta Txikiko lagunak Olentzerorekin irtengo dira. "Urtero egiten duten ekitaldia da, dagoeneko finkatuta dago gure egutegian", esan digu Maidaganek.

Goikobalu abesbatzako kideek zortzi abesti kantatuko dituzte. Betiko kantuak izango dira: "Jende asko batzen da inguruan eta jendea gustura egoten dela esan dezakegu", azaldu du Maidaganek, Goikobaluko zuzendariak.

**ARRASATE MUSIKAL**

Bi kontzertu eskainiko dituzte Arrasate Musikaleko lagunek Gabonetan. Hilaren 19an, 18:30ean, Amaia antzokian kontzertua egingo dute eskolako txikienek. Hainbat taldek erakutsiko dute ikasturtean zehar ikasitako guztia.

Hilaren 31n, ostera, Arrasate Musikaleko bandak 11:00etan kalejira egingo du, eta 13:00etan, kontzertua Amaia antzokian. Biak doakoak dira.



Goikobalukoek kalejira egingo dute hilaren 24an. GOIENKARIA




Arrasate Musikaleko kontzertuak Amaia antzokian izango dira. GOIENKARIA



UMEAK

# Hamaika gune izango dituzte umeek jolas egiteko Txikilandian

MONIKA BELASTEGI

**Gabonetako oporraldia gogotsu hartzen dute gaztetxoenek. Batetik, Olentzerok, Erregeek... ekarritako opariak jasotzeko irrikan egoten dira. Bestetik, Txatxilipurdi elkarteak Musakolako kiroldegian antolatzen duen Txikilandia parkean jarduteko aukera dute.**


Arrasateko ume taldea Txatxilipurdik egoitzan marraztu duen mural berriaren aurrean. GOIENKARIA

Gabonetan umeen aisialdia osatzeko askotariko ekintzak izango dira, eta, nagusiki, Txatxilipurdi elkartea arduratu da horiek antolatzeaz, azkeneko urteetan bezala.

Urtarrilaren 2an hasi eta 5era bitartean –biak barne–, haurrendako jolasparke bilakatuko da Musakola kiroldegia. Hala, hamaika gunetan banatuta, asmotariko jolas, tailer eta ikuskizunez gozatu ahal izango dute bertaratzen diren neska-mutikoek.

Txikilandiaren ordutegia izango da 11:00-14:00 eta 16:00-20:00. Urtarrilaren 5ean goizetik bakarrik egongo da zabalik.

Prezioari dagokionez, eguneko sarrerak 7 euro balioko du eta egun guztietarako bonuak, 18 euro.

Horrez guztiaz gain, egunero zozketak egingo dituzte. Zozkatuko dira Astoreko materiala eta Lizarralde bizikleta dendako lau patinete. Zozketok 19:30 aldera egingo dira; hortaz, komeni da sarrerako txartela gordetzea.

#### HAMAIKA GUNE

Jolasparkeak hamaika gune izango ditu. Gunetako batean karaokea egongo da eta gustuko duten gaztetxoek abestu ahal izango dute han. Ipuin txokoa ere egongo da. Han, hainbat ipuin kontalarik ipuinak esango dituzte, goizez eta arratsaldez. *Gurasoak.com* txokoa ere egongo da. Gurasoak lasai, kafetxoa hartzen egoteko moduko txokoa da. Ordenagailuak ere egongo dira, *Gurasoak.com* webgunea ezagutzera emateko eta, horrez gain, Intered GKEren emakumeen gaineko erakusketa ere bai.

Hiru ludoteka ere egongo dira, eta baita puzgarrien txokoa eta *balance bike* txokoa ere.

Elkarhezitzen GKEren txokoa ere egongo da. Birziklatutako materialarekin diru-zorroak eta poltsendako apaingarriak egiteko aukera izango dute umeek. Talo txokoan, taloak egiten ikasteko aukera izango dute, eta aisialdi birtualaren txokoan, ordenagailuekin jolas egiteko parada.

Tailerrak ere izango dira; hauek, besteak beste: argazki digitala lantzeko, markogintza, aurpegi margotze eta ile apaindegia, eta txapagintza.

Azkenik, Uraren Eguna ere izango da. Urtarrilaren 4an egingo dute hori, eta, uretako jolasak egingo dituztenez, bainujantzia eramatea gomendatzen dute.

#### HAINBAT IKUSKIZUN

Herriko taldeak –gaztetxoen taldeak– ezagutzera emateko asmoz, eguneko ikuskizun bat ere egongo da jolasparkean. Urtarrilaren 2an, konpartsak egingo du emanaldia. Urtarrilaren 3an, sevillana eta euskal dantzen saioa egongo da eta 4an, Txan Magoak egingo du emanaldia. Guztiak ala guztiak, 18:00etan.

## Santamasetan ere tailerrak egongo dira

**Txatxilipurdi elkarteak ere antolatu ditu ekitaldiak Santamas egunerako. Gaztetxoenek gustura hartzen dituzte, gainera, Txatxilipurdiren ekintzak. Arratsalderako tailerrak antolatu dituzte, hain justu ere. 16:30etik 18:30era, Musakolako kiroldegiko bazkariaren ostean, askotariko tailerrak egingo dituzte. Hala, bertaratzen diren neska-mutikoek egin ahal izango dituzte txapak, karetak eta birziklatutako materialarekin egindako bestelako eskulanak ere bai.**

## Txoronpio, Txoronpia eta Olentzero

**Abenduaren 24an, eguaztena, Txoronpio eta Txoronpia umeek Olentzerorendako idatzi dituzten gutunak batzen arituko dira. 11:40 aldera abiatuko dira eta igaroko dira Munar, Uribe auzoa, San Andres, Zigorrola eta Santa Teresa auzoetatik. 13:15ean, geldialdia egingo dute Seber Altube plazan. Olentzerori dagokionez, 18:00etan iritsiko da herrian barrena ibili ondoren; 19:30ean Herriko plazara iritsiko da. Olentzerori agurra egin eta gero, mutildantza eta herri-dantza izango dira.**

A
ARPE
• Kalitate onena, prezio ezin hobean.
• Aholkularitza.
• Konfiantzazko denda.
Kontzeziño 4 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA
marsans viajes
Santamas jai zoriontsuak!
Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina.
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat.

Paraje eder baten kokatua



• Menu bereziak aukeran: 18 €
• Karta
• Ostiral eta zapatu gauetan, menu bereziak: 28 €

Arteaga
Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Zorionak eta urte berri on!

101 URTE BETETZEN DITUGU

• Arrasaten,
• Arrasaterekin,
• Arrasaterentzat.



1907-2008

Aurtengo Santamasetan Casa Ceciaga-k 101 urte betetzen ditu Arrasaten etengabeko merkatal ihardueran.

**101,** eta gero...

Poliki-poliki: gure iharduerarekin jarraituko dugu gure osasunak eta adoreak bezeroei gure etxeko ateak beste egun batez ilusioz irekitzea uzten digunerarte. Ikusiko da...

Casa Ceciaga
Mahalako Errabala, 3
20500 ARRASATE-MONDRAGÓN
Tel.-Faxa: 943 791262

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

“Casa Ceciaga”-ko oraingo aurpegia garen hauek, omenaldia eskeini nahi diegu istorio honi bizitza eman zioten (eta dioten) guztiei.

Lehenik eta behin, gure aiton-amona Julian eta Rafaelari, familiako enpresa sortzeagatik.

Ondoren, gure izeba Enkarna eta Esperantzari, hasierako dendaren iharduera anitza jaso eta mertzeria sortu izanagatik.

Gure guraso Heriberto eta Eugeniri, dendaren atzeko aldetik, beraien esfortzu isilarekin familia osoarentzat lan egiteagatik.

Maritxu Lasagabasterri, denon laguntzaile zintzoa izateagatik. Tia Juanita eta Begoñari, ahal izan zigutenean laguntzeagatik.

Gure enkarguak josi eta brodatu dituzten jostunei. Gure hornitzaileei, ...

Urte guzti hauetan gure bezeroei harreta ona eskeini dieten "neska" guztiei eta bereziki Kontxita eta Mertxe Zarraoari, Rosiri, Marisari, Rosa Mariri, Petriri, Mertxe Plazaolari, Natiri, Josune eta Nagoreri eta oraindik gurekin jarraitzen duten Ines eta Mari Marri.

Eta nola ez, Arrasateko eta Debagoieneko gure bezeroei euren konfidantza eta estima eskeintzeagatik.

Guztioi, bihotzez, mila esker.

eta


Badatoz
Santamasak...
AMETS
BENGOA
BRANKA
EDERRA
EXPRESS
IAMAI
ITZALA
MONTE
OKOROTEGI
OSTANTZ
RUMBA
TXOKO
ONDO IBILI JAIETAN!

ELKARRIZKETA MAIXA LIZARRIBAR TRIKITI ESKOLAKO IRAKASLEA

# "Lehengo eta gaurko ikasleak batzeko eguna da"



Maixa Lizarribar da Trikiti Eskolako hiru irakasleetako bat. JON BEREZIBAR

MONIKA BELASTEGI

**Herriko beste hainbat taldek bezala, Trikiti Eskolako ikasle eta irakasleek ez dute hutsik egingo Santamas egunean. Gaztetxoenei ilusio handien egiten dien eguna da.**

**Guztia prest Santamas egunerako?**

Dagoeneko bai. Ikaslekin aterako gara, ohi bezala, eta ikasleen artean beti dago berriren bat kalejiran aterako dena. Hala, data hauetan beti ibiltzen gara piezak irakasten. Baita txerri-dantzarako ere. Bestalde, Gabonekin juntatzen zaigu guztia. Abesti asko ikasi nahia azken unean.

**Zenbat lagun aterako zarete?**

Urtean jende gehien batzen garen eguna izaten da. Txikienak ere egun horretan ateratzen dira lehenengoz. Urrian ekiten diote ikasturteari eta Santamasetarako oinarri bat izaten dute gehienek eta kalera ateratzeko ilusioa izaten dute. Hala, 50 bat lagun izango gara, gutxienez.

**Ilusio handia izaten dute, hortaz, txikienek kalera irteteko.**

Bai. Izan ere, Gabonak datoz, oporrak hartzen dituzte eta hori guztia Santamasekin lotzen dute umeek. Hala, ilusio berezia izaten dute. Egiten den beste irteera da San Juanetan, baina orduan asko oporretan egoten direnez, bada, ezin izaten dira irten. Hala, Santamasetan gehienak egoten dira eta lagunekin irteteak asko animatzen ditu. Gainera, ikasturteko lehen irteera dela ere kontuan hartu behar da, eta irrikan egoten dira.

**Ze adinetako ikasleak daude eskolan?**

Bost urtetik hasi eta hirurogeita pikura arte. Azken horiek normalean ez dira ausartzen ateratzen, baina badago talde bat lehenago eskolan ibilitakoak beti etortzen direnak egun horretan. Etortzen dira baita ere ikasten ibili eta utzi dutenak edo bukatu dutenak. Gu ez gara deika ibiltzen etor daitezen, baina badakite irten egingo garela, eta hurbildu egiten dira. Lehengo eta gaur egungo ikasleak batzeko eguna ere izaten da Santamas eguna.

**Zein izango da zuon egitaraua egun horretan?**

Bezperako parranda kontuan hartu behar da, eta, hortaz, hitzordua jartzen dugu 12:00ak aldera. Lehen geldialdia egingo dugu Jokin Zaitegin, eskola alboan dugulako, eta gero geldialdiak egingo ditugu betiko lekuetan: Monten, plazan... Monte tabernakoa aprobetxatuko dugu txistorra jateko.

Gero, plazan egingo dugu geldialditxoa emanaldia egiteko, eta, bukatu eta gero, jarraitu egingo dugu ibilbidea 14:00ak arte, bazkalordura arte.

**Pieza berezirik prestatu duzue?**

Ez. San Juanetarako prestatu genuen, baina Santamasetarako ez. Kontuan izan ikasle berriak ere ateratzen direla eta ohiko piezak ikasi behar dituztela.

**Herritarrok kasu egiten dizuegu ala albotik pasa eta ez dizuegu entzuten?**

Pixka bat, bai. Uste dut asko egiten duela haurrak ikusteak, horrek atentzioa ematen du, eta baita nagusiak ikusteak ere. Talde handia gara; hortaz, ezinbestean lekua utzi behar zaigu. Dena den, Santamasetan hainbeste jende dago kalean, hainbeste talde ateratzen gara, gerta daiteke ez konturatzea.

**Zein da zuen ekarpen nagusia Santamasei?**

Giroa egotea kalean. Baina ez da guk jartzen duguna bakarrik. Talde guztiek eta jendeak berak jartzen dute giroa. Gu eranskin bat gehiago gara.

**Gabonetarako ze prestatu duzue?**

Saiatuko gara jende gehiago ateratzen kalera, ohitura sendotzen joan dadin. Gabonetako kantuak ikas ditzatela, kalean ez ezik etxean ere jo eta abes ditzaten. Garrantzi handiagoa eman nahi diegu aurrerantzean Gabonetako ospakizunei.

**Zela dago osasunez trikitia Debagoienean?**

Gure eskolaren kasuan, oso ondo. Izan ere, ikasle asko dago. Aurten gorakada handia izan da, batik bat panderoan. Zergatik izan den ez dakigu, boladaka gertatu ohi da. Hiru irakasle gaude eta ordu nahikotxo daukagu bakoitzak.

Uste dut honetan guztian zeresana duela Debagoieneko Trikitixa Egunak. 2009an Antzuolan izango da.

> "Txikienak Santamas egunean ateratzen dira lehenengoz kalera jotzera, eta ilusio handia izaten dute"

> "Arrasateko Trikiti Eskola osasun betean dago, ikasle asko dago; aurten gorakada nabarmena izan da, panderoan batik bat"






ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

# Santamas eta Gabon giroko erakusleiho dotoreenei saria

## Sariak egubakoitzean banatuko dituzte, baina abenduaren 31 bitartean egon beharko dute erakusleihoek apainduta

MIRARI ALTUBE

**Kultura Sailak antolatu du erakusleiho lehiaketa, eta abenduaren 19an banatuko dizkiete sariak dotoreenei. Hilaren 31 arte daude erakusleihoak Santamas eta Gabon ukituarekin apainduta.**

Kaleko argi eta apaingarriekin batera, dendetako erakusleihoek ere ematen diote herriari Gabon ukitua: jaiotzak, Olentzeroak eta zuhaitzak, argi bereziak… Nahiko lan izaten dute dendariek urtero zelan apaindu asmatzen. Eta erakusleiho lehiaketan parte hartuz gero, oraindik dotoreago jarri gura! Lan hori sarituko du Udalak, erakusleiho dotoreenak aukeratuta. Eta dendariek badakite ohore handia dela lehiaketan sariren bat jasotako garaikurra izatea erakusleihoan. Hortaz, hori eskuratzen saiatuko dira guztiak.



Ehune apainketa dendak eskolako umeak dauzka erakusleihoetako baten. MIRARI ALTUBE

### SARIAK EGUBAKOITZEAN

Ibai-Arte merkatarien elkartean sartuta dauden komertzio guztiek hartu dute parte lehiaketan, urtero legez –90 inguruk–, eta elkartean sartu barik dauden beste hiru batek ere eman dute izena; antolatzaileen esanetan, herri erdialdekoek, gehienbat. Dagoeneko apainduta dituzte guztiek dendak, astelehenean hasi zen-eta lehiaketa. Gainera, urtea bukatu bitartean izan beharko dituzte apainduta. Epaimahaiko kideen lana errazteko, argiekin egon beharko dute erakusleihoek, dendak ixteko ordura arte; jaiegunetan eta jai bezperatan, ostera, 21:00ak arte.

Sari banaketa egubakoitzean, hilak 19, egingo dute (18:00). Hona dotoreenek jasoko dituzten sariak: irabazleari, 300 euro eta garaikurra; bigarrenari, 250 euro eta garaikurra; eta hirugarrenari, 200 euro eta garaikurra. Sari hori Ibai-Artek ematen du.

Iaz, Otamendi harategiak eroan zuen lehenengo saria, txorizoekin osatutako abesbatza jartzearren. Azken bi urteotan jaso du lehen saria Otamendik, eta aurten ere, zalantza barik, kontuan hartzeko erakusleihoa izango da. Bigarrena Ehune apainketa dendarendako izan zen –hark ere sarritan eskuratu du lehen saria–, eta hirugarren saria Mendi Kirolak dendak jaso zuen.

### SARIAK EGUBAKOITZEAN

Epaimahaiaren lana ez da batere samurra; izan ere, denda asko dira eta zein baino zein dotoreago apainduta. Hiru lagunek osatuko dute epaimahaia: Udaleko ordezkari batek, Ibai-Arte elkarteak izendatutako beste ordezkari batek eta kontsumo kontuetan aditua den beste batek. Bost egun izango dituzte erakusleiho guztiak begiratu eta gustukoenak hautatzeko. Eta hautaketa orduan hainbat ezaugarri hartuko dituzte kontuan: irudimena eta orijinaltasuna apaintzeko orduan; publizitate mezua baliagarria den edo ez; erakusleihoaren itxuraren kalitatea eta Santamas jaiekin eta Gabon giroarekin zerikusirik duen edo ez jarritakoak. Gainera, kontuan hartu behar da erakusleihoa apaintzerakoan dendako ohiko produktuak erabili beharko dituztela guztiek.

Antolatzaileen esanetan, urtero daude denda batzuk oso dotore apainduta eta horiexek izaten dira saria jasotzen dutenak. Ahalegina, baina, guztiek egingo dute, ondo baino hobeto dakite-eta erakusleihoak erakarriko ditruela herritarrak dendara.

**Epaimahaian hiru kide daude: Udaleko eta Ibai-Arteko ordezkari bana eta kontsumoan aditu bat**

**Irudimena, orijinaltasuna, publizitate mezua eta kalitatea hartuko dituzte kontuan**

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Lore
Lurrindegia eta estetika zentroa
Olarte 10 • ARRASATE
943 79 52 50

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak

ekide

**EKIDE S.L**
San Andres auzoa 2. 4A pab.
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 43
Faxa: 943 71 21 43
e-mail: ekide@ekide.es

*Santamasetan eta Gabonetan ondo ibili!*

# Etorri eta oparitu edertasuna gabonetan



Itsaso (estetizista) | Cristina Arruabarrena doktorea kolg. Zbakia 6073 | Maite Agirre zentroko zuzendaria | Elena ( estetizista)

AG

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

**Tratamendu estetikoak**
• Aurpegikoak- gorputzekoak
• Hidroterapia - Depilazioa (laserra, elektrikoa…)
• Permanentea eta betileen tindatzea- Manikura
• Masaje lasaigarriak , etab.

**Tratamendu mediko-estetikoak**
• Aurpegiko eta gorputzeko mesoterapia
• Betetzeak (hazido hialorunikoa)
• Botoxa
• Dieta pertsonalizatua, etab.

***Gabonetarako gure sugerentziak***
• Masaje lasaigarriak pindekin
• Tratamendua Bulgaria - arrosarekin

*Eskerrik asko bihotz-bihotzeaz eta Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu.*

R.P.S 297/05

JAIALDIA

# Gizonezkoek parte hartuko dute kultura aniztasun jaian

## Orain arte, emakume etorkinen jaia izan ohi da


Etorkinek euren herrialdeetako kantuak eta dantzak eskaintzeko aukera izango dute. EKIN

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ekin Emakume Elkartearen eskutik, kultura aniztasunaren jaia izango da Gabonetan. Beste herrialde batzuetako kultura gurean zabaltzea da asmoa.**

Hirugarren urtez antolatu dute Gabon ingururako kultura aniztasun jaia Ekin Emakume Elkartekoek. Aurten abenduaren 27an, zapatuan, izango da, 17:30ean hasita, Herriko Plazan.

Jaiaren helburua da etorkinak herrira gerturatzea. "Ekinek harrera plangintza dauka etorkinendako. Herriko baliabideak erakusten dizkiegu, euskararen gaineko sentsibilizazioa egiten dugu eurekin... Baina dena ez dadin serioa izan, jai giroko ekintzak antolatzen ditugu, etorkinek ondo pasatzeko eta herritarrei etorkinak eta euren ohiturak gerturatzeko", azaldu digu Ekineko Amaia Irizarrek.

**Etorkinek euren herriko jakiak gertatuko dituzte**

**Musikariek euskaraz eta wolof hizkuntzan jardungo dute**

### JATEKOAK ETA MUSIKA

Jaian, etorkinek gertatutako janariak probatzeko aukera izango da. Brasil, Kolonbia, Ekuador, Maroko, Pakistan eta beste herrialde batzuetako ohiko jakiak izango dira aukeran, besteak beste. "Orain arte emakume etorkinendako zen, baina aurten lehen aldiz gizonezkoak ere etorriko dira. Bestalde, etorkinak izan gabe, baztertze egoeran dagoen hemengo jendeak ere hartuko du parte; Udaleko Gizarte Zerbitzuarekin elkarlanean bideratu dugu horien parte-hartzea", esan digu Amaia Irizarrek.

Jatekoez gain, Txatxilipurdiren eskutik umeendako kultura aniztasun tailerrak egongo dira, eta, etorkinak animatuz gero, euren herrialdeetako dantzak eta kantuak erakusteko aukera ere izango dute.

Bidezko merkataritza postua ere izango da, eta baita musika ere, giroa alaitzeko. Gasteizko Harresian Zulo taldeak jardungo du. Mestizajea da talde horren ardatza, eta euskaraz eta Senegalgo wolof hizkuntzan abesten dute.

### ERAKUSKETA

Plazan erakusketa bat ere ipiniko dute, baldin eta eguraldiak lagunduz gero. Bi erakusketa dituzte aukeran, oraindik zein ipiniko duten erabakitzeke: *Ni ere pertsona naiz* erakusketa, etorkinen gainekoa; eta emakumearen eta garapenaren gainekoa. Gainera, aukeratzen duten erakusketa ikusi ahal izango da Harresi aretoan abenduaren 24tik 30era.

Herrian bizi diren beste kultura batzuk gertutik ezagutzeko aukera, hortaz.



BENITO LERTXUNDI

# Orioko bardoak 'Itsas ulu zolia' aurkeztuko du Amaia antzokian

## Asteleheneko Lertxundiren kontzerturako sarrerarik ez daukanak Eskoriatzan ikusi ahal izango du urtarrilaren 30ean

IKER BARANDIARAN

**Itsasoa jomuga nagusi dauka Orioko musikari beteranoaren hamaseigarren diskoak. Arrasateko ikuskizunerako sarrerak agortu dira.**



Ez Dok Amairu mugimenduarekin musikagintzan hasitako oriotarrak ibilbide luzea dauka dagoeneko. GOIENKARIA

Benito Lertxundik, Orioko bardoak, aspaldiko disko-isilunea apurtu eta *Itsas Ulu Zolia* izeneko diskoa kaleratu du aurten Elkar diskoetxearekin. 2005ean *40 urtez ikasten egonak* lana argitaratu zuenetik, ez zuen beste lan luzerik atera.

Hala ere, salbuespenak egon badaude. Izan ere, 2007an *18/98+... Auzolanean* bildumarako musika jarri zion Andoni Egañak idatzitako *Itzalak* izeneko kantuari

**ITSASOARI ABESTU**

Oraingoan Orioko musikariak egunero etxetik ikusten duen itsasoari abestu gura izan dio, eta hala egin du. Musika kritikari batzuen esanetan, diskoak itsasoren usaina eta hotsa dakarkigu. Ez dugu hainbeste esango, baina egia da itsasoak berari eragiten diona ondo islatzen jakin duela eta diskoari itsasoak berezko daukan misterio eta erakartasun kutsuak batu dizkiola. Baina ez itsasoari bakarrik, hitzaren balioari eta bakeari ere idatzi dizkie kantuak.

**Astelehenean, hilaren 22an, izango da Benito Lertxundi Amaia Udal Antzokian; sarrerak agortu dira dagoeneko**

Hamar kantu batu ditu lan berrian. Horietatik hiruren hitzak Jon Maiak idatzi ditu, aurretik egindako elkarlana jarraitu eta indartuta.

Beste berrikuntza bat da Lertxundik Olatz Zugastirekin batera bi abesti konposatu dituela; Zugastik Egiptoko musika duen pieza bat sortu duela; edota Lertxundik, *Mirotzak* abestian, Orioko arraunlariak abesten jarri dituela.

**KOLABORATZAILE UGARI**

Orioko musikari beteranoak beti izaten ditu lagun asko alboan: Juantxo Zeberio pianoa eta sintetizadorean, Fernando Ederra baxuan, Pello Ramirez cello eta eskusoinuan, Kutxo Otxoa de Eribe biolinean, Joxe Mari Irastortza flauta eta txirulan, Gurutz Bikuña gitarra elektrikoan, Olatz Zugasti arpa eta sintetizadorean, Angel Unzu gitarra akustikoan eta Igor Telletxea baterian, besteak beste.

Seguruenik, Amaiako kontzertuan, Lertxundik gogoan izango du Laboa.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Ondo pasa Santamasetan!
Urte berri on!

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ARGITALPENAK

# Liburu baten jaso dituzte 'Malbe' zena eta haren aldarrikapenak

**'Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza' liburua eskuragarri egongo da hainbat saltokitan eta astelehenean Biteri plazan**

IKER BARANDIARAN

**Bedoñako artzain ezagun bezain polemiko baten bizitza ardatz hartuta, Leintz ibarreko iraganera jotzeko bidea eman dute liburu batekin.**


*Malbe*-k industriari bizkarra eman zion. JOSE MARIA LASAGABASTER WENTZES


Alejandro Iturbek baserria zuen ogibide. MARTINEZ

Leintz ibarreko adin batetik aurrerakoendako *Malbe* artzain eta baserritarra zena ezaguna da oso. Batzuek bihotz oneko gizon moduan gogoratuko dute, beste batzuek haren mozkorraldiengatik, xelebrekeriengatik edota izan zituen ika-mika eta epaiketengatik. Are gehiago, badira *Malbe*-ri beldurra ziotenak ere.

Argi dago 1888an Bedoñan jaio eta 79 urterekin hil zen baserritar hark arrastoa utzi zuela jende askorengan. Horretan eragina izan zuen bere izateko modu independente, borrokalari eta jarrera irmoak. Gauzak argi bazituen, ez zegoen hura geldituko zuenik. Adibidez, emaztegai izateko gertu zeuden hainbat emakume izan arren, mutil-zahar geldítu zen, ezkondu barik bizi gura zuelako.

**HERRI-LURRAK**

Ezagutu zutenek gogoan daukaten beste gauza bat da *Malbe*-k hil artean ahotan izan zuen aldarrikapena: *¡Aguas y pastos libres!* Bedoñarra artzaina izanda, ikamika, liskar eta epaiketa ugari izan zituen, bere artaldea iraganean herri-lurrak izan ziren larre eta basoetan bazkatzera eramaten zuelako.

Liburuaren egileek, Marixol Iparragirrek eta Joseba Garitaonaindiak, *Malbe*-ren biografia zabala landu dute, liburuko protagonista ezagutu zuten hainbat herritarren esanak batuta.

Horrez gain, egileek inguruetako artxibategi asko arakatu dituzte *¡Aguas y pastos libres!* delako aldarrikapenaren nondik norakoak eta iturria ezagutu ahal izateko. Historiak arrazoia eman omen dio *Malbe*-ri. Hala egiaztatzen dute, adibidez, Oñatiko Protokolo Artxiboan aurkitutako hainbat dokumentuk. Han jasotakoaren arabera, iraganean hainbat udalek herri-lurrak saldu behar izan zituztenean, erabilerarako baldintza zehatz batzuk jarri zituzten, gaur egun betetzen ez direnak. Adituek dokumentuon garrantzia azpimarratu dute.

Horiek guztiak eta joan den mendean baserri inguruko bizimoduaren deskribapen zabala bi egileek euren kasa kaleratu duten liburu baten batu dituzte, *Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza* izena daukana. 100 orrialdetik gora ditu eta eskuragarri egongo da astelehenean Biteri plazan eta baita Leintz ibarreko hainbat saltokitan ere. 20 eurotan salduko dute, eta berorrekin egutegi bat oparitzen dute.

Liburua euskaraz kaleratu dute eta hainbat tarte bertako euskalkian jasota daude, jatorrizko elkarrizketak errespetatzeko.

Garitaonaindiak eta Iparragirrek materiala batu eta forma eman diote; eta Mikel Albisuk zuzenketak egin ditu. Testigantzak Bixente Pagoagak, Joxe Iturbe *Piloto*-k, Matromei baserriko Eulalik eta Joxe Uribesalgok egin dituzte. Lana auzolanean egin dutela diote.

Liburuaren aurkezpena astelehenean egin zuten, bi lekutan: eguerdian Marixol Iparragirrek eta Mikel Albisuk Fresnesko (Frantzia) espetxeko emakumezkoen eta gizonezkoen moduluetan; eta arratsaldean, Joseba Garitaonaindiak Arrasateko Kulturateko klaustroan.

ELKARRIZKETA MARIXOL IPARRAGIRRE / JOSEBA GARITAONAINDIA LIBURUAREN EGILEAK

## "Kontatu ez diguten historia zati bat jasotzen saiatu gara, gure baserrietakoa"


Marixol Iparragirre.


Joseba Garitaonaindia.

I.B.

**Liburuaren egileek lan nekeza izan dute espetxeko hormak tartean izanda liburua egin ahal izateko.**

**Noiz eta zelan bururatu zitzaizuen *Malbe*-ren gainean idaztea?**

Orain dela pare bat urte Marixol eta biok elkarri gutunak bidaltzen hasi ginen eta *Malbe*-ren gaineaan idaztearen aukera aztertzen hasi ginen. Aurretik jakin dugu iraganean beste batzuek ere asmo hori izan zutela, baina ez zutela egin.

**Zer izan da zailtasun handiena?**

Ni ezta Marixol ez gara idazleak. Eskerrak Mikel Albisuk lagundu gaituela. Horrez gain, Marixol Fresnesko espetxean dago eta komunikazioa oso mugatuta dauka. Idazten nion bakoitzean denbora luzea ematen zuen nik erantzuna jaso arte. Gerora, kostata, bisitak egitea lortu nuen. Jende askoren laguntza izan dugu, auzolanean egin dugu.

Eta oso esanguratsua da preso dauden herritarrek historiari halako ekarpen garrantzitsua eman izana.

**Zein izan da egin duzuen aurkikuntza garrantzitsuena?**

1853an Aretxabaletako herri-lurrak zer baldintzekin saldu zituzten deskubritu izana. Horrek arrazoia ematen dio *Malbe*-ri, bere betiko aldarrikapenari.

**Zer lortu duzue?**

Kontatu ez diguten historia jasotzea, eta asko ikasi dugu. Ondorengo belaunaldietarako oso interesgarria da. Are gehiago, gaur egun daukagun bizitzeko eredu zoroarekin.

**Eta zelan gogoratuko duzue *Malbe*?**

Pertsona bitxi eta xelebrea zen, baina ideia oso argiak zituena. Industriari bizkarra eman zion. Bere figura duindu dugu.

**Non eskuratu dezakegu liburua?**

Arrasaten erdialdeko bi egunkari kioskotan, Aretxabaletan Pagaldaixen eta kioskoan eta Eskoriatzan Inkernu tabernan.

**Beste zerbait esan gurako zenukete?**

Bai. Olentzerok jakinarazi digu ibarreko preso eta errefuxiatuek ere liburu hau Gabonetan jasoko dutela. Eurendako ere bada-eta.


Carrascal aroztegia
BERTAN EGINDAKO
EKUTIO KALEA 4, PAB. 14-15
URIBARRI AUZOA
20500 ARRASATE
Tel/fax.: 943 79 01 82
scarrasc_1@infonegocio.com
SUKALDEKO ALTZARIAK
HORMA-ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK
jai zoriontsuak guztioi!


Ordutegirik gabe
eta mundu guztiari
90x1 tarifa berria
Ordaindu minutu bat,
eta hitz egin 90 minutuz!
Edozein ordutan eta edozein operadorerekin
Kontratatu orain, eta eskuratu mugikor hauetako bat!
59€
NOKIA 5610
Menua euskaraz, MP3,
3G, 3,2 Mpx-eko kamera
"Jarri soinu-banda bizitzari"
15€
NOKIA 7610
MP3, Irratia,
3,15 Mpx-eko kamera,
"Diseinu erakargarria eta kolorez betea"
31/01/09 baino lehen egindako kontratazioentzat balio du sustapen honek. 90x1 tarifadun mugikor-linea berri bat kontratatzen duten Euskaltel Hautaketaren eta Euskaltel Leihoaren bezeroentzako balio du mugikorraren PSPak. 18 hilabete irauteko konpromisoa. Muga: 50 ale. Estatuko telefono finko eta mugikorretara deitzeko 90x1 tarifa. Kostua, minutuko, 21 zentimo. Deiaren ezartze-kostua: 15 zentimo. Hilean gutxienez 15 € kontsumitzeko konpromisoa. Muga: hilean 500 minutu. Tarifa honen sustapenak 2009/6/30era arte iraungo du. BEZa (% 16) ez dago sartuta.
ROUTER COMUNICACIONES, S.L
Errebal, 15, Eibar
943 700 369
Biteri Plaza, 4, Arrasate
943 71 27 81
Banatzaile Ofiziala
euskaltel

GABONAK

# Txoronpio eta Txoronpia goizean zeh


Jaiotza biziduna antzeztuko dute aurten ere. GOIENKARIA


Txoronpio eta Txoronpia umeen eskutitzak jasotzen. GOIENKARIA

MIREN ARREGI

**Eguberri egunarekin bat, Olentzeroren postariak –Txoronpio eta Txoronpia– eta Olentzero jaitsiko dira, mendian urte guztia eman ondoren.**

Iritsi dira hainbat eta hainbatentzat eta, inolako dudarik gabe, etxeko txikitxoenentzat magia bereziko egunak izan ohi diren Eguberri jaiak. Zalantzarik gabe, hilaren 24a da eurentzat egun bereziena, Olentzerok menditik jaitsi eta etxeetan opariak uzten dituen eguna. Egun berezi horretarako, etxeko txikienen irribarrea eta ilusioa pizteko hainbat ekintza antolatu dituzte Arrasaten. Hala nola, goizean zehar Txoronpio eta Txoronpiak, Olentzeroren postariek, umeen eskutitzak jasoko dituzte, gero Olentzerori mendira eroateko. Arratsaldean, nola ez, umeen begiak distiraka ipiniko dituen Olentzero jaitsiko da menditik, eta euren eskariak jasoko ditu zuzen-zuzenean. Umeen aurpegiek ilusioa eta poza adieraziko dute egun horretan, eta Olentzerok, eskatutakoa edo ez, baina ziur zerbait ekarriko duela. Besterik ez bada, ikatza.

**Txoronpio eta Txoronpia eta Olentzero menditik jaitsiko dira**

**ESKUTITZ BILA, MENDITIK**

Txoronpiok eta Txoronpiak, Olentzeroren postariek, herriko kale eta auzoak zeharkatuko dituzte abenduaren 24ko goizean zehar, herriko umeek Olentzerorentzat dituzten eskariak jasotzen dituzten eskutitzak jasotzeko. Goizean goiz hartuko dute gure mendi hotzetatik herrirako bidea, eta 11:40an Arrasateko kaleetan agertuko dira. Kalerik kaleko eta auzorik auzoko ibilbidea Munar auzoan hasiko dute. Hango umeen eskari eta eskutitzak jaso ostean, Uribe auzorako bidea hartuko dute Txoronpiok eta Txoronpiak. Handik, San Andres, Zigorrola eta Santa Teresa auzoak zeharkatuko dituzte, herriko hainbat musika eta kultura taldek lagundurik. Giro ezin hobea sortuko da Txoronpiok eta Txoronpiak egingo duten ibilbidean zehar; izan ere, Olentzeroren postariek gaitarien, txistularien eta trikitilarien musika doinuek alaituta egingo dute ibilbidea. Giro aparta sortuko da.

**26 URTE UMEEN ILUSIOA PIZTEN**

Badira 26 bat urte Txoronpiok Arrasateko kaleak zapaldu zituela, Olentzerori Eguberri eguneko lana arintzeko asmoz. Hain zuzen ere, 1982an lagundu zion lehenengoz Txoronpiok Olentzerori umeen eskutitzak jasotzen. Bospasei urte geroago, Txoronpioren emazte Txoronpia ere hasi zen postari lane-

CANAS - ESTEBAN
ERAIKUNTZAK
Santamas jai zoriontsuak arrasatear guztioi!
Uribarri kalea 20 behea. ARRASATE. Tel.: 943 79 81 80 / 77 11 63. Faxa: 943 79 81 80

GABONAK

# ...ar, Olentzero arratsalde eta gauean




Olentzerok ere herriko kaleak zeharkatuko ditu, eta umeen ilusioa piztu. GOIENKARIA

tan, batek bakarrik ezinezkoa zuelako herriko ume guztien eskutitzak jasotzea. Umeei eskutitzak idazteko lana errazteko asmoz, Komisiñuek ikastetxe guztietan banatu ditu eskutitza idazteko orriak. Lana errazteko ahalegina egin bai, baina, hala ere, ziur izugarrizko lana dutela Olentzerori zer eskatu erabakitzerakoan.

**OLENTZERO ERE BADATOR**

Txoronpio eta Txoronpiaren bisitak badu bere indarra, baina zerikusirik ez Olentzerok Arrasateko kaleak zapaltzearekin batera sortuko den zalaparta eta emozioarekin. Ume gehienak egoten dira data hauetan Olentzerok zer ekarriko pentsatzen, eta hilaren 24ko arratsaldeko seietan, Olentzerok herriko kaleetan barrenako ibilbidea hasiko du. Hain zuzen, Zaldibartik irten eta Portaloia, Otalora, Udala plaza, San Andres, Abaroa eta Zerkaosteta zeharkatu ondoren, Portaloira bueltatuko da Olentzero, eta Herriko Plazarako bidea hartuko du. Bertan, 19:30ean, Olentzerok herritarrak agurtuko ditu eta ondoren, mutil-dantza eta herri-dantza dantzatuko dituzte. Horren ostean, Olentzerok mendirako bidea hartuko du berriz, urtean lan handien izaten duen gauean, guztia primeran ateratzeko. Ea, bada, Arrasateko kaleetan barrena egingo duen ibilbideak ez duen askorik nekatzen, gau luzea izango du-eta Olentzerok aurretik.

Horrekin amaituko dira, beraz, aurtengoan, Gabon eguneko ekintzak; aurrez, baina, arratsalde partean, Herriko Plazan gaztaina erreak dastatzeko aukera egongo da, Olentzero noiz etorriko zain zaudeten bitartean.

**Errege magoak ospitalera ere joango dira gaixoei opariak eramatera**

## Errege magoek ere egingo dute Arrasaterako bidaia, opariak ekarri eta kabalgatan herriko kaleak zeharkatzeko

**Iturbide egoitzan hasiko dute urtarrilaren 5ean errege magoek kabalgata, eta herriko kaleetan barrena egingo dute ibilbidea. 19:00ean hasiko da kabalgata, baina aurrez, Iturbide egoitzako bizilagunei opariak banatuko dizkiete hiru erregeek. Errege magoek zaldi gainean, eta erromatarren, morroien eta danbor jotzaileen laguntzaz zeharkatuko dituzte herriko kaleak; ibilbidea Iturbide egoitzan hasi eta handik, Kontzezino kalea, Bañez Doktorea kalea, Foruen plaza, Udala plaza, Zarugalde, Otalora, Maalako Errabala, Portaloia eta Erdiko kalea zeharkatuko dituzte, eta Herriko Plazara iritsiko dira.**

**Plazan, Jesusen jaiotza eta erregeen etorrera antzeztuko dituzte. Horren ostean, errege magoak ospitalera joango dira gaixoei opariak eroatera.**



Errege kabalgatak. GOIENKARIA




angela
estetika zentroa
Zimur – kontrako tratamendua
eta aurpegi- gaztetzea
Kirurjia gabeko
lifting-a
Kolagenoa eta Elastina sortzen
dituen Euskadiko lehen tratamendua.
Emaitzak lehen saiotik.
RADIOFREKUENTZIA
85€
saioa
BIOS ITALIA Teknologiarekin
FOTODEPILAZIOAN
LIDERRAK
PROMOZIOA 1. Saioan
*Galtzarbeak
*Ingleak
40€
1 saioa
*Hanka erdiak
80€
1 saioa
*Hanka osoak
*Bizkar osoa
150€
1 saioa
Ferrerias 35 - 20500 Arrasate -Tel: 943 79 88 23
Bikain Egoteko Bi Modu

**JENDARTEA** > SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIA

# Helbide elektronikoa jarri du abian kofradiak, zalantzak argitzeko asmoarekin

Edozein argibide eska daiteke posta elektroniko bidez, eta bazkide egiteko eskaera egin ere bai

Urteko kuotak ez du igoerarik izango, baina sarrera kuotek bai, martxotik aurrera

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Ohiko batzarra egin zuen astelehenean norbait hil ondorengoetaz arduratzen den San Martin-San Jose kofradiak, eta kultur etxeko Zaraia aretoa bete egin zen. Hala ere, ez ziren bazkide asko batu, kontuan hartuta 4.100 direla.

Iazko diru kontuen berri eman zuten zuzendaritza batzordeko kideek eta 2009ko aurrekontua azaldu zuten. Gainera, zuzendaritza batzordeko kide berriak hautatu zituzten. Hona sartu diren kideak: Marta Madinabeitia Madinabeitia, Aitor Antxia Alberdi, Ignacio Astiazaran Antxia eta Arantzazu Jausoro Izurrategi. Presidente izaten jarraituko du beste urtebetez Juan Antonio Uribe Uriartek eta idazkari lanetan Xabier Gabilondo Sorotegik; eurekin daude, gainera, Amaia Berezibar Gomez eta Iñaki Uribeetxeberria Uribeetxeberria.

**URTEKO KUOTA: 16 EURO**
Urteko kuota mantendu egingo dutela datorren urtean iragarri zuten; hau da, 16 euro kide bakoitzeko. Iaz igoera nabarmena izan zuen kuota horrek –3,5 euro–, hildakoaren familiari ematen dioten laguntza ere igo egin zutelako 500 eurora.

Sarrerako kuoten taula –izena ematean ordaindu beharrekoa–, ostera, aldatu egingo dute, azken lau urteotan ez diotelako igoerarik aplikatu. Dena dela, martxora arte ez dira taula berriko tarifak aplikatzen hasiko; hortaz, oraindik sartu barik dauden aretxabaletarrei dei egin zieten zuzendaritza batzordeko kideek, lehenbailehen emateko izena kofradian.

Berrikuntza bat ere iragarri zuten: helbide elektronikoa du kofradiak. Hona: *aretxabaleta-kofradia@gmail.com*. Orain arte zuzendaritza batzordeko kideren batekin egon beharra zegoen edozein aldaketa edo bajaren berri emateko –oraindik ere egon daiteke. Hemendik aurrera, ostera, nahikoa izango da helbide elektronikora idaztea aldaketa, alta, baja, galdera, iradokizun eta beste edozein zalantzaren gainean kontsulta egiteko.

**ELKARTASUNA** > JAIALDIA

# Sahararako jostailu batzea bihar bukatuko dute, jaialdia eginda Iturrigorri frontoian

Argazki erakusketa, henna tailerra, apainketa tailerra, txokolate-jana eta dantzaldia izango dira


Jostailuak gordeta dituzte ludotekan, Saharara bidaltzeko. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Saharako umeak bizi diren Tindouf hiriko kanpamenduetan ludoteka egiteko asmoarekin, jostailuak batzen dabiltza Algara ludotekan. Iesbaa elkartearekin batera abian jarritako egitasmoa da, eta bihar egingo duten jaialdiarekin bukatuko dute. Iturrigorri frontoian izango da (17:00-19:30) eta ekitaldi hauek iragarri dituzte: argazki erakusketa, henna tailerra, apainketa tailerra, txokolate beroa eta dantzaldia Kanpanolue taldearekin. Txokolatea hartzeko euro bat eskatuko dute, eta batutako dirua ludotekarako margoak erosteko izango da.

Datorren astean, ostera, batutako jostailuak sailkatu eta kutxetan sartuko dituzte.

**IZENADUBA PARKERA IRTEERA**
Algara ludotekak eta Gazteria Sailak Mungiako Izenaduba parke mitologikora irteera antolatu dute 4 eta 6 urte arteko umeendako. Eskoriatzako eta Aretxabaletako umeak joango dira, eta 30 lagunendako daukate lekua; gurasoek ere eman dezakete izena baina umeek izango dute lehentasuna. Abenduaren 22an da eta prezioa 10 euro.

Bestalde, 7 eta 12 urte artekoendako Bilboko Gabonetako parkera antolatu dute irteera. Hilaren 23an da eta prezioa 10 euro.

Nahiz batera nahiz bestera joan gura izanez gero izena aurrez eman behar da Algara ludotekan edo Gazteria Sailean. Azken eguna eguena da, hilak 18.

> EUSKARA

### Ipuin kontaketa gaur eta sukaldaritza saioa astelehenean

Loramendi Euskara Elkarteak ipuin kontaketa saioa antolatu du helduendako. Gaur, egubakoitza, izango da (21:30) Azkena tabernan –Txikibar– eta hona ipuinak kontatzen jardungo dutenak: Joxe Mari Carrere, Beatriz Egizabal eta Eneko Barberena. Debalde da ekitaldia.

Eta astelehenean, hilak 15, sukaldaritza ikastaroa egingo dute Urbaltz elkartean (18:00). Oinarrizko ikastaroa izango da eta bereziki gazteei zuzenduta dagoela iragarri dute Loramendi EEko kideek. Ikastaro hori ere debalde da.

> BERTSOAK

### Hilaren 19ko bertso afarirako txartelak salgai daude

Bertso afaria egingo du Loramendi Euskara Elkarteak hurrengo egubakoitzean, hilak 19, Murualde elkartean (21:30). Sustrai Colina eta Amets Arzallus bertsolariak izango dituzte lagun eta paregabeko giroa sortuko dute guztien artean.

Afarirako txartelak dagoeneko salgai daude 15 euroren truke Loramendi EEn eta Gurea eta Urbaltz tabernetan. Hona afaltzeko izango duten menua: pikatzeko jakiak, entsalada, oilaskoa, gazta menbrilloarekin, kafea eta kopa.

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

((112))
SOS DEIAK

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITTU KOOP. ELK.
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

ELKARTASUNA > AZOKA

# Elkar Hezik Gobernuz Kanpoko Erakundeen azoka egingo du bihar

Euskal Herritik etorritako 12 erakundek jarriko dituzte postuak plazan

Besteak beste, garapen proiektu bat laguntzeko pin tailerra egingo dute


Iazko elkartasun azokako postuetako bat. ELKAR HEZI

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gabonak heltzearekin batera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Elkar Hezi ikastetxean. Besteak beste, gaur Belengo jaiotza irudikatuko dute, eta bihar Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GKE) elkartasun azoka egingo dute. Guztira, Euskal Herritik etorritako 12 erakunde elkartuko dira herriko plazan 10:00etatik 15:00etara. Besteak beste, Haurralde, Acnur, Manos Unidas, Euskadi-Kuba, Bidezko Merkataritza, Misiones Salesianas, Intermon-Oxfam eta Parrokiako Misio taldea elkartuko dira.

**HELBURU BIKOITZA**

Biharko elkartasun azokak bi helburu nagusi bete gura dituela diote Elkar Heziko ikasleek, irakasleek eta gurasoek: "Alde batetik, erakundeek egiten duten lana ezagutzera eman gura dugu; eta beste alde batetik, eurek ekartzen dituzten produktuak salgai jarriko dituzte". Bestalde, Batxilergoko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 50 ikasle azokako postu ezberdinetan egongo dira produktuak saltzen. Gainera, haima bat jarriko dute plazan.

**'MUNDUARI OPARI BAT' TAILERRA**

Elkartasun azokan *Munduari opari bat* delako tailerra egingo dute. Ekintza horrek pin tailer bat du abiapuntu. Haur bakoitzak bi pin egingo ditu: bat berarendako, eta bestea beste lurralde bateko umearendako. Beste haurrei oparitutako pin guztiekin horma-irudia egingo dute haiman. Pin-en salmentarekin jasotako dirua herrien garapenerako proiektuak lantzen dituen erakunde batendako izango da.

Bestalde, tea hartu eta munduko musikariekin gozatzeko aukera izango dute plazara hurbiltzen diren guztiek.

**BELENGO JAIOTZA**

Elkar Heziko Haur eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoek Belengo jaiotza irudikatuko dute gaur. Etxaluzetik irtengo dira, eta kalerik kale joango dira plazaraino. Han, Jesus haurtxoa gurtzeko aukera izango dute guztiek. Elkar Heziko ikasleak mozorrotuta joango dira.

Bestalde, gaur, Santa Marina ikastetxean Sahara, Haiti, Peru eta Nikaraguako egoeraren gaineko hitzaldia egingo dute 14:45ean. Elkar Heziko ikasle ohi Moha, Bittor de Marcos eta Ana Carpinterok egingo dute berba.

**GABONETAKO PARKERA IRTEERA**

Gabonei begira antolatu dituzten ekitaldien artean, Bilboko Gabonetako haur parkera irteera egingo dute abenduaren 26an. Autobusa 10:00etan irtengo da Oñatitik, eta 18:00etan Bilbotik.

DEIALDIA

## Inauteriak antolatzeko deialdia egin du Oñatzek

M.B. > OÑATI

Oñatz dantza taldeak 2009. urteko inauteriak antolatzen hasteko deialdia egin du herritarren artean. Lehen bilera bihar egingo dute, 12:00etan Errekaldeko lokalean. Ondoren, eguaztenero eta zapaturo elkartuko dira toki berean. Eguaztenetako entseguak 20:00etan egingo dituzte, eta zapatuetakoak 12.00etan.

"Entseguekin hasi aurretik jakin gura dugu zenbat lagun animatuko diren. Oraindik ez dugu erabaki ze dantza egingo ditugun, lagun kopuruaren araberakoa izango da. Baina, aurtengo inauteriek izandako arrakasta ikusirik, erantzun ona espero dugu. Herritar guztiak gonbidatu gura ditugu", esan digu Jesus Irizar *Txutxin*-ek.

GABONAK > ARGITERIA

## Argi-arkuak bihar piztuko dituzte urtarrilaren 7ra arte

Astigarragako Maykolux enpresak 28 argi-arku jarri ditu herriko kale eta auzoetan, 13.995 euroren truke

M.B. > OÑATI

Gabonetako argiteria bihar piztuko dute. Lanak emateko baldintzetan zehazten den moduan, urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta herriko kaleetako eta auzoetako argiarkuak. Asteon ibili dira Maykolux enpresako langileak muntaia egiten.

Azaroko osoko bilkuran erabaki zuten lanak Astigarragako enpresak egingo zituela 13.995 euroren truke. Bi enpresek aurkeztu zituzten proposamenak, baina Oñatin argiak jartzen duen esperientziagatik, eta egindako proposamen estetikoagatik Maykoluxen eskaintza onartu zuen udalbatzak.

**DIRU GUTXIAGO**

Azken urteotako joera mantenduz, diru gutxiago gastatu du Udalak Gabonetako argiak ipintzearren. Hortaz, herriko kaleetan eta auzoetan jarri dituzten argi-arkuen kopurua ere txikitu egingo dute. Hortaz, guztira 28 jarri dituzte: hain zuzen ere, Kale Barrian 10 argi-arku; Kale Zaharrean, Lizaur kaleko bidegurutzeraino 6 arku; eta San Juan kalean, Santa Marina plazan, Bidebarrietan, Olakua eta San Lorentzo auzoen arteko errepidean, Euskadi Etorbidean, Otadui Zuhaiztian, Zubillagan eta Olabarrietan, arku bana.

MUSIKA > GABONETAKO KONTZERTUA

## Etzi egingo dute parrokian Gabonetako kontzertua

Parte hartuko dute Ganbara Txikik, Ganbarak Oñati abesbatzak, Parrokiako koruak, Ikastolako abesbatzak eta Musika Bandak

M.B. > OÑATI

Urtero moduan Gabonetako kontzertu erraldoia prest dute herriko musikariek; hain zuzen ere, domekan egingo dute. Udal Musika Banda, Oñati Abesbatza, Parrokiako Korua, Ganbara abesbatza; Txantxiku Ikastolako abesbatza eta Ganbara Txiki abesbatza Mikel Deuna parrokian elkartuko dira 19:00etan. Kontzertua hasteko, Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandak bi pieza eskainiko ditu. Ondoren, Ganbara Txiki abesbatzaren txanda izango da. Aitor Biainen zuzendaritzapean *Angelus* eta *Zapata Txuria* abestuko dituzte. Kontzertuaren bigarren zatian, talde guztiek elkarrekin abestuko dute musikarien laguntzarekin. Alde batetik, gabon kantak abestuko dituzte (besteak beste, *Adeste Fideles* eta *Gauaren erdian*). Beste alde batetik, Aita Madinaren *Aita Gurea* abestuko dute. Kontzertua bukatzeko euskal kantak abestuko dituzte guztiok batera; besteak beste, *Guk euskaraz*, *Nere herriko neskatxa maite* eta *O, Peio, Peio*.

Bestalde, domekako kontzertuan Beningo (Afrika) Natintingou herrian eraikiko duten eskolarako diru bilketa egingo du misio taldeak.



Bidegorriaren trazatua egiteko hogeitaka urtetan itxita egon den tunela –hilerri azpian dagoena– zabaldu egingo dute. IKER BARANDIARAN

**AZPIEGITURAK** > BIDEGORRIA

# Bidegorriaren hilerrirainoko tramua lizitaziora atera dute

949.714 euroko aurrekontua izango dute lanek eta bost hilabeteko iraupena aurreikusi dute

Aspalditik itxita dagoen tunel bat irekitzeak lanak zailduko dituela ohartarazi dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorreko Sailak jakinarazi du Arrasate eta Leintz Gatzaga artean aurreikusita duten bidegorri proiektuaren beste tramu baten lanak lizitaziora atera behar dituztela. Tramu hori Eskoriatza eta hilerriaren artekoa da, eta baldintzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu berri dituzte. Bertan aurki daitezke kontratazio eta esleipen espedienteak.

Lanok 2009ko udaberrian hasi gura dituzte eta aurreikusita dago bost hilabetean bukatzea.

**949.714 EUROKO AURREKONTUA**

Tramu berri horri dagozkion lanek 949.714 euroko aurrekontua izango dute.

Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Saileko arduradunek jakinarazi dutenez, lan nahiko konplexua izango da, trazatu barruan dagoen tunelaren iparraldeko ahoa estalgabetu barik dagoelako eta tunelaren zati bat GI-627 errepidearen lubeta baten azpian dagoelako. Hortaz, tunela egonkortu, egokitu eta argiztatzeko lanek zeregina zailduko duten aurreikuspena dute.

**BESTE TRAMUAK ABIAN DAUDE**

Bestalde, Aldunditik azaldu dute Aretxabaleta-Eskoriatza iparraldeko zatia abian dagoela aspalditik; eta GI-627 errepidearen paraleloan, Eskoriatzan bertan, Aingeru Guarda-Sorautz zatiko lanak egiten dabiltzala. Dena dela, azken zati horren lanek zelanbaiteko atzerapena izan dute dagoeneko.

Behin aipatutako bi zatiak bukatzen dituztenean, Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate ingurunea lotuko dituen bidegorriak sei kilometroko luzera izango du, eta malda oso arinak.

**ASPALDIKO TUNELA AZALERA**

Bestalde, bidegorriaren lanari esker, orain dela 20 bat urte sarrera bat itxi zioten tunela berriro erabilgarri egongo da. Izan ere, sarrera bat nahita itxita dauka, eta bestea sasiz-eta estalita dago denboraren eta utzikeriaren erruz.

**LEHIAKETA** > GABONAK

## Iñigo Urrutiak egin du christmas digital saritua

**I.B.** > ESKORIATZA

Udalak Iñigo Urrutia eskoriatzarrari eman dio christmas digital onenaren saria: 300 euro. Bitxikeria moduan, lehiaketa horren lehenengo edizioa ere Urrutiak berak irabazi zuen.

Christmas digital hori ikusgai eta erabilgarri dago Udalaren webgunean, bai irabazlea, eta baita aurkeztu dituzten beste hirurak ere.

**GUSTUKOENA ERABILI**

Hain zuzen ere, gura duenak webgunean aurkituko dituen irudiak aukeratu eta bere gustura erabili ahal izango ditu.

Sarituak honako leloa dauka: *Firin faran/ edonora zoazela/ kontu handiz joan/ Gabon honetan/ mesedez, ez egin laban.*

Epaimahaiak kontuan hartu du mugimendua, musika, mezu originala eta Eskoriatza agertzea.




Epaimahaiak aukeratutako christmas digitala. IÑIGO URRUTIA

> KOMUNIKABIDEAK

### Pedro Lasagabaster alkateak galderak erantzungo ditu

Goiena Telebistaren *Magazinea*-n izango da Pedro Lasagabaster alkatea eguenean, hilaren 18an. Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzungo ditu 19:45ean hasiko den zuzeneko saioan. Ikusentzuleek ere, ordea, izango dute telefono bidez edo Internet bidez alkateari euren galderak edo kezkak azaltzeko aukera.

Galderak telefonoz egitekotan, 943 25 05 03 zenbakira deitu beharko dute interesatuek eta zuzenean egingo diote galdera alkateari berari. Internet bidez egitekotan, mezuak honako helbidera bidali beharko dira aldez aurretik: *magazinea@goiena.com.*

> MUSIKA

### Benito Lertxundik kontzertua egingo du urtarrilaren 30ean

Dagoeneko jakinarazi dute Benito Lertxundik Arrasateko Amaia Udal Antzokian egingo duen kontzerturako sarrera guztiak agortu direla. Hala ere, bada beste aukera bat ibarrean Orioko musikari handiaren ikuskizunaz gozatzeko. Hain zuzen ere, urtarrilaren 30ean Eskoriatzako Udal Kiroldegian izango da Lertxundi.

Benito Lertxundik *Itsas Ulu Zolia* disko berria aurkeztuko du Udal Kiroldegian. Hainbat urtetako etenaldiaren ondoren, itsasoari omenaldia egiten dion diskoa kaleratu du. Bertan, hamar abesti batu ditu. Sarrerak ohiko saltokietan eskuragarri izango dira urtarril hasieratik aurrera.

> ISTRIPUA

### Gizonezko bat zauritu zen Marinen, traktoretik jausita

Martitzen eguerdian, 54 urteko eskoriatzar batek istripua izan zuen Marin auzoan, Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera. Zauritutako gizonak kolpeak hartu zituen buruan eta horren ondorioz Arrasateko eskualde ospitalera eraman zuten. Hala ere, zauritutako gizona kontziente eraman zuten eskualde ospitalera.

Zehazki, errepidea garbitzeko makina bat izan zen irauli zena, eta hura gidatzen zebilen gizona izan zen zauriak izan zituena. 12:50ean gertatu zen istripua, Marin auzoko errepidean, baina zirkulazioan ez zuen eragozpenik eragin.

**MUSIKA** > GABONETAKO KONTZERTUA

# Musika Eskolako ikasleen kontzertua astelehenean

Txikienek abestuz eta gaztetxoek musika tresnekin eskainiko dute urteroko saioa, 18:30ean hasita, udaletxeko areto nagusian


Hainbat musika tresna entzuteko aukera izango da ikasleen eskutik, tartean soka instrumentuak. MUSIKA ESKOLA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA
Gabonak gertu daudela-eta, urtero egin ohi duten moduan, Musika Eskolako ikasle antzuolarrek kontzertua eskainiko dute abenduaren 15ean, astelehenean, udaletxeko areto nagusian, 18:30ean. Ahots teknika eta koral eskoletan dihardutenek, 25 inguruk, hasiko dute emanaldia. Guztira lau abesti eskainiko dituzte: *Animalien abestia* txikienek; eta *Titili eta Tatala*, abesti afrikar bat eta *Oh Night* kantua koralekoek.

Instrumentuen txanda izango da gero. Soka instrumentuetan antzuolar bakarra izango da eta bergararren laguntza izango du. Biolina, biola eta biolontxeloa joko dituzte. Saxofoi taldeak flauta jolea izango du lagun, eta gero, akordeoi jole batek, trikitilariek eta piano eta gitarra joleek jardungo dute; horiek guztiak, Antzuolako ikasleak.

Musika Eskolakoek esan digute azken urteotan jende asko gerturatu izan dela musikaz gozatzera. Hortaz, aurten ere kontzertuaren arrakasta errepikatzea espero dute.

**LIZARRALDEREN OMENEZ**
Gabonetan izango da beste kontzerturik: abenduaren 27rako Gabon kantu jaialdia antolatu dute Juan Antonio Lizarralderen omenez. Parrokian, 18:30ean.

> EUSKARA

## Kontseiluaren jaira joateko autobusa bete egin da

*Euskaraz bai, pauso bat harago* lelopean Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluaren 10. urteurreneko jaia izango da abenduaren 13an, zapatuan, Barakaldon, BECen. Jaialdira joateko autobusa antolatu du Udalak, eta, izenematea amaituta, autobus bat bete dutela jakinarazi digute; 60 lagun joango dira autobusez. Izena eman dutenendako hitzordua da 16:00etan Sagastiko geltokian. Ekitaldia 18:00etan hasiko da Bizkaia Arena aretoan.

**JAIAK** > SANTO TOMAS AZOKA

## Animaliak eta gozogintza eskaintza izango dira hilaren 19an frontoian egingo duten ferian

Eskolako umeek eta guraso elkartekoek nahi adina jateko banatuko dute

**I.A.** > ANTZUOLA
Santo Tomas egunaren aitzakian eskolako umeek azoka egiteko ohitura dute, eta aurtengoa abenduaren 19an izango da, 14:30ean, pilotalekuan.

**ANIMALIETATIK PASTELETARA**
Garai batean, animaliak ziren nagusi azokan. "Etxeko animalia txikiak ekartzen zituzten, batik bat, baina orain, gero eta animalia gutxiago dira", esan digu Antxon Biteri irakasleak. Pixkanaka, animalien lekua umeek etxean egindako pastelek, tartek, pastek, gailetek… hartu dute, eta azokara gerturatzen direnek horiek dastatzeko aukera izaten dute. Jateko gozoak ez ezik, Pausoka guraso elkartekoek gertatutako txistorra ere izango da, eta txokolatea ere emango dute.

Azokan ohikoa da zozketa ere. Txerrikumea zozketatzen zen lehen, baina askok nora eraman ez zeukatenez, txerriki sorta izaten da orain saria.

Ume eta senide, jende asko gerturatzen da azokara eta "umeek ilusioz gertatzen dituzte azokarako gozokiak", esan digu Antxon Biterik.

**bere ustez**


Jone Lete

## Ni banoa BECera, eta zu ba al zoaz?

Larunbaterako, abenduaren 13rako, BECen Kontseiluak bere hamargarren urteurrena dela-eta ekitaldia antolatu du.

Orain dela hamar urte hainbat euskaltzalek bost estadio leporaino bete genituen, denok batera *Bai euskarari* esateko. Ordutik hamar urte pasa dira eta atzo izan zela dirudi.

Ni garai hartan hamar urte gazteagoa nintzen eta nire bizitza ia osoa, osoa ez esateagatik euskaraz egiten nuen.

**"Euskaraz bizitzeko eskubidea dugulako horren alde borrokatu behar dugu"**

Hamar urte geroago konturatzen naiz leku guztietan ezin dela euskaraz soilik hitz eginda bizi, eta horrek tristatu egiten nau.

Horregatik larunbatean ni banoa BECera. *Bai euskarari* esan beharrean *Euskaraz bai* esateko unea iritsi zaigulako. Esan eta egin!

Euskaraz bizitzeko eskubidea dugulako eta horren alde borrokatu behar dugulako.

Bertaratuko den jendeak euskararen normalkuntza eta euskaraz bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatuko du. Beraz, orain dela hamar urte bost estadiotan egin bezala larunbatean estadio bakarra leporaino bete dezagun gure ahotsez eta indarrez guztiok *Euskaraz bai* aldarrikatuz!

Ni banoa, eta zu?

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**KIROLA** > AZOKAK

# Gertu, bigarren eskuko kirol materialaren azoka

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Gaur arratsaldean, 18:00etan, zabalduko ditu ateak kultura etxeko lehenengo solairuan Elgetako bigarren eskuko kirol materialaren I. azokak. Udalaren ekimena da, eta, lerrook idazterakoan, herritarrek eramandako hainbat gauza zituzten jasota herriko etxean: besteak beste, bi bizikleta, eskiak, snow taula, patinak, mendiko botak, baloiak... guztiak, saltzailearen izenarekin eta salneurriarekin. Azoka zabalik egongo da gaur 18:00etatik 20:00etara eta bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara.

**TRUKE AZOKA**
Gaztetxeak, berriz, truke azokarako dei egin du. Zapatuan egingo dute, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, gaztetxoa zegoen lokalean. Diru kontuak alde batera utzi eta erabiltzen ez ditugun gauzak elkartrukatzea proposatzen dute.

**ERRETIRATUEN MERIENDA**
Elgetako erretiratuek urte amaierako merienda egingo dute gaur, barikua, Ozkarbi elkartean. Elkarteko zuzendaritza batzordeak deituta merienda egingo dute, 17:00etan hasita. Urteroko hitzordua dute, "amaitzen den urtea agurtu eta berriari ongietorria emateko", esan dute. Eta zuzendaritzatik adierazi dute elkarteko bazkide guztiei egindako gonbita dela hori.

**GABON KANTUAK IKASTERA**
Gabonetako kantuak elkarrekin ikasteko entsegua egingo dute gaur, 18:00etan, Herri Eskolako musika gelan. Maala guraso elkartearen ekimena da. Nahiko lukete Gabon egunean, hilak 24, ahalik eta herritar gehien eskolako taldearekin kalerik kale abestera irtetea.


Bigarren eskuko kirol materialaren azokan saltzeko lagatako zenbait gauza. L.Z.


Barikuan Udal Pilotalekuan argazkia atera zuten deialdiarekin bat eginez. L.Z.

**DEIALDIA** > KONTSEILUAK, X. URTEURRENA

## Elgetan ere, hainbat ekitaldi Kontseiluaren festa dela-eta

### Bihar, zapatua, BECen egingo den ekitaldira joateko dei egin du Elgetako lantaldeak

**L.Z.** > ELGETA
"Argi daukagu euskararen normalizazioa posible dela eta euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea dela horretarako gakoa. *Euskarari bai* esatetik, *Euskaraz bai* aldarrikatzeko unea heldu da. Euskal Herria euskalduntzeko bidean pauso bat haratago eman behar dugu". Kontseiluaren X. urteurrena dela-eta Elgetan osatu den lantaldeko kide Idoia Urgoitiaren hitzak dira. Azaroan bi ekitaldi egin dituzte herrian, urteurrenaren garrantzia azpimarratzeko: hitzaldi bat eta aurreko barikuan egindako herri argazkia.

**BEC-ERA JOATEKO DEIALDIA**
"Denoi hitzordua luzatzen dizuegu zapatuan, hilak 13, Barakaldoko BECen 18:00etan hasita egingo den ekitaldian parte hartzera", adierazi dute.

> KALERATZEA

### Kale bilkura deitu du gaurko LAB sindikatuak, Recydeko langile baten kaleratzea salatzeko

LAB sindikatuak deituta eta Recydeko langile baten kaleratzea salatzeko, kale bilkura egingo dute gaur, barikua, 12:00etan, herriko plazan. Zuzendaritzaren portaera salatu du sindikatuak, bere esanetan kaleratzea "inolako aurre-abisurik eman gabe" egin delako, eta "jakinarazpena emateko modu bortitzarengatik". Zuzendaritzak, berriz, ukatu egin ditu salaketa horiek. "Espediente bat baino gehiago zituen zabalduta langile horrek. Ez dago gure proiektuarekin identifikatuta eta bere lanerako jarrera ez zen ona", adierazi dute.

> OSASUN ETXEA

### Maite Odriozola oñatiarra asteon hasi da Elgetako osasun etxean praktikante lanak egiten

Azken 17 urteotan Nestor Maidaganek Elgetako osasun etxean egin duen lana Maite Odriozola oñatiarrak egingo du aurrerantzean. Asteon hartu du kargua praktikante berriak.

Osakidetzak berriki egindako oposizioak gaindituta lortu du Elgetako praktikante plaza Odriozolak. Nestor Maidagan arrasatearra Eskualde Ospitalera bidali dute. Praktikante berriak asteon hartu ditu lehenengo elgetarrak osasun etxeko kontsultan. Aurrerantzean hura aurkituko dugu lanpostu horretan.

> MUSIKA

### Danbaka musika lehiaketa gaur Espaloian eta hiru talderen emanaldia bihar, zapatua, gaztetxean

Gaur, barikua, egingo da Espaloian Danbaka musika lehiaketaren bosgarren saioa. Flipin Folk (Ermua-Eibar), Rock Privado (Oñati-Donostia), The Wet Band (Mutriku) eta Turboshit (Bergara) dira taldeak.

Ez da aste bukaeran Elgetan izango dugun kontzertu bakarra. Gaztetxeak gonbidatuta, zapatuan hiru taldek egingo dute emanaldia herrian. No Hay Soluzion, Punk! Tapie eta Deficiencia Rock izango dira gaztetxean, 22:30ean.

**4 t'erdiko pilota txapelketa**

## Txapelketa erregularreko azken saioa

**L.Z.** > ELGETA
Aurreko astean okerreko informazioa agertu zen albiste honetan. Finalerdiak ez dira aste bukaera honetan jokatuko, baizik eta hurrengoan. Jaiegunotan txapelketa erregularreko azken jardunaldia jokatuko dute parte-hartzaileek. Domekako partiduen ostean ezagutuko ditugu, beraz, finalerdietarako sailkatu diren zortzi bikoteen izenak, lehenengo lau sailkatuak kategoria bakoitzean.

Lehiak azken egunera arte iraungo du; izan ere, kategoria bietan lehenengo hiru postuak ziurtata badaude ere, borroka dago oraindik laugarren txartelerako.

| 40 URTETIK GORAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Asier Morales - Fernando Zenitagoia | 8 | 6 | 2 |
| **2.** Alex Arantzabal - Alberto Telleria | 7 | 6 | 1 |
| **3.** Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre | 7 | 6 | 1 |
| **4.** Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga | 7 | 4 | 3 |
| **5.** Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre | 7 | 3 | 4 |
| **6.** Koldo Goenaga - Roberto Basauri | 7 | 3 | 4 |
| **7.** Juan Carlos Errasti - Jesus Belamendia | 7 | 2 | 5 |
| **8.** Pello Larrea - Mikel Elkoro | 7 | 1 | 6 |
| **9.** Joseba Arbulu - Julio Calleja | 7 | 1 | 6 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** David Peñalver - Txomin de Vega | 6 | 6 | 0 |
| **2.** Etor Garate - Unai Alkorta | 6 | 6 | 0 |
| **3.** Enrike Elkoro - Oier Billa | 6 | 4 | 2 |
| **4.** Samu Gorrotxategi - Asier Osoro | 6 | 3 | 3 |
| **5.** Mikel Ormaetxea - Iraitz Bolinaga | 6 | 2 | 4 |
| **6.** Gorka Arizmendiarrieta - Oxel Erostarbe | 6 | 2 | 4 |
| **7.** Igor Irazabal - Gaizka Bolinaga | 6 | 1 | 5 |
| **8.** Jose Monterroso - Satur Ramos | 6 | 0 | 6 |

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

CIE Recyde
CIE RECYDE, S.A.U.
Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
www.cieautomotive.com
AENOR
ER-0182/2/96
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949




Maider Unda, Olinpiar Jokoetan borrokan. WWW.MAIDERUNDA.COM

**Maider Unda** > Borrokalaria

# "Borroka librea ez da telebistan ikusten duguna: kolpeek ez dute balio, teknika da garrantzitsua"

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

**Maider Undak borroka libreko erakustaldia egingo du domekan, 12:00etan, Aramaioko kiroldegian; helburua da borroka librea ezagutzera ematea. Hori horrela, aramaioarrek hobeto ulertuko dituzte aurrerantzean Maider Underen borrokaldiak, eta baita emaitzak ere. Hain justu, borroka librearen gainean jakin beharreko zenbait kontu aurreratu dizkigu Undak elkarrizketa honetan.**

**Zelan azalduko zenuke zer den borroka librea?**

Nik bizi guztian egin dudan zerbait da, eta zaila egiten zait deskribatzea. Baina argi utzi nahiko nuke ez duela zerikusirik telebistan ematen duten borroka librearekin. Labur esanda, borroka librea teknika bidez puntuak lortzean datza. Kolpeek ez dute balio. Borroka baino gehiago teknika da.

**Nola lortzen dira puntu horiek?**

Teknika desberdinak daude, aurrez finkatuta daudenak. Aurkaria lurrera botatzeko erabiltzen dituzun tekniken arabera puntu gehiago edo gutxiago lortzen dituzu. Adibidez, aurkaria lurrera bota eta alde batera edo bestera biratzen baduzu, bi puntu lortzen dituzu. Horrez gain, *tocado* deitzen zaion mugimendua ere badago: aurkariaren sorbalda segundo pare batean lurraren kontra mantentzea lortzen baduzu, borroka irabazita daukazu. Boxeoan KO moduan ezagutzen dena litzateke.

**Zenbat irauten dute borrokaldiek?**

Hiru borrokaldi egiten ditugu, bakoitza bi minutukoa. Lehenengo biak irabazten badituzu, gainera, ez daukazu hirugarren borrokaldia egin beharrik.

> **"Aurkaria lurrera botatzen erabilitako teknikaren arabera lortzen dira puntuak"**

> **"Borroka librearekin ikasi dut zer den diziplina, eta lagunaren errespetua irabazten ere ikasi dut"**

**Domekan erakustaldia egingo duzu. Zergatik uste duzu dela borroka librea hain kirol ezezaguna?**

Dirurik ez dago borroka librea promozionatzeko, eta ondorioz, interes gutxi pizten du. Hori argi ikusi dut nik. Lehen, nesken borroka librea ez zen olinpikoa eta oso neska gutxik egiten genuen kirol hori. Orain, olinpikoa da, diru gehiago dago eta, gainera, emaitzak lortu ditugu. Gero eta neska gehiago gabiltza, orain, borroka librean.

**Zer gomendatzen diezu borroka librean hasten ari direnei?**

Pazientzia izateko, emaitzak ez dira lehenengo egunean lortzen-eta. Esango nieke, bestetik, asko ikasten dela. Niri, adibidez, borroka librean ikasitakoak asko lagundu dit eguneroko bizitzan. Borroka librearekin ikasi dut zer den diziplina, jarrera egokiak zeintzuk diren, eta lagunaren errespetua irabazten ere ikasi dut.

**NEKAZARITZA** > HITZALDIA

# Ortuen zaintza ekologikoa eta ongarriak izango ditu hizpide Biolur enpresak

### Abenduaren 18an izango da hitzaldia eta ongarri naturalen inguruan jardungo du Leire Ibarretxek

**A.B.** > ARAMAIO

Biolur enpresak Aramaion nekazaritza ekologikoaren inguruan egingo duen bigarren hitzaldia da abenduaren 18koa. Oraingoan *Ongarri eta fitosanitarioak* da hitzaldirako aukeratutako izenburua. Biolur enpresako koordinatzaile Leire Ibarretxe izango da gidaria. "Aramaion egin genuen lehenengo hitzaldian baratzezaintza ekologikoaren oinarriak azaldu genituen. Jendeari asko gustatu zitzaion gaia, eta orain, zaintza ekologiko horretan sakontzeko eskatu digute. Horixe da, hain justu, datorren martitzeneko hitzaldian egingo duguna. Oinarriak ezagututa, orain, ongarriak izango ditugu hizpide. Alegia, zein ongarri ekologiko diren aproposak, esaterako, izurriteei aurre egiteko. Produktu naturalak eta ekologikoak erabiltzen ikasiko dute hitzaldi honetan", azaldu du Leire Ibarretxek.

Alaiak erretiratuen elkarteak antolatutako hitzaldia da eta euskaraz izango da. 17:00etan hasiko da, kultura etxean. Erretiratuek baratzeak dituzten pertsona guztiak animatu nahi dituzte hitzaldian parte hartzera.



GOIENKARIA

# Etxaguen, zurituta eguaztenean

Eguaztenean Aramaioko auzo garaienetan elur asko egin zuen eta zelaiak zurituta ikusi genituen. Argazkian ikusten den moduan, Etxaguen auzoa zuri-zuri zegoen eguazten eguerdian. Gantzagan ere baserrietako teilatu eta zelaiak zuritu egin zituen elurrak. Errepideetan, baina, ez zuen arazo handirik eragin.

**GABONAK** > SUKALDE IKASTAROA

# Gabonetan afari goxoa gertatzeko ikastaroa antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak

**A.B.** > ARAMAIO

*Gabonetako menua*. Horrelaxe ipini dio izena Txirritola elkarteak datorren martitzenean, abenduak 19, Aramaion eskainiko duten ikastaroari. Gabonak gainean ditugu eta Gabon gaueko menua pentsatzeko unea ere iritsi da. Hain justu, horretan lagunduko die martitzenean ikastaroan parte hartuko dutenei Arrasateko Aldape tabernako sukaldari Agurtzane Martiarenak. Familiarekin ondo geratzeko menu goxoa proposatzen du Martiarenak: lehenengo, krabarroka budina; bigarren plater moduan, porru pastela; eta amaitzeko, polboroiak. Horiek guztiak nola prestatu irakatsiko du.

Ikastaroa 18:30ean hasiko da, erretiratuen txokoan. Sukaldean ere euskara sustatzea da helburuetako bat.

> ZINEMA

## 'Go!azen' film musikal famatua ikusteko aukera izango da domekan kultura etxean

Euskal Herriko zinema areto guztiak goraino betetzen ari den filma Aramaiora iritsi da. Horrenbesteko arrakasta izaten ari den *Go!azen* filma eskainiko dute domekan Aramaioko kultura etxean. Apaiz batzuek zuzentzen duten diziplina gogorreko udaleku batean gertatzen da istorioa, eta bertan dauden 16 urteko neska-mutilen abenturak kontatzen ditu, musika eta koreografiak oinarri hartuz.

Proiektu hori sortzeko ideia *High School musical* izeneko film musikalean dago oinarrituta. *Go!azen* filmean, *Lau teilatu*, *Aitormena* eta Ken Zazpi taldearen *Ilargia* abesti famatuak entzuteko aukera egongo da, besteak beste.

**AZPIEGITURAK** > UR-DEPOSITUA

# Ur-deposituak baldintzatuko du Arlaban gaineko plana

Arlaban inguru guztia arautuko du planak eta turismoa erakartzeko izango da

Herrian badago lurra etxebizitzak egiteko eta Udala gertu dago lagundu eta kontuak errazteko




Herria urez hornitzen duen depositutik bidaliko dute ura depositu berrira, proiektuak aurrera egiten badu. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Eusebio Villar alkatea izan zen abenduaren 4an GOITBko *Alkatearekin zuzenean* saioan eta herriko kontuak izan zituen berbagai. Arlaban gaineko plan bereziaren helburua Gatzagain eta Arlaban inguru guztia arautzea dela jakinarazi zuen. Gainera, herrian ez dago lantegirik eta turismoa da bizibidea, hortaz, turismo alorra erakartzeko ere badela argitu zuen. Nekazal eta abeltzaintzarekin zerikusia duten enpresendako ere egingo dute lekua Arlabanen, Jakion eta antzeko enpresendako, esaterako. Onartu zuen Villarrek inguru horretako lur jabe guztiak ez daudela konforme, eta urtarrilaren 2a arte dute epea alegazioak aurkezteko. Jabe horiek aurreikusitakoa baino lur gehiago gura dute eraikitzeko –17 hektareatik %5–, eta alkatea berba egin eta eurekin ados jartzeko gertu azaldu zen.

Baserriak hainbat etxebizitzatan banatu ahal izateko arau subsidiario bat aldatzea onartuta dauka Udalak. Gazteak herrian geratzeko bideak samurtzea dela helburua esan zuen. Horren haritik, aipatu zuen herrian bertan ere badagoela lurra etxebizitzak eraikitzeko: "Udala ezin da eraikitzen hasi, baina gertu dago laguntzeko. Kooperatiba edo pribatu baten eskuetan utzi edo Jaurlaritzari eman eta babes ofizialekoak ere egin daitezke".

**UR-DEPOSITUAREN PROIEKTUA**

2009ko Udal aurrekontuaren zirriborroa dagoeneko eginda daukate, baina Landagipuzkoaren erantzunaren zain daude. Izan ere, Udalak egin gura duen proiektu garrantzitsuenetakoa ur-depositua da. Asmoa da Gatzagain inguruan eraikitzea eta bertara herria urez hornitzen duen depositutik eroatea ura. Gainera, ur zikinak bideratuko lituzkete. Depositu berriak Gaztainuzketako mendi etxeek uda partean duten ur arazoa konponduko luke eta Arlabanen egingo liratekeen turismorako eraikin eta enpresak hornituko lituzke. Proiektu horrek, baina, 550.000 euroko aurrekontua dauka, eta kontuan hartuta Gatzagaren urteko aurrekontua 400.000 euro ingurukoa dela, Udalak ezingo du bakarrik egin. Udalerri txikiei laguntzeko sortutako Landagipuzkoa egitasmora egin dute laguntza eskaera. Era berean, laguntza hori pilotalekua guztiz ixteko ere erabili gura du Udalak.

**TRANSFORMADORE BERRIA**

Transformadorea aldatzeko lanak aurrera doazela iragarri zuen. Udalak Iberdrolari erosten dio argindarra gero herritarrei banatzeko; gainera, herritarrek eskatu dute Udalak jarrai dezala bitartekari lanak egiten. Transformadorea, baina, zahartuta zegoen, eta argi barik geratzeko arriskurik ez izateko, aldatzea erabaki du Udalak aurten. Laster bukatuko dituzte lanok eta berritik jasoko dute argindarra.

HERRIKO ZERBITZUAK

## Zerbitzuen gabeziak onartu zituen alkateak

Debagoieneko herririk txikiena da Leintz Gatzaga, 250 biztanlerekin. Denda bakarra dago, taberna eta turismo bulego lanak betetzen dituena eta iragarri zuen alkateak Udalak diruz lagundu beharko duela, aurrera egiteko. "Baina ez da gabeziak dituen zerbitzu bakarra: autobus zerbitzua ere eskasa da eta taxi zerbitzu gutxi daukagu", esan zuen. Gatzagatik pasatzen den errepidea ez dela batere aldatu 200 urtean gaineratu zuen; hala ere, ez du uste autobidea zabaltzerakoan autoak gutxituko direnik. Gasa ez dela Gatzagaraino iritsi salatu zuen, eta Udalak jarri behar izan duela; eta telefono zerbitzua ere hala-moduzkoa dela.

DATUA

**550**

**MILA EURO**

Gatzagain inguruan ur-depositu berria egin eta ur zikinak behar bezala bideratzeak duen kostua da. Landagipuzkoa egitasmoari dirulaguntza eskaera egin diote, baina Udalak ere jarri beharko du.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**ESKALADA** > SANTAMASETAKO 7. PUNK THAT ROCK BOULDER TXAPELKETA

# Puntako eskalatzaileen arteko duelua, bihar arratsaldean

Bihar Euskal Herriko boulder eskalatzaile onenetakoak izango dira Uarkapen

Arratsaldean egingo dute duelua, baina goizean boulder txapelketa egingo dute



Aurreko txapelketan antolatzaileek Patxi Usobiagaren laguntza izan zuten. X.U.

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bihar, Euskal Herriko puntako boulder eskalatzaileak izango dira Uarkapeko pilotalekuan. Goizean (10:00etan hasita) egingo dute Santamasetako txapelketa, hainbat kategoriatan banatuta, eta bertan, Debagoieneko eskalatzaile guztiek hartu ahal izango dute esku, baita kanpotik etorriko direnek ere. Hala, eliteko mailarekin batera 20 urte eta 15 urtetik beherakoak ere lehiatuko dira, maila herrikoiarekin batera.

Arratsalderako, baina, antolatzaileek zerbait ikusgarria antolatu gura izan dute: Arrasateko eta Euskal Herriko selekzioen arteko duelua, hain zuzen.

**18:00ETAN HASIKO DA**

Santamasetako duelua 18:00etan hasiko dute; joan den astean, antolatzaile lanetan dabilen Joxean Mulasek GOIENKARIAri aurreratu zion faboritoak Euskal Herriko selekzioa direla, baina Arrasatekoek sorpresaren bat edo beste eman dezaketela, maila oneko eskalatzaileak daude-eta herrian. Hala, Mendieta eta Viejo anaiak, Ander Lasagabaster eta Mikel Velasco izango dira Arrasate ordezkatzen.

**EGITURA HORMARA LOTUKO DUTE**

Aurtengo txapelketa, gainera, orain dela bi urtekoa baino erraza jarraitu ahal izango dute Uarkapen batuko diren zaleek; izan ere, Federazioak horrelako txapelketetarako duen txanpinoi itxurako egitura lau zatitan banatu ahal izango dute, eta lau aldeak harmailetara begira jarri. Horretarako, antolatzaileek pilotalekuko horma zulatzeko baimena lortu dute: "Oso pozik gaude Udalak baimena eman digulako zulo horiek egiteko. Sei milimetroko zortzi zulo dira, eta txapelketa egin ostean igarri ere ez da egiten hor zuloak egon direnik, estali egiten direlako", adierazi du Mulasek.

Hala, Federazioaren egitura eguaztenean ziren ekartzekoa: "Ez dakigu elurrarekin Arlaban zelan jaitsiko duen kamioiak, baina zapaturako dena gertu izateko egun hauetan gogotik egin beharko dugu lan, denbora behar delako egiturak jarri eta boulderreko bideak zehazteko".

**ATLETISMOA** > SANTAMASETAKO 31. KROSA, ENRIKE KABIKETA MEMORIALA

# Santamasetako krosa oraingo domekan, ibilbide berriarekin

11:00etan hasita gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte, eta 12:30ean hasiko da koadrilen arteko krosa; izenematea doan izango da

**X.U.** > ARRASATE

Domekan atletek hartuko dituzte Arrasateko erdiguneko kaleak, eta joan den astean aurreratu moduan, ibilbide berria da aurtengo Santamas kroseko berritasun handiena.

Urtero moduan, goizeko lehenengo orduan gaztetxoen txanda izango da. 11:00etan hasita, lehenengo lasterketa 13 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoek egingo dute (800 metro) eta 12:00etan egingo dute azken lasterketa, zazpi urteko neska-mutikoek (175 metro).

**NAGUSIAK 12:30EAN**

Koadrilen arteko krosa 12:30ean hasiko dute –antolatzaileak 11:00etatik izango dira izenak hartzen, udaletxe aurreko arkupean. Domekako lasterketari begira, ibilbide berriak 6,4 kilometro izango ditu, eta antolatzaileak arduratu dira ibilbide berria erdiguneko kaleetan zehar jartzeaz.

**MAILA ONEKO LASTERKARIAK**

Kanpotik etorriko diren korrikalarien maila zelakoa izango den aurreikusi ezin daitekeenez, antolatzaileek ondo dakite Arrasateko atleten artean lehia ederra egon daitekeela: "Oraindik ez dakigu Zuhaitz Ezpeleta edo Aritz Kortabarria lasterketara etorriko diren. Bi korrikalari horiek sekulako maila dute, baina aurten, taldeko Markel Blanco proban izango da, eta oso gogotsu dabil. Blancok urtero parte hartu gura izaten du lasterketa horretan, baina askotan kros lasterketa izaten du egun berean. Polita izango litzateke hiru korrikalari horiek domekan herrian ikustea", adierazi du Fernando Zufiriak. "Gainera, aurtengo Santamas krosa eta Gasteizko maratoi erdia ez ditugte egun berean egingo, Gasteizkoa datorren asteburuan egingo dutelako", gaineratu du.




> BERBALDIA

### 'Kirolaren etorkizuna Gipuzkoan' berbaldia Athlonen eskutik

Athlonek eta MUk Kirolaren etorkizuna Gipuzkoan berbaldia antolatu dute datorren eguenerako, hilak 18, Goi Eskola Politeknikoko 6.212 gelan (6. eraikuntzako 2. solairuan).

Berbaldi horretan Gipuzkoako kirolean esparru ezberdinetan lanean dabiltzan bi lagunek hartuko dute esku, Iñaki Galdos Kiroletako Foru-Diputatuak eta Bruesa Gipuzkoa Basket taldeko presidente Miguel Santosek.

> MENDIKO BIZIKLETA

### Jose Angel Lopez lehenengo Lukinen egindako lasterketan

Joan den asteburuan egin zuten Diario de Navarrako Openeko zazpigarren proba, Lukinen. Eta, master 40 kategorian Arrasateko Jose Angel Lopez nagusitu zen (02:02:24).

Garaipen horri esker Lopez (114 puntu) hirugarren dago sailkapen orokorrean, eta bi proba falta dira, Zurukuainen eta Lizarran. Liderrak baino 19 puntu gutxiago ditu Lopezek, eta bigarrena bederatzi puntura dago.

> GOLFA

### Mikel Galdos 38. sailkatu da Espainiako Txapelketan

Aretxabaletako golf jokalariak joan den astean jokatu zuen Cadizko Sotogrande herrian Espainiako golf txapelketa. Europako zirkuitua amaituta, maila oso oneko golf jokalariak aurkeztu ziren txapelketa horretara, aurreko postuetan sailkatzea zailduz. Hala, Aretxabaletakoak 38. postuarekin konformatu behar izan zuen. Final estua jokatuta, Carlos Sunesonek azken unean gainditu zuen Francis Valera.

> SASKIBALOIA

### Eskoriatza Hiria saria, Galiziako selekzioarendako

Astelehen goizean jokatu zituzten Intxaurtxuetan infantil mailako nesken Espainiako Txapelketako azken bi partiduak. Asturias-Kantabria eta Euskadi-Galizia partiduak izan ziren, eta lehenengo partiduan asturiarrek kantabriarrei 60 eta 54 irabazi zieten; bigarren partiduan, berriz, Eskoriatza Hiria saria erabaki zen partiduan, Galiziak 57-52 irabazi zion Euskadiri. Hala, Galizia izan da talde onena.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Sailkapeneko bigarren postura egin du salto Aretxabaletak

Domekan Idiazabali irabazi eta gero (2-0) Aretxabaletak bigarren posturaino egin du salto; Mundarron jokatuko dute bihar


Eriko eta Gotzon, epaileak hartutako erabakiarekin haserre. J.A.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Azken urteotan moduan, aurten ere Aretxabaleta (24puntu) da preferenteko goialdean egoteko talde faboritoetako bat. Eta, Arenatzaren eta Gordobilen mutilek 13 jardunaldi behar izan dituzte hori horrela dela erakusteko. Hori lortzeko nahikoa izan dute etxeko zenbakiak txukuntzearekin –azken bi partiduak Ibarran jokatu dituzte, eta biak irabazi–; izan ere, kanpoan ondoen dabilen taldeetakoa da, ez bada onena. Hain zuzen, aretxabaletarrek etxetik kanpo partidu bakarra galdu dute, Hernaniren (21) zelaian.

Orain Tolosa (25) baino ez daukate sailkapenean aurrean, eta urtea amaitu aurretik jokatuko dute haien kontra. Lehenago, baina, Mundarrora egin beharko dute bidaia (zapatua, 15:45) jaitsiera postuetan geroago eta gehiago murgiltzen dabilen taldearen kontra jokatzera.

**ALOÑA ETA MONDRA ETXEAN**

Aretxabaletak gertu du lidergoa, baina Aloñak (22) ere ez du oso urrun, Oñatikoak ere behetik gora datoz-eta. Domekan Hernani hartuko dute Azkoagainen (16:30).

Mondrak (18), azkenik, bosgarren postuan dagoen Trintxerpe (22) hartuko du bihar (16:30) Mojategin.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Albacete-Reala
Zapatua. 18:30. Carlos Belm.

**Gazteen euskal liga**
Aretxabaleta-Retuerto
Domeka. 16:30. Ibarra.

Bergara-San Martzial
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Hernani
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Trintxerpe
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Astig. Mundarro-Aretxabaleta
Zapatua. 15:45. Astigarraga.

**Lehenengo erregionala**
Tolosa-BTLS
Zapatua. 17:30. Usabal.

Mondra-Orioko
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Ilintxa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Bikuña.

Bergara-Urola
Domeka. 15:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala**
Soraluze-Bergara
Zapatua. 15:45. Ezozia.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Allerru-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Lezo.

**Lehen mailako gazteak**
Bergara-Soraluze
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Aret. Arizmendi B-Eibartar.
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Eii¡bartarrak-Mondra
Zapatua. 17:30. Unbe.

**Kadeteen ohorezko maila, igoera fasea**
Bergara-Reala
Domeka. 11:30. Beasain.

Aretxabaleta Ariz.-Billabona
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Kadeteen ohorezko maila, jaitsiera fasea eta kopa**
Zumaiako-Arrasate
Domeka. 11:00. Aita Mari.

**Kadete maila**
Soraluze-Arizmendi
Zapatua. 11:30. Ezozia.

Urki-Aloña Mendi
Zapatua. 19:30. Unbe.

Bergara B-Eibartarrak
Domeka. 17:30. Ipintza.

**Kadete Txiki**
Internacional-Arrasate
Domeka. 10:30. Matigoxote.

**Infantil ohorezko maila, kopa eta jaitsiera**
Bergara-Aret. Arizmendi
Zapatua. 11:30. Ipintza.

**Lehenengo infantil maila**
Aloña Mendi-Eibartarrak
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Arrasate-Amaikak Bat
Domeka. 16:00. Mojategi

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa, senior emakumezkoak**
Verkol Aloña-Ereintza
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Euskadiko Txapelketa, gazte emakumezkoak**
Verkol Aloña-Usurbil
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako lehen territorial maila**
Soraluce BKE-Hegialde Auto
Zapatua. 17:30. Labegarai.

**Gipuzkoako bigarren territorial maila**
Amenabar-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zarautz.

Arrasate-BKL Iñausti
Domeka. 11:00. Musakola.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Senior gizonezkoak**
MU-Leihoak Zarautz
Zapatua. 16:00. Musakola.

La Salle-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Donostia.

**Senior gizonezkoak**
Auto.Goiherri-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Beasain.

Oiarso-Aloña Mendi
Domeka. 11:45. Errenteria.

**Senior emakumezkoak**
Añorga-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Donostia.

**Gazteak gizonezkoak**
MU-Zarautz
Zapatua. 10:00. Musakola.

Oiarso-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Errenteria.

Easo-Transbretaña BKE
Domeka. 12:00. Donostia.

**Gazteak emakumezkoak**
Eskoriatza-Krafft Atco
Zapatua. 16:00. Intxaurtxu.i

**ERRUGBIA**

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Arrasate-CSR Santander
Zapatua. 16:30. Mojategi.

dks '08
debagoieneko kirolsariak

ANTOLATZAILEAK
Aretxabaletako Udala
eskoriatzako udala
OÑATIKO UDALA
LEINTZ GATZAGAKO UDALA
ARAMAIOKO UDALA ARABA
ELGETAKO UDALA

HEDABIDE LAGUNTZAILEA
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

KOORDINATZAILEA
arteman KOMUNIKAZIOA

BABESLEA
"la Caixa"

**Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia.**
**Eguna:** Abenduak 20 larunbata.
**Lekua:** Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan (Aretxabaleta)
**Ordua:** 18:00etan

*Ikus entzunezkoak | Sari banaketa |*
*Aukeran dantza konpainiaren ikuskizuna |*


Eta nik, hauxe esaten nion nire lankideari...
“nork egingo dio kasu esperientziarik gabeko enpresa bati?”
ikus-entzun
Gaztempresaren babesa jaso zuten 2.000 enpresa baino gehiagoren arteko bat da Ikus-entzun.
Gaur egun, ingeniaritza akustiko hau Bilboko Metroaren soinu-instalaziorako proiektuan parte hartzen ari da.
gaztEmpresa FUNDAZIOA
Noiz hasiko gara?
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Justizia lan eta gizarte segurantza saila
EUROPAKO BATASUNA
EUROPAKO GIZARTE FONDOA
GIZATASUNA LANEAN
MONDRAGON
www.gaztempresa.com



**> ARIANNA PUELLO**
Rap abeslariak '13 razones' diskoa aurkeztuko du gaur, Arrasaten > 36




**> 'MAITASUNEZ' LIBURUA**
Bergarako amodiozko gutunen lehiaketako lanak liburuan batu dituzte > 36



**> DANBAKA LEHIAKETA**
Gaur, egubakoitza, musika lehiaketaren bosgarren kontzertua izango da > 37

# 18 urte geroago, Bergarara dator Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Emanaldia Bergarako Udal Pilotalekuan izango da, 22:30ean

Bergarako Musika Eskolak 25 urte bete dituela ospatzeko antolatu du Udalak kontzertua




**ITZULERA** 18 urte igaro eta gero, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du Bergaran. EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

**JOKIN BEREZIARTUA** > BERGARA
18 urte pasa dira Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Bergaran azken kontzertua eman zuela. Urte asko pasa dira ordutik, eta horrek, ezin ukatu, xarma berezia ematen dio gaurko kontzertuari. Udal Pilotalekuan izango da, 22:30ean. Sarrerak ordubete lehenago 15 eurotan jarriko dituzte salgai, pilotalekuko leihatilan.

Abenduaren 2an kontzertua iragartzeko egindako aurkezpen ekitaldian, Iñigo Alberdi orkestrako zuzendari orokorra pozik agertu zen orkestra Bergarara datorrelako, eta aurrerantzean orkestra ekartzea espero duela gaineratu zuen. Udalak eta Bergarako Musika Eskolak "musika tradizio handia duen herri batentzat kontzertu erakargarria" dela uste dute.

**ESKOLAK 25 URTE...**
Kontzertu berezi eta erakargarri horren aitzakia Bergarako Musika Eskolak aurten 25.urteurrena ospatzen duela da. 1983-1984 ikasturtean hasitako proiektu hark Bergarako musika zaletasuna bultzatzeko eta zabaltzeko egin duen lana nabarmentzekoa da. Eta lan horretan jarraitzeko asmoa dute. Horren adibide garbia da datorren egubakoitzean eskainiko duten Gabonetako kontzertua.

Ohi den moduan, abenduaren 19ko kontzertua Musika Eskolak egiten duen lana Bergarako herriari erakusteko modua izango da. Bertan, Suzukiko ikasleek –biolina jotzen 3 urterekin hasten diren umeak–, Haur Hasiberrien Abesbatzak –5 eta 8 urte arteko ikasleak–, txistulariek eta trikitilariek, Akordeoi Orkestrak, Haur Abesbatzak, Gazte Bandak eta Eskolako Orkestra Sinfonikoak hartuko dute parte.

**...ETA EUSKADIKO ORKESTRAK, 26**
Atzera begiratuarekin jarraituz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 26 urte bete ditu aurten. Musika sinfonikoa eta euskal musika bultzatzea helburu, agenda ezin beteagoa duen orkestra da. Euskal Herriko lau hiriburutan –Iruñea, Gasteiz, Bilbo eta Donostian– kontzertu zikloak eskaintzen ditu etengabe eta udako jaialdietan gonbidatutako talde bezala parte hartu du askotan.

Gainera, Euskadiko Orkestrak politika diskografiko oparoa dauka. Izan ere, hainbat euskal musikagileren ekoizpen sinfonikoan hartzen dute parte. Eta nola ahaztu orkestrak Euskal Herritik kanpora begira euskal musika hedatzen egiten duen lana. Izan ere, hamaika lekutan izan dira, besteak beste: Argentina, Brasil, Txile, Alemania, Suitza, Frantzia eta Britainia Handian.

Iker Sanchez gaurko orkestra gidatuko duen zuzendari musikalak kontzertu "erakargarria" izango dela aurreratu du. Bergarako musika egile biri egingo zaien omenaldi txikiaz gain, kontzertu berean musika eskaintza zabala izango dela uste du Sanchezek. Emanalditik nabarmentzea merezi duena: Mozarten gazte garaiko hiru kantu, Marco Caratto fagot bakarlariaren parte hartzeaz.

BERGARAR BIREN PIEZAK PROGRAMAN

## Gonzalez Bastida anaien piezak ere joko dituzte gaurko emanaldian

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak omenaldi txiki bat prestatu die Bergarako musikari ekarpen handia egin dien Gonzalez Bastida anaiei. Musikari lotutako bizitza izan da bi anaiena, eta egun ereserki bihurtu diren kantuen egileak dira. Orkestra sinfonikoak bi anaien pieza bi interpretatuko ditu.

Hain zuzen, anaia nagusi Jose Maria Gonzalez Bastidaren (1908-1997) *Orkestrarako triptikoa* lanetik hirugarren pieza joko dute: *Leyenda vasca* deritzona, hain zuzen. Abestiak hamar minutu irauten du.

Bestalde, Miguel Gonzalez Bastida (Bergara, 1920) egun Santa Marina parrokiako organo-jole titularra denaren *Lorea* obra interpretatuko du orkestrak, emanaldiari sarrera emate aldera.

**Iker Sanchez** > Emanaldiaren zuzendaria

## "Bergarara gatozenez, bergarar biren piezak interpretatuko ditugu"



EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

**J.B.** > BERGARA
**2004. urtean hasi zen Iker Sanchez (Irun, 1976) orkestra zuzendaritza lanetan. Lan horretan prestakuntza handiko pertsona da, maisu handiengandik edan duen horietakoa. Donostian hasi zen ikasten eta gero Bordelen eta Munichen espezializatu zen. Gaurko emanaldia jendeari gustatuko zaiola uste du.**

**18 urte daroazue Bergaran jo barik. Gertatu duzue ezer berezirik kontzertu berezi horretarako?**

Baietz esan daiteke. Bergarara gatozenez, bergarar biren piezak interpretatuko ditugu. Hala, omenaldi txiki bat egin nahi diegu Miguel Gonzalez Bastida eta Jose Maria Gonzalez Bastidari.

**Zeintzuk izango dira interpretatuko dituzuen piezok? Eta zergatik aukeratu dituzue, hain justu, bi horiek?**

Miguelen pieza *Lorea* izango da. Zortzi minutuko pieza da, kontzertua berotzeko balioko duena. Jose Mariaren piezen artean, *Orkestrarako triptikoa* obratik hirugarrena aukeratu dugu: *Leyenda vasca*, hain zuzen. Azken hori inpresionista delako aukeratu dugu, kolore handikoa delako. Eta baita, noski, kantua euskal melodia famatuen jabe delako ere.

**Eta gainontzeko piezak?**

Mozarten gazte garaiko pieza freskoak eta Korsakov konposatzaile iraultzailearen –orkestra ulertzeko era irauli zuen– obrak joko ditugu.

**Programa erakargarria, hortaz.**

Baietz uste dut. Kontzertu beraren barruan eskaintza zabala izango da.

ARRASATE > HIP-HOPA

# Arianna Puelloren errimak protagonista gaur gaztetxean

'13 razones' izeneko disko berriaren aurkezpena egingo du rap kantari famatuak. 'Ari'-ren aurretik 'Deifus' arrasatearrak bere hip-hopa eskainiko digu

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Goi mailako hip-hop emanaldia izango da gaur Arrasateko gaztetxean. Ikusmina piztu du Arianna Puelloren kontzertuak; izan ere, Estatuko hip-hop kantari ezagunetarikoa da. Puellok bere azken diskoa aurkeztuko du: *13 razones*. Kontzertua Gaztemaniak, Gazte Bulegoak, Udalak eta gaztetxeak antolatu dute.

*Ari*-ren aurretik, baina, *Deifus* rap kantari arrasatearrak girotuko ditu ikusleak. Arrasatearrak *Asmatu* deritzon disko jartzailearen laguntza izango du.

Hip-hop festa 22:00etan hasiko da eta sarrerak lau euro balioko du. Sarrerok asteon izan dira salgai Dat, Irati, Basati eta Kajoi tabernetan eta Gazte bulegoan.



Arianna Puello.

**HIP-HOP MUNDUAN EZAGUNA**

Dominikar Errepublikan jaioa, Puello 1986an iritsi zen Terrassara (Katalunia). Bertan ezagutu zuen hip-hoparen kultura. Hiphoparen kultura gurean oso ezaguna ez bada ere, rap kantari asko dago Estatuan. Musika molde hori ez da ohikoa Euskal Herrian, baina bai, besteak beste, Katalunian.

Hortaz, egile asko dago, baina ez ei dira Puello bezain onak. Adituen esanetan, estilo zuzena erabiltzeagatik eta "salatu beharrekoa salatzeagatik" egin da ezagun *Ari*. Besteak beste, Txilen, Alemanian eta Belgikan aurkeztu du bere bosgarren lana.

**DISKO KONPROMETITUA**

*13 razones*-ek hirietako kaleetako hainbat musika estilo nahasten ditu, eta, adituen ustez, lan "hedonista eta konprometitua" da. Puerto Ricon grabatu du diskoa, eta 17 abesti ditu.

**AURRETIK, 'DEIFUS' ETA 'ASMATU'**

Maisuaren aurretik ikaslea igoko da taulara. David Gonzalez arrasatearra *Deifus* bihurtu eta errimak egiteari ekingo dio; jo eta ke, lagun duen Aretxabaletako *Asmatu* disko jartzailearen laguntzaz.

Gonzalezek betidanik entzun du hip-hopa. 2006an maketa bat atera zuen eta espero baino erantzun hobea izan zuen. Hala ere, gaurkoa izango da jendaurrean emango duen lehen kontzertua; orain arte saio pribatuak eskaini izan ditu. Ez dago urduri; izan ere, "entseguetan dena ondo ari da irteten". Errima soilak baino gehiago, mezu zehatza daraman hip-hopa du gustuko, eta beretzat *Ari* erreferentea izan arren, "kaleko poeta handiena Nach da; hura da nire erreferente nagusia".




Migel Angel Elkoroberezibar eta Maitane Arizabaleta. ANABEL DOMINGUEZ

BERGARA > LITERATURA

# 'Maitasunez' lana, maitasun osoz egindako gutun sorta

**J.B.** > BERGARA

Bergarako Jardun euskara elkarteak *Maitasunez* izeneko lana argitaratu du. Elkarteak antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketan du oinarria argitalpenak; izan ere, azken hamar urteotako lehiaketetako lehen eta bigarren sariak biltzen ditu liburuak. 21 gutuneko sorta da, eta hitzaurrea idatzi duen Miguel Angel Elkoroberezibar idazle eta filologoak dioenez, gutunei "barne sentimenduak darie".

Joan den martitzenean egindako aurkezpenean, Elkoroberezibar eta Maitane Arizabaleta Jarduneko kideak izan ziren.

**JARDUN AITZINDARI**

Elkoroberezibarrek "luzaroan baztertuta" egon den literatura generoari bere kategoria aitortu beharra dagoela esan zuen.

Jardunek aurten amodiozko gutunen leihaketaren 17. edizioa ospatzen du. Genero horretan aitzindari dela esan daiteke, eta, Bergarako elkartearen arrastoari jarraituz, beste herri batzuetan ere antolatu dira mota horretako lehiaketak.



**MUSIKA** > DANBAKA

# Folka, reggaea eta rocka, punk-rockaren amorrua, eta funk eta pop-rock koktelera

Danbakako bosgarren kontzertuan Debabarreneko talde bi eta Debagoieneko beste bi igoko dira Espaloiko agertokira

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Danbaka III. Musika Lehiaketako azken txanpa gero eta gertuago dago. Bi kontzertu besterik ez da falta lehenengo faseari bukaera emateko. Hortaz, laster jakingo dugu zeintzuk izango diren finalera joango diren taldeak. Batzuek faboritoak izango dituzte dagoeneko, baina guztiak entzun eta ikusi arte ezin da dena esan. Izan ere, ezuste asko izaten dira Danbakako kontzertuetan, eta taldeak uste baino prestatuago datoz lehiaketara.

Gaurkoan, egubakoitza, folk-rockak hasiko du gaua. Are gehiago, Ermua eta Eibartik datorren Flipin Folk taldean Ni_Neu proiektuko Aitor Sologaiztoa musikari dabil, besteak beste.

**ABY-KEMEKO BATERIA OHIA**

Bigarrena Oñati eta Donostia artean osatutako Rock Privado izango da. Pop-rocka egiten dute. Horien ostean, Mutrikutik datorren The Wet Band taldeak funk-ya eta rock gogorra landuko ditu melodia itsaskorrekin.

Eta gaua bukatzeko, Aby-Kem taldeko bateria jotzaile ohiaren taldea: Turboshit. Metaletik zeharo aldenduta, amorru handiko punk-rocka egiten dute.

**KONTZERTUA**

Gaur, egubakoitza. 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

- > **Flipin Folk**
- > **Rock Privado**
- > **The Wet Band**
- > **Turboshit**



**FLIPIN FOLK** I Ermua-Eibar

Folka eta rocka batzen dituen talde hori 2001ean sortu zuten Eibarko eta Ermuko kideek. Hasieran Galizia eta Irlandako folka rockarekin uztartzen zuten, baina 2005ean egin zuten aldaketaren ostean, estilo gehiagotara zabaldu dira: rocka, reggaea, ska eta beste. Ordutik, gainera, taldea honako lagunek osatzen dute: Iñaki, Jorge, Aitor, Paulino eta Txemak. Ohiko rock instrumentuez gain (gitarra, bateria, baxua), akordeoia, mandolina, gaita eta txirula ere ibiltzen dituzte.



**ROCK PRIVADO** I Oñati-Donostia

Rock Privadok hanka bat Donostian dauka eta beste bat Oñatin, Andoni bateria jotzailea hangoa da-eta. Gaztelaniaz abestutako pop-rocka egiten dute ñabardura askorekin, eta denbora laburrean izen gero eta handiagoa hartzen dihardute. Hain zuzen, Donostiako XVII. Pop-Rock lehiaketako epaimahai gaztearen saria jaso zuten eta 2008ko Madrilgo Audiciones lehiaketarako sailkatu ziren. *En todo este tiempo* diskoa autoekoiztu berri dute Germanek, Juanek, Rociok, Iñakik, Dafnisek eta Andonik.




**THE WET BAND** I Mutriku

The Wet Band taldea Mutrikun jaio zen 2007. urtean, eta, beste talde askoren moduan, hastapenetan beste talde batzuen kantuak interpretatzen hasi ziren: bluesa, punka, soula, rocka, hard-rocka eta beste. Gerora, kantu propioak egiteari ekin zioten eta gustuko zituzten musika estiloak gehiago finkatu zituzten. Gaur egun, rocka, funka eta pop-rocka egiten dute, tarteka stoner ukituak ere batzen badituzte ere. Taldea Ainarak, Endikak, Aitzolek eta Iñigok osatzen dute.




**TURBOSHIT** I Bergara

Bergarako hirukote horrek aurten lehenengo aldiz esku hartuko du Danbaka lehiaketan, baina taldeko abeslari eta gitarra jotzailea birritan izan da Espaloiko agertokian, eta baten, gainera, lehiaketa irabazi zuen Aby-Kem taldearekin. Iñigo Ibartzabal orain arte bateria izan bada ere, oraingoan gitarra eta mikrofonoa hartu ditu, Mikel Gallastegi eta Mikel Martinezekin batera Turboshit punk-rock taldea osatzeko. Hirurak eskarmentudun musikariak dira eta ondo pasatu gura dute.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

SOMMER JAUNAREN ISTORIOA
JOSE RAMON SOROIZ AKTOREAREN ESKUTIK

**Eguna:** Abenduak 26, zapatua .
**Ordua:** 22:30ean,
Sarrerak salgai dagoeneko.



Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Altsasu.** Satrustegin etxea saldu edo alokatzen da. 115 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, 3 komun, terraza. Orain dela urte bat eraikia. 652 97 38 37.

**Antzuola.** Estreinatu gabeko etxebizitza salgai Antzuolako plaza ondoan. 657 70 94 20.

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Balkoia, garajea, trastelekua eta igogailua. Etxeak 7 urte ditu. 250.000 euro. 697 78 07 29.

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 620 59 86 55.

**Bergara.** Atiko berria saldu edo errentan ematen da erdigunean. Logela bat. 70 metro koadroko terraza. Aire girotua eta kontsumo txikiko berogailuak. Igogailua. 616 87 29 65.

**Bergara.** Estreinatu gabeko etxebizitza berria. Martokua 42, 2.A. 77 $m^2$. 11 metro koadroko ganbara. Igogailua. Dena kanpokaldera begira. 218.000 euro gehi %7ko BEZa. 649 05 50 93.

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 $m^2$. Guztiz berritua eta jantzia, bizi izatera sartzeko moduan. 152.000 euro. Prezio negoziagarria eta ordaintzeko erraztatzuna. 635 70 49 74.

**Azpeitia.** Errebalean 2 logelako etxe polita salgai. Sala handia, 2 komun eta sukaldea ditu. Eraikuntza nahiko berria. Prezioa 240.000€. 619 41 79 47 (Nerea).

**Beasain.** 55 m2ko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. Deitu 615 73 59 18 telefonora.

**Bilbo.** Alde zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). 94 41 56 74 9.

**Bilbo.** Salgai, Santutxun, Basarrateko metro alboan 3 logelako etxebizitza igogailuarekin. Egongela, komuna, sukaldea jantzita, berogailuak gas naturalarekin eta despentsa. 222.375 euro. 688 63 36 21.

**Etxarri Aranatz.** Etxarriko zentroan etxebizitza salgai. Egongela, 3 logela, 2 komun, trastelekua eta garajea. Salneurria: etxebizitza eta garajea 156.000 euro (etxebizitza bakarrik: 150.000 euro) Tel. 609 71 60 23

**Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzekoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, landetxea jartzeko aukera. 628 03 07 27, 646 11 14 85 eta 609 21 83 41. *estanga@wanadoo.es*

**Ispaster.** Baserria salgai 15 hektareako lursailarekin. Bi etxebizitza egiteko aukera. 80 milioi, 480.810 euro. Tel. 688 63 36 21.

**Lekeitio.** Pisua salgai Lekeition. Bi logela, ezkaratza, egongela, komuna eta sarreraduna. Berriztatuta eta jantzita. 688 69 63 36.

**Lekeitio.** Aukera paregabea! Txaleta salgai. Leku eder eta lasaian, lur eremua fruitondoekin, prezio interesgarria. 721.215 euro. 688 63 36 21.

**Mutriku.** Salgai Erdiko kalean, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 140.000 euro. 680 53 72 89.

**Mutriku.** Salgai duplexa Erdiko kalean, 5 gela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. 210.000 euro. Tel. 680 53 72 98.

**Oñati .** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. 656 79 88 12.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com http://goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

### 102. EROSI

**Oñati.** Bikote batek 250.000 euro baino gehiago balio ez duen etxe bat erosiko luke. 659 25 72 84.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Altsasu.** Pisua alokatzen da Garcia Ximenez kalean. Sukaldea, egongela, komuna (eraberritua), 3 gela eta trastelekua. Jantzita, berogailuarekin eta pintatu berria. 500 €. 669 78 43 44.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Ferrerias kalean. Logela bat, sukaldea, egongela eta komuna. 619 34 88 52.

**Arrasate.** Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Guztiz berritua eta berogailuarekin. Deitu 16:00etatik aurrera. 606 22 76 99.

**Jaca.** 3 logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hilabeteka. 635 75 02 93.

**Oñati.** 110 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Lau logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia. 659 53 87 62.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza errentan Olakuan. Guztiz berriztua eta jantzia. Garajea aukeran. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txiki bat edo apartamentu bat errentan hartuko nuke. 619 46 43 66.

**Arrasate.** Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68

**Arrasate.** Mutil gazte, euskaldun eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan. Lan finkoa. 647 08 68 75

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. 636 25 56 68

**Arrasate.** Kooperatibetan lanean dabilen mutil bat beste langile baten bila dago etxea konpartitzeko. 628 08 75 89

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. 610 91 33 40

**Bergara.** Ozaeta, Martokua edo Zubiaurren garajea hartuko nuke errentan. 644 47 92 91

**Idiazabal.** Bikote gazte batek Idiazabalen pisua alokairuan hartuko luke. 615 75 34 11.

**Logela bila.** Irakasle batek logela bat behar du aurtengo ikasturterako. 652 73 55 54

**Lakuntza.** Lakuntza inguruan pisu bat alokatu nahi nuke. Hots egin 669 56 36 21 telefonora.

**Ordizia.** Ordizian etxebizitza errentan hartuko nuke. Edozer gauzatarako deitu telefono honetara. 635 00 84 86.

**Zizurkil.** Zizurkil edo inguruko herri batean etxe bat hartuko nuke alokairuan. 35 urteko neska bat naiz eta lau urteko alaba dut. 654 99 18 32.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Logela alokatu edo pisua konpartitzeko prest nago Altsasun. 690 70 61 72.

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. 639 28 53 50

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. 639 28 53 50.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Erosoa eta ekonomikoa. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Arrasate erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Etxe handia, wi fiarekin. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22

**Bergara.** Bi logela ematen ditut errentan. Bat bi lagunendako (hileko 350 euro) eta bestea lagun batendako (hileko 250 euro). Sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Ez da kontraturik egingo. 658 77 90 46 edo 943 76 38 48

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukalderako eskubidearekin. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

**Donostia.** Neska euskaldun baten bila gabiltza otsailetik aurrera etxebizitza osatzeko. Etxea Matia kale ondoan dago. Hondartzatik eta unibertsitatetatik gertu. Interesatuek deitu lasai edo bidali posta bat: *ogerrikagoitia@begira. com.* 645 72 58 41

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 690 15 95 06 zenbakira.

**Iruñea.** Iruñeko Pio XII. kalean bi pertsona behar ditugu pisua konpartitzeko. Deitu 660 09 13 49 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALGAI

**Bergara.** Ibargarai kaleko 54an garajea salgai. Bigarren solairuan. Prezio negoziagarria. 666 30 23 60

**Elgoibar.** Marradun garajea salgai edo errentan Elgoibarren, udaletxearen ondoan, ametsa tabernaren parean. 615 787857. Auto ertain edo txiki batentzat.

**Errenteria-Orereta.** Garaje itxia salgai Errenteria-Oreretako Tulle kalean. 615 726 600 .

### 203. ERRENTAN EMAN

**Ormaiztegi.** Auto batentzako garajea alokatzen da Ormaiztegin. Deitu: 609 41 18 110.

## 3/ LOKALAK

### 303 ERRENTAN EMAN

**Pabilioia.** Pabilioia alokatzen da Legution, 1.600 m2, eraikin berria, oso altua, biltegi bezala erabiltzeko aproposa, kamioiak sartu eta irteteko prestatuta, N-240 errepidearen ondoan, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Arrasaterekin lotura bikainak. Garraio zerbitzua ere eskaintzen dugu, bertan gorde nahi diren merkantziak banatzeko. 607 40 41 58.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Anoeta.** Emakume bat behar da etxeko garbiketetarako. Astean 2 edo 3 egun eta goizez. 687 70 20 41

**Aramaio.** Pertsona arduratsu eta euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 73 58 55

**Debagoiena.** Neska euskalduna behar da garbiketa lanetarako. 687 78 58 47

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Adinekoekin lan egiteko prest. Adineko pertsonak zainduko nituzke etxean nahiz ospitalean. Neska euskalduna eta autoduna. 652 974 524.

**Arrasate.** Arrasate emakume euskalduna astean bi edo hiru aldiz lan egiteko gertu. 2 orduz. Rosi. 943 771601 edo 672 20 36 82.

**Arrasate .** Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadu neska gertu lanerako. Orduka, asteburutan edota astean zehar lan egingo nuke. Paperak dauzkat. 618 14 71 34

**Arrasate.** Mutila gertu eraikuntza, nekazaritza edo bestelako lanetarako. 679 37 79 56

**Arrasate.** Neska gertu umeak edo nagusiak zaindu, edo garbitasun lanak egiteko: tabernak, bulegoak... 679 37 79 56

**Arrasate.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Tituludun ile apaintzailea gertu etxean bertan orrazteko. 650 59 93 91.

**Arrasate.** Esperientzia handiko neska sukaldean lan egiteko gertu. Baita garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko ere. Nacira. 639 93 25 04

**Arrasate.** Metalurgia, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo edozein motatako lanak egingo nituzke. Jose Ingo. 639 93 25 04 edo 659 32 69 92

**Arrasate - Bergara.** Etxeko lanak egiten lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 620 54 60 59

**Arrasate - Bergara.** Arrasate edo Bergara. Neska etxeak, atariak eta abar garbitzeko gertu. Orduka lan egingo nuke. Deitu 606 03 14 95 telefonora.

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH, DBH1 eta DBH 2 mailako eskola partikularrak emateko prest. 637 11 39 09

**Bergara.** Edozein motako lanak aurrera eramateko gertu egongo nintzateke. Yair. Deitu 699 63 12 02 zenbakira.

**Bergara.** Garbiketa lanak egiteko eta ume zein adineko pertsonen zaintza lanak burutzeko gertu nago. Graciela. Deitu 699 63 12 02 zenbakira.

**Bergara.** Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu garbiketa lanak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Segituan hasteko prest. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Mutila gertu igeltsero lanak egiteko. Deitu 667 28 83 21 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. Deitu 680 67 69 88 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzen lan egiteko. 666 21 88 95

**Debagoiena.** Lana gustura egingo nuke arratsaldetan sukaldari laguntzaile, garbitzaile edo antzeko lan batean. 659 23 01 85 edo 943 79 72 99

**Debagoiena.** Ostalaritzan lan egingo nuke. Segituan hasteko gertu. Nahiago Arrasaten bada. 666 75 73 21

**Debagoiena.** Asteburutan zerbitzari lanak egingo nituzke. 679 25 03 12

**Debagoiena.** Etxean bertan bizitzen lanerako gertu nago. 943 08 15 39 edo 699 34 86 88

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu garbiketa, sukalde laguntzaile edo bestelako lanetarako. 638 61 85 10.

**Debagoiena.** Basogintza lanak egingo nituzke: inausketa, garbiketa eta abar. 659 05 97 21.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda 659 57 93 89

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda edo ez. 659 57 93 89.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 634 84 11 72 .

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun osoz eta etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 688 68 13 63

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44

**Debagoiena.** Gidabaimena duen mutila lanerako gertu: banaketak, garbitasuna edo tabernetan. 697 66 79 37

**Debagoiena.** Emakume boliviarra, legezko paperak dituena, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. 636 91 93 81.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsaldez. 943 74 32 51

**Elgoibar.** Andre euskaldun bat esperientzia handiarekin pertsona nagusiak zaintzeko prest. 943 74 44 33

**Elgoibar.** Neska euskalduna nagusiak edo umeak zaintzeko prest (esperientzia handiarekin), garbiketa lanak ere egingo lituzke. 676 87 64 08.


## ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK

**Obra teknikaria**
**Ur eta mantentze teknikaria**
**Igeltseroa**
**Peoia**
**Peoi-elektrikaria**

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke *www.arrasate-mondragon.org*

Epea izena emateko: abenduaren 6tik 26ra arte (biak barne).

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

Bidaia Agentzia
**bidaide**
sercom grupo
Agencia Asociada

Erniobea kalea 6 behea • 20150 Villabona
Tel.: 943-69 26 93 - Faxa.: 943-69 25 10
e-posta: bidaide@gruposercom.com
www.gruposercom.com

gabon hauetarako
oparirik ederrena daukagu!

- **astebukaera pasatzeko** bonoa
- **balneario saioetarako** bonoa
- **eskiatzeko** bonoa



zatoz eta zure beharretara egokituko dugu oparia

## Behe Bidasoako komunikazio proiektu berri baterako lanpostu hauek bete behar dira

### KAZETARIA

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua egun osoz, gizarte segurantzarekin.

Eskatzen da:
- Euskaraz jakitea eta euskaraz zuzen idaztea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza edo filologia ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea edo kazetal lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:
- Euskaraz jakitea eta euskaraz zuzen idaztea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza edo filologia ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea edo kazetal lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

### TEKNIKOA

Eskaintzen da:
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua egun erdiz, gizarte segurantzarekin.

Ezinbesteko baldintzak:
- Diseinu grafikoan esperientzia.
- Free Hand, Photoshop eta Quark X Press programekin lan egin izana.
- Euskaraz jakitea.

Baloratuko da:
- Inprenta prozesua ezagutzea.
- Izaera dinamikoa izatea.
- Iniziatiba izatea.
- Taldean lan egitera ohituta egotea.
- Gidabaimena izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali abenduaren 13rako. gizabaliabideak@jarduna.net

**Elgoibar.** Emakume arduratsua etxeko lanak egiteko edo edo etxeetako plantxa lanak egiteko prest, goizez edo arratsaldez. 627 79 96 09.

**Elgoibar.** Mutila lanerako prest, zamalanak, garbiketa , igeltseritza edo edozertarako prest. 660 21 36 52.

**Elgoibar.** Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest esperientziarekin. Autoa dauka. 626 43 82 48.

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko emakumea garbiketa lanetan edo beste edozertan lan egiteko prest. Euskara eta geriatria ezagutzak. Urgentea. 679 86 84 13.

**Goierri.** Neska arduratsuak garbiketan, umeak edo adinekoak zaintzen lan egingo luke. 628 48 72 75.

**Goierri.** Eraikuntzan esperientzia duen 23 urteko gazteak lanbide ezberdinetan lan egingo luke. 685 71 13 03

**Goierri.** Garbiketa orokorrarean, adinekoak zaintzen, sukaldari bezala edo peoi bezala lan egingo nuke. Autoa daukat. 687 79 55 57 edo 680 21 14 13

**Goierri.** Lan bila nabilen neska arduratsua naiz. Garbitzen, umeak edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. 628 48 71 75.

**Lasarte-Oria.** Klase partikularrak ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. 646 71 76 76.

**Lasarte-Oria.** Neska eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako. Interna moduan edo orduka. 620 03 68 88.

**Lasarte-Oria.** Neska arduratsua eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. 690 30 46 83.

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 65 34 33.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Altsasu.** Pertsona bat behar da DBH 2. Mailako neska bati eskola partikularrak emateko. 650 47 17 13.

**Alemaneko** eskola partikularrak hartuko nituzke, DZ maila. 630 18 11 99.

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. 669 61 52 99.

**Aretxabaleta.** Alemaneko eskola partikularrak hartuko nituzke, DZmaila. 630 18 11 99.

**Elgoibar.** DBH 3. mailako ikasle batek euskarazko klase partikularrak behar ditu. 687 73 46 56

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeniari teknikoa DBHko zein batxilergoko klaseak emateko prest. 685 77 85 60

**Bergara.** Kimika lizentziatu batek fisika, kimika, natur zientziak, marrazketa tekniko, geologia eta teknologiako klase partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. 648 06 79 85

**Donostia.** Lehen eta bigarren hezkuntzan zein batxilergo edo ingeniaritza mailan eskolak ematen ditut. Bost urteko esperientzia lehen eta bigarren mailan eta bi urtez ingeniaritza eta heziketa zikloetan eskolak ematen. 645 72 58 41

**Lasarte-Oria.** Neska euskalduna lehen hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia. 659 73 01 33

**Lasarte-Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia, 646 71 76 76.

**Leioa.** Lehen hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest nago. Ostiral arratsaldetan 15:00 18:00 bitartean. Ordua 10€. 629 86 64 03.

**Lekeitio.** Magisteritzako ikaslea LH eta DBHko klase partikukarrak emateko prest; baita batxilergokoak ere euskara, ingelesa, historia eta filosofia baldin badira. Eskualde guztian. 680 79 69 93.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Motoarentzat.** 2002, 2003, 2004 eta 2005 urteko Yamaha WR 450-F motoentzako Pro Circuit TI 4 markako eskape osoa eta pieza asko. Dena 600 eurotan. 667 41 88 75.

**Opel Zafira** autoa salgai. Azaroaren 8an bi urte egin ditu. Oso gutxi erabilia. Eguerdian deitu. 656 76 38 32 edo 943 76 81 24.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Kanarioa** salgai. Galdetu Mikelengatik, mesedez. 635 75 54 53.

**Txakurkumeak.** Teckel ertain eta ile gogorreko txakurkumeak. 2008ko urriaren 7an jaioak. Gurasoak basurdearen arrastoan oso onak. Emeak 200 euro eta arrak 150 euro. 671 13 27 91 eta 667 20 31 71.

**Txakurkumeak.** Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan. 652 71 95 24.

**Txerria salgai.** Pentsu naturalarekin gizendutako txerriak salgai, hiltzeko. 687 50 03 51.

### 703. EMAN

**Txakurkumea** oparitzen da. Euskal artzain txakurra. Deitu 626 11 38 69 telefonora.

**Txakurkumeak oparitzen dira.** Arratoi-txakur arrazako bost txakurkume oparitzen dira. Hiru ar eta bi eme. 94 682 74 41.

### 704. BESTELAKOAK

**Setter** arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 16an Bolibar inguruan. 12 urte ditu, Zuri izenekoa, eta plaka dauka lepokoan. Guretzat balio sentimental haundia dauka. 943 79 96 55.

**Ehitza-txakurkumea.** Ehiza-txakurkume beltza galdu da Lizarrusti bidean. 669 17 39 16.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Arrasate.** Surf taula salgai. Moor markakoa. Erosi berria. Hasiberrientzat. 618 03 35 47.

**Baserritar arropasalgai.** Baserritar alkandora eta abarkak salgai. Bost urtetik aurrerako umeentzat. Galtzerdiak opari. 656 78 64 64

**Baxuarentzako 100 wattioko HH VS Bassamp burua.** 70eko hamarkadakoa da. Prezio onean. 607 21 19 69

**Bizikleta.** Bigarren eskuko bizikleta salgai. Polita eta egoera onean. 90 euro. 679 74 00 61

**Bikiendako karroa.** Kapazoak oparitzen ditugu. 943 79 41 15 edo 675 00 56 17.

**Brain Training.** BrainTraining berri-berria salgai. Nintendo DSrako. Estreinatu gabea. 617 13 17 51

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta salgai. Colnado Dream markakoa. Rabobank kolorea. Osagaiak: Shimano Dura-Ace 3 plater. Neurria 55. Gurpilak: Mavic Kisirun SSC. 1.000 euro. 605 77 00 78.

**Eskiatzeko botak.** 41-42 zenbakiko eskiatzeko botak salgai. Behin erabiliak. 90 euro. 669 83 60 53.

**Gameboy Advancerako bi joko.** *Moto GP* eta *Ratonpolis*. Biak hartuz gero: 15 euro. Banaka: 9 euro. 679 74 00 61

**Pedala.** Gitarra akustikoa simulatzen duen rockman pedala, 70 eurotan. 607 21 19 69

**Altzariak.** Logela. Haritz egurrezko armairua, 90eko bi ohe eta gau-mahaia salgai. Prezio interesgarria. 677 44 20 81

**Lur saila salgai.** Goierri: 3.500m2-ko lur saila salgai etxea egiteko aukerarekin. Aralar magalean. 300m2 edifikatuak. Esplotazio baterako leku egokia. 629 48 78 68.

**Mendi bizikleta salgai.** Mustu gabeko mendi bizikleta salgai. 620 06 45 34.

**Aldizkariak.** Motorren eta autoen gaineko aldizkariak saltzen ditut. Asier. 617 17 15 88

**Snowboard taula salgai.** Nitro etxekoa. 150 neurrikoa. Fijazioekin. 43 1/3 neurriko Salomon botak ere bai. Erabili gabeak. 300 euro. 663 04 53 99

**Txapazko bi hagun.** Txapazko bi hagun salgai. R-16. Ford Mondeo eta Focus autoendako baliagarriak. 30 euro. Deitu 655 70 16 44 telefonora.

**VHS bideoak salgai.** Umeentzako VHS bideoak salgai. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

### 802. EROSI

**Disko gogorraren bila.** Disko gogorra Pentium III 800 Mhz-rako Ide disko gogor bila nabil. 675 92 93 06

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Lorentzo. Berritua. Prezio ona.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Ozaeta 70 m². Oso ondo.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Moyua. 75 m². Oso aukera ona.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 m² + 42 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**Kortajarena**
etxe agentzia

*Zure konfidantzazko etxe agentzia*

- Errenterian Biteri kalean eraiki berria
- Pasaian Gure Zumardian eraiki berria

Bizkaia pasealekua 24
(baleazaleak izk.)
**Tel.: 943-47 17 67**

API:274

**www.kortajarena.com**

inmobiliaria
Etxebila
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
**Tel.: 943 44 61 66**

**LARRATXO.** 80m2. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 38.500.000.
**INTXAURRONDO.** 2 solairuko etxea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 51.500.000.
**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 41.500.000.
**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Eguzkia. 36.200.000.
**AMARA.** 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 53.990.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza (60m2). Berritua. 45.400.000.
**AMARA.** 70m2. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000.
**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Balkoia. Ordaintzeko erraztasunak. 56.800.000.
**HIRIGUNEA.** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. Balkoia. 55.000.000.
**HIRIGUNEA.** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Berritua. Balkoia. Ikuspegi ederrak. Kanpora begira. 95.900.000.
**ALDE ZAHARRA.** Abuztuaren 31ko kalea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 67.500.000.
**GROS.** Zabaleta kalea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. 72.500.000.
**GROS.** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Sartzeko moduan. Igogailua. 41.500.000.
**GROS.** Kolon pasealekua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Sartzeko moduan. 35.000.000
**BUENAVISTA.** 65m2. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Polita. 34.900.000.
**EGIA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Berritua. Lorategia. 35.990.000.
**MARTUTENE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000.
**ALTZA.** Loraegia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Txokoa. 36.400.000.
**LOIOLA.** Atikoa, terrazarekin. Eguzkitsua. Berritua. 28.500.000.
**ASTIGARRAGA.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Polita. 39.500.000.
**PASAI DONIBANE.** Itsasora begira. Terraza. 3 logela, egongela handia, sukaldea, bainugela. 44.950.000.
**LEZO.** Baserri etxea. 4 logela. Lursailak. Txokoa. 46.800.000.
**LASARTE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 37.500.000.

**ALOKAIRUAN**

**BERA-BERA.** 4 logela, egongela handia, sukaldea, 2 bainugela. Garajea. 1.300 €.

**itesa**
SERVICIOS INMOBILIARIOS

ERRENTERIA - LEZO

Altzate Berri

ETXEBIZITZA ONENAK IBAI ONDOAN

KALITATE BEREZIA

INBERTSIO GARRANTSITSUA ABALAKIN

ERRAZTASUN HANDIENAK




Informazioa eta salmenta:
SAN MARTZIAL, 8 - 1.a • DONOSTIA
**943 423 600**
**www.itesa.es**

**Jarduna**
administrazio zerbitzuak

**Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jardunak.**

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzeabermatzen dizugu

bai euskarari
zerbitzua eta lana euskaraz

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, **jarri harremanetan gurekin**

**KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK**

Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
**Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net**
**www.jarduna.net**

**Lursaila Bergaran.** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan, autoa aparkatzeko lekua daukana.656 77 85 91

**Bizikleta erosiko nuke.** Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosi nuke. 943 36 63 59. Maite.

## 806. GALDU

**Arrasate.** Kartazal zuri bat galdu nuen diruarekin abenduaren 9an Seber Altube plazan. Sarituko da. 619 34 88 52.

**Argazki kamera .** Kaixo: aurtengo Amasako jaietan, larunbatez, Casio argazki kamera digitala galdu nuen Amasako frontoian. Bilatu duenak deitu dezala 943 69 29 88 telefonora. Eskertuko da.

**Berokia.** Beroki beltza utzi nuen Bergarako musika eskolako hesian azaroaren 3an. Oxbow markakoa. Neurria: 16. 656 79 0961

**Mendiko zamarra .** Grifone markako mendiko zamarra beltza galdu nuen 2008ko urriaren 6an Iruran. 620 20 14 29

**Motxila.** Motxila urdina utzi nuen azaroaren 20an bidegorriko iturriaren aldamenean, Copreci inguruan. Kirol materiala dauka barruan. Aurkitu duenak eraman dezala udaltzaingora edo deitu zenbaki hauetara. Sarituko da. Harremanetarako deitu telefono zn943 53 31 68 edo 636 62 15 04

**Urrezko belarritakoak .** Arrasate erdigunean urrezko belarritakoa galdu nuen azaroarean 14an, ostiralean. 943 79 38 29 edo 629 48 03 13 .

## 807. AURKITU

**Aretxabaleta.** Astelehenean, azaroak 10, telefono mugikorra aurkitu nuen Murugain eta Izurieta arteko mendibidean. Galdu duenak dei diezadala. 620 06 35 92.

**Bizikleta.** Udan bizikleta txiki bat topatu zen Etxarri Aranazko Arzabal kalean. Jabea pasa dadila Sakana elektrizitate dendatik.

**Sakelekoa.** Azaroaren 10ean, telefono mugikorra aurkitu nuen Murugain eta Izurieta arteko mendibidean. Galdu duenak deitu zenbaki honetara: 620 06 35 92

## 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Gesalibartik Arrasatera** "dedo" gelditu ninduzuna. Gipuzkeraz hitz egiten dudan losintxa bota zenidan zerorri. Konplizitate gehiegi "kaixo, bostekoa, agur" batean soilik gelditzeko. Lagun onak egitea hain zaila den gizarte honetan, nik diodanagatik, deitu arren. Badakizu non aurkitu.

## 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan lanera sartu eta 17:00etan irteten gara. Norbait interesatuta egonez gero, deitu. 635 20 33 14.

**Azpeitia-Donostia.** Azpeitian bizi naiz eta Donostian egiten dut lan. Autoa konpartitu nahiko nuke gastuak gutxitze aldera (auto propioa dut). Nire ordutegia goizeko 08:00-08:30etik 17:30-18:00etara da. Harremanetarako zenbakia: 675-70 81 81

**Oñati-Gasteiz.** Egunero OÒatitik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan lanera sartu eta 17:00etan irteten gara. Norbait interesatuta egonez gero deitu. 635-20 33 14.

**Bateria-jolea talde bila.** Bateria jotzen dut eta talde bila nabil, edo jendea talde berri bat sortzeko. Rock estiloa. Deitu 659-385864ra edo idatzi *pizarro108@hotmail.com*postara.

**E.I.U. Inmobiliaria**
ENTORNOS EIU INMOBILIARIOS URBANÍSTICOS
Patxiku kalea, 5
20800 Zarautz
Tel.: 943-13 27 27

**GETARIA.** Etxe atxikia. 4 urteko etxe atxikia. 200 m2 lau solairutan. 4 logela, 4 bainugela, sukaldea eta egongela, 2 terraza, txokoa eta garaje bikoitza. Oso eguzkitsua eta bista ederrak ditu. Aukera polita.

**ZARAUTZ.** Euromar. 60 m2-ko etxebizitza itsasorako bistekin. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Zona komunitarioan igerilekua, frontoia eta tenisa ditu.

**ORIO.** Eraiki berriak, 70 m2 eta 80 m2, trastelekua eta garaje itxia. 270.455 €-tik aurrera.

**OKADOS** inmobiliaria
Zumardi pas. 3 behea - Tel.: 943-39 46 77
San Martin 62 behea - Tel.: 943-44 44 80
www.buscacasas.com

**AIETE.** Oso polita eta eguzkitsua. Balkoiak eta garajea. 450.800 €.

**AIETE.** 3 logelako etxebizitza. 2 bainugela, egongela eta erabilpen anitzeko gunea. Terraza. Bista ederrak. 871.000 €.

**ERDIALDEA.** Kanpoaldera. Eraikin eraberritua. 90 m2. Egongela, 3 logela, 2 bainugela. Igogailua. 931.200 €.

**INTXAURRONDO.** 75 m2. Oso polita eta eguzkitsua. Egongela handia. Sukalde eta balkoia. 3 logela. Bainugela. Bistak. 359.000€.

**INTXAURRONDO-MARRUTXIPI.** 75 m2. Egongela. Sukaldea. Bainugela eta 3 logela. Terraza handia. Bistak. 360.600€.

**BIDEBIETA-GAIZTARRO.** Dena kanpoaldera, terrazetara. Egongela, 4 logela, 2 bainugela. Igogailua.

**HERRERA.** Eraikin berria, 3 logela, 2 bainugela. Altu eta argitsua. Bistak. Igogailua. Aparkaleku komunitarioa. 435.500 €.

**PASAI SAN PEDRO-TORRE-ATZE.** Etxebizitza berriak, garajearkin. Kaiaren parean.

**HERNANI.** Apartamentu berria. 40 m2. Egongela, logela 1, bainugela eta sukaldea. 192.325 €.

**RIAS BAIXAS.** San Vicente do Grove. Harrizko etxe berritua, lur sailekin. Hondartzaz inguraturik. Garajea bi autorentzat.

**HENDAIA-URRUÑA.** Inguru bikaina. 300 m2-ko txaleta. 4,7 hektareako terrenoa.

Saltbide
**Higiezinen zerbitzua**
Bizkaia kalea, 6 - 20800 ZARAUTZ
Tel.: 943-01 07 00 / 665-718 596

**ZARAUTZ.** Ekialdea. 4 logela eta trastelekua. Gela guztiak kanpora begira. Eguzkitsua. 52.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Erdialdean. Hondartzatik hurbil. 3 logela, bainugela eta komuna. Egoera onean. 54.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Zelai Ondon. 3 logela eta trastelekua. Igogailua du. Eguzkitsua. 53.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Garaje irekia salgai udaletxeko enparantzan.

**ZUMAIA.** Jadarre auzoan. 2 logela. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Ordaintzeko erraztasunak. 36.600.000 pezeta.

**BERGARA.** San Lorentzo auzoan. Eraikin berria. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 220.000 €-tik aurrera.

365 API
LAZKAO
INMOBILIARIA
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao
943-88 37 39



LAZKAO
Azken etxebizitzak,
Orobione, San Prudentzio
180.000 €-tik hasita
www.lamylazkao.com

**ANZABAL** etxe agentzia
Santiago, 15 - behea
ELIZONDO (BAZTAN)
Tel.: 948- 58 08 04
Faxa: 948 581459
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN-ORONOZ MUGAIRI:** Etxe bifamiliakoak lur eremuarekin.
**BAZTAN-ANIZ:** 2.000 m2-ko lur eraikigarria.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Bigarren eskuko etxebizitza eta apartamentuak.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Etxe familiabakarrak bere jardinarekin.
**BAZTAN-ELBETE:** Eraikin berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai.
**BAZTAN-ARIZKUN:** Etxe familiabakarrak bere lur eremuarekin.
**BAZTAN-ARRAIOZ:** Eraiki berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai
**BAZTAN:** Bordak berritzeko salgai.
**ZUGARRAMURDI:** Baserria 50.000 m2-ko lurrarekin.
**IGANTZI:** Eraikin berriko etxea eta lurra.
**SUNBILLA:** Baserri berritua 7.000 m2-rekin.
**ZUBIETA:** Hiru solairuko baserria, berritzeko.
**DONIBANE GARAZI:** 3 kilometrora baserria, bi borda eta lurra.
**BAIGORRI:** Etxea bere lurrarekin.

Administración de Fincas y Gestión inmobiliaria
ARAMBURU
Etxe Administrakolak eta higiezinen gestioa
943-651713
677-460916

**SALGAI. Etxe handia lur sailarekin,** 4.000 m2, guztiz berritua, Alkizan.

**SALGAI.** Etxebizitza, SOLDADU kalean, sartzeko moduan, Tolosan (231.400€ / 38,5 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** KALE NAGUSIAn, 1 igogailuarekin sartzeko moduan, eta bestea berritzeko eta igogailurik gabe, Tolosan (193.000€ / 32 MIL. NEGOZIA DAITEZKE)

**SALGAI. Etxebizitza,** MARTIN JOSE IRAOLA kalean Tolosan.

**SALGAI. Etxebizitza,** SAN IGNAZIO auzoan, sartzeko moduan, Ibarran (211.000€ / 35 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** IZASKUN AUZOAN, Tolosa (234.400€ / 39 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** guztiz berritua, Amasan.

**SALGAI. Etxebizitza,** berritzeko, Legorretan.

**SALGAI. Lokala,** Euskal Herria kalean, Ibarran.

**SALGAI. Garajeak,** San Frantzisko eta Amarotzen Tolosan, eta Idoiagan Ibarran.

**SALTZEKO EDO ALOKATZEKO. Lokala,** tximiniarekin, erdialdean Lasarten.

**ALOKATZEKO. Etxebizitza,** Iurre auzoan, eta San Franziskon.

**ALOKATZEKO. Garajeak,** San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian.

**ALOKATZEKO.** Pabiloi industriala, Leaburuko bidean, Ibarran.

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



## ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

## ASEGURUAK

**GOIENA ASEGURUAK**
ARRASATE / Antso Abarka 6
T: 943 79 59 81
F: 943 79 39 18
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65
F: 943 76 40 37
goiena@goienaaseguruak.com

## EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

## GESTORIAK

**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

## PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

2008ko abenduaren 11tik
2009ko urtarrilaren 5era

EROSKI

Zuk esandakoa entzun
egingo dugu: 902 54 03 40
www.eroski.es

zurekin

Opariak egiteko
irtenbideak



Moda eta osagarriak ezin sinetsizko prezioetan

Zure familia eta lagunentzako
opariak, preziorik onenetan


EUSKARAZ JOLASTU,
EUKARAZ BIZI!
ZIRRI BORRO
AMETSAK AIREAN
ARROXALI
ALTXORRAK & LAPURRAK
+8 URTE
Euskal Herriko mapa puzzlea
EUSKAL HERRIA
100
8 magnetikoak
MAIA TXINPARTA
TARTALO
3+
Ikastolen Elkartea
www.ikastola.net


DANBAKA
III. MUSIKA LEHIAKETA
5.KONTZERTUA // ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
abenduak
12
EGUBAKOITZA
22:30
SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 25 EURO // GAZTEKUTXAREKIN 18 EURO
KAMISETAK //
SALGAI DAUDE:
1> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
2 > 943 25 05 05 ZENBAKIAN
KAMISETEN SALNEURRIA: 1> 12 EURO 2 > 22 EURO 3 > 30 EURO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO WWW.DANBAKA.COM
ETORRI KONTZERTURA ETA IRABAZ EZAZU SARIA!
FLIPIN FOLK
ERMUA-EIBAR
ROCK PRIVADO
OÑATI-DONOSTIA
THE WET BAND
MUTRIKU
TURBOSHIT
BERGARA
BABESLE NAGUSIA
gaztekutxa
LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgetako Udala
Lazkano
laino
SHOT!
gaztelupeko HOTSAK
GIARTZU
LORAMENDI KIROLAK
INTERSPORT
SEIN
BARREN
anboto
ANTOLATZAILEAK
Goiena
espaloia

# Bailarako futbol selekzioko kideak 'Harmailatik' saioan

## Gabonetan Arizmendik antolatzen duen emakumeen futbol txapelketa hizpide

**GOIENKARIA** > BERGARA
Arizmendi ikastolak Gabonetarako antolatzen duen emakumezkoen futbol txapelketa izango dute hizpide *Harmailatik* kirol saioan. Txapelketan, Debagoieneko emakumezkoen futbol selekzioak beste bi futbol talderen aurka jokatuko du. *Harmailatik* saioan, beraz, futbol txapelketaren antolatzaile lanetan dihardluen Gari Lartzabal eta Debagoieneko emakumeen futbol selekzioko bi kide izango dira; hain zuzen ere, Jone Agirregabiria eta Ane Gartzia futbol jokalariak.

Asteburuko kirol hitzorduak ere ekarriko ditu Xabi Urtzelaik; besteak beste, zapatuan jokatuko den Santamasetako boulder txapelketa eta domekako krosa.

**GOITB, 'Harmailatik'**
> Astelehena, 22:15
> Martitzena, 18:05


Debagoieneko emakumezkoen futbol selekzioko jokalariak. GOIENKARIA

# Lertxundi entzuteko aukera

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Benito Lertxundi kantariak abenduaren 20an Arrasaten egin behar duen kontzerturako sarrerak zozkatuko dituzte *Arrasate Irratia*n datorren astean. Dagoeneko ez dago beste biderik sarrera horiek eskuratzeko, guztiak agortuta daude-eta. Arrasate Irratiko zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05 edo *irratia@goiena.com* edo *www.goiena.net* webgunean dagoen irratiko blogean.

**Arrasate Irratia, "Igo Autobusera'**
> Egubakoitza, 11:30etik 12:00ak bitartean



GOIENKARIA

# 'Magazinea'-ko platoa, Gabonetako apaingarriz jantzita

Datorren astean hasi eta Gabonak pasatu arte, *Goiena magazinea*-ko platoak diseinu aldaketa izango du. Hain zuzen ere, Debagoieneko ikastetxeetako umeek egindako apaingarriz jantziko dute platoa: hilaren 15ean eta 16an, astelehena eta martitzena, hurrenez hurren, Arizmendiko umeen lanak izango dira; hilaren 17an, Kurtzebarri eskolakoenak; 18an, Almenekoenak; eta 19an, Elkar Hezikoenak.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Egunero, 19:45

## telebegi

**Edu Mendibil**
> goiena.net/blogak/edu

### 'Qué vida más triste'

Ez dakit giro goibelagatik den, Gabonen etorreragatik akaso, agian saskirik ez delako iritsiko... Auskalo! Baina gero eta zailagoa egiten zait telebista aurrean barre egitea. Barrea eragin nahi eta negarra eragiten duten saioak, ordea, badira... Alderantziz ere bai, zoritxarrez.

Aspaldi honetan La Sextan topatu dut saiorik interesgarrienetakoa: *¡Qué vida más triste!* Lagunartean, apal-apal, Interneten jaiotako proposamena sarean zabaldu eta telebistara iritsi da. Esketx laburrez osatuta, ordu erdiko saioa da, osagarri gutxirekin egina: gidoi garratzak, aktore onak (Borja eta haren *familia*), medio eskasak, egoera absurdoak eta ironia fina (bada besterik?), garai bateko Canal Pluseko *Kanal-One* haren estiloan. Agian ordutegi hobea merezi luke (aste barruan, 17:00etan). Hala ere, futbol talde apalek ere freskura galtzen dute jauzi handiegia egitean... Bitartean goza dezagun bizitza tristearen alde barregarriarekin.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

### Domeka
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.).
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 12
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka: Norman Hilbete.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Zapatua, 13
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Domeka, 14
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Astelehena, 15
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Abesbatazak.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka: Norman. Hilbete.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 16
**13:15** Marrazki bizidunak: Foofur.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Barazki pudina.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Flipin folk.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Maitane Segurola.
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 17
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Euskal herria lau haizetara. Bizkaia.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 18
**13:15** Marrazki bizidunak: Foofur.
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka: Rock Privado.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea:
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak




GOIENKARIA

## soluzioak



Hieroglifikoa: Bizitza.







## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | 7 | | 4 | 2 | | |
| | | 3 | | 9 | 2 | | 4 | |
| | | | | | | | | |
| | 9 | | | 1 | 8 | | | 4 |
| | | | | | | | | |
| 7 | | | 9 | 6 | | | 1 | |
| | | | | | | | | |
| | 8 | | 5 | 7 | | 3 | | |
| 2 | | 5 | 3 | | 6 | | | 8 |

## hieroglifoa

Gauzarik preziatuena.




## hizki salda

Nafarroako 5 herriren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | G | T | U | L | E | D | S | I |
| B | A | I | G | O | R | R | I | R |
| X | Z | P | L | A | A | Z | E | I |
| B | A | N | K | O | N | L | Z | S |
| E | R | A | N | E | G | I | P | A |
| Z | O | E | T | P | O | M | E | R |
| M | T | E | A | U | I | Z | B | R |
| O | U | F | D | F | K | L | S | I |
| I | B | A | R | R | O | L | A | K |

## bono fotoa



**Eskualdeko ze herritako kandandorrea da argazkikoa?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

SUPER AMARA

Super Amarak emandako
**60 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ..............................................
..............................................
IZEN-DEITURAK ..............................................
..............................................
TELEFONOA..............................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Oñatiko **Amaia Goitia**endako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Errekalde auzoa**

## hildakoak

- **Claudia Gomez Varela.** Arrasaten, azaroaren 24an. 84 urte.
- **Pablo Ruiz Perez.** Arrasaten, azaroaren 24an. 78 urte.
- **Nilamon Garcia Dimas.** Arrasaten, azaroaren 24an. 78 urte.
- **Francisco Valverde Albarran.** Arrasaten, azaroaren 27an. 71 urte.
- **Maria Antonia Montoya Montoya.** Eskoriatzan, azaroaren 27an. 82 urte.
- **Luis Carabias Hernandez.** Arrasaten, azaroaren 27an. 83 urte.
- **Henry Arana Ezenarro.** Oñatin, azaroaren 28an. 86 urte.
- **Vicenta Berezibar Altube.** Arrasaten, azaroaren 28an. 78 urte.
- **Agapita Etxaburu Isasi.** Bergaran, azaroaren 28an. 89 urte.
- **Maria Jesus Egiguren Alberdi.** Bergaran, azaroaren 28an. 63 urte.
- **Santos Barbarin Iriberri.** Arrasaten, azaroaren 28an. 77 urte.
- **Carmen Diaz de Gereñu Garcia.** Aretxabaletan, abenduaren 1ean. 93 urte.
- **Martin Beain Biain.** Bergaran, abenduaren 2an. 90 urte.
- **Lorenza Albistegi Ugalde.** Arrasaten, abenduaren 4an. 75 urte.
- **Mercedes Posada Posada.** Oñatin, abenduaren 4an. 87 urte.
- **Armilda Del Reguero Marvan.** Arrasaten, abenduaren 4an. 64 urte.
- **Elena Atienza Baldezate.** Arrasaten, abenduaren 6an.
- **Migel Tabares Herzog.** Bergaran, abenduaren 6an. 65 urte.
- **Emeterio Murgiondo Larrañaga.** Bergaran, abenduaren 6an. 82 urte.
- **Eusebia Viteri Viteri.** Bergaran, abenduaren 7an. 82 urte.
- **Juan Luis Arana Mendizabal.** Arrasaten, abenduaren 7an. 53 urte.
- **Guadalupe Kortabarria Kortabarria.** Oñatin, abenduaren 7an. 82 urte.
- **Frantzisko Agirre Unanue.** Arantzazun, abenduaren 8an. 81 urte.
- **Jose Maria Etxebarria Altuna.** Aramaion, abenduaren 10ean. 75 urte.
- **Serafin Atxa Ugarteburu.** Arrasaten, abenduaren 10ean. 88 urte.
- **Maritxu Zabaleta Kortabarria.** Oñatin, abenduaren 10ean. 82 urte.



Arrasateko **Itziar Gortazar** eta **Igor Luri** bihar, abenduaren 13an, ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Eguna heldu da eta edarto pasaukou! Pareja, oso ondo pasau bixarko eguna eta hobeto ezkon bidaian... zorionak eta patxo haundi bana". Koadrilakoek argazki eta testu hau helarazi digute.

URTEURRENA

## Jose Luis Mendizabal Lizarralde



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:00etan Elgetako Andre Maria Jasokundearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Sabin Gallastegi Altuna



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Iñaki Olabarria Arana



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

URTEURRENA

## Basilisa Lizaur Uribarren



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:30ean Arrasateko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Andres Ayastui Elorza



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:00etan Bergarako Santa Marina elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Iban Guridi Zaloña



Bigarren urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:30ean Aretxabaletako Galartza auzoko Santa Luzia parrokian.

–

*Gu beti zurekin*
*Zu betirako gurekin*
*Maite zaitugu.*

–

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Etxekoak eta Monika.
Oñatin, 2008ko abenduaren 12an.

URTEURRENA

## Jose Mari Elorza Ruiz de Azua



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 14an, 12:30ean Arrasateko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko haren emazte eta sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Emeterio Murgiondo Larrañaga

**Bergaran hil zen 2008ko abenduaren 6an, 82 urte zituela.**



Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenei, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko abenduaren 12an.

ESKER ONA

## Serafin Atxa Ugarteburu

**Arrasaten hil zen 2008ko abenduaren 10ean, 88 urte zituela.**



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2008ko abenduaren 12an.

OROIGARRIA

## Serafin Atxa Ugarteburu

Goienako Xabier Urtzelairen aitaita

Arrasaten hil zen 2008ko abenduaren 10ean, 88 urte zituela.



GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2008ko abenduaren 12an.

OROIGARRIA

## Elena Atienza Baldezate

Galizan hil zen 2008ko abenduaren 6an.



*Lagun aparta izan zara denontzat,*
*mila oroipen goxo utzi dizkiguzu.*
*Gaur, Maritxu zugatik negar egiten ari da.*
*Agur Elenilla.*

Alicia, Ana K., Ana B., Osane, Rakel K., Rakel G. eta Delia.
Arrasaten, 2008ko abenduaren 12an.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Abenduak 12-18

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ARRASATE

**> Arianna Puello bakarlariak disko berria aurkeztuko du**

Arianna Puello dominikar jatorriko musikariak disko berria, *13 razones*, aurkeztuko du gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan. Rapa, saltsa, erritmo tropikalak eta gehiago dago diskoan. Aurretik, Deifus taldeak joko du.

## Erakustaldia



ESKORIATZA

**> Irrati-kontrol bidezko autoen tailerra eta erakustaldia aste bukaeran**

RC Dospistones taldeak, Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin, irrati-kontrolezko autoen I. tailerra egingo du bihar, zapatua, Luis Ezeizako patioan, 11:00-13:00 eta 16:00-17:30. Ikastarotxoa egiteko eta autook ikusteko aukera izango da.

## Musika



OÑATI

**> Beninen aldeko Gabonetako kontzertua egingo dute herriko taldeek**

Kontzertua egingo dute Oñatiko bandak (argazkian), Oñati Abesbatzak, parrokiako koruak eta Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzek etzi, parrokian, 19:00etan. Natitingou-n (Benin) eskola bat eraikitzeko dirua batuko dute.

## Musika

ELGETA

**> Danbaka musika lehiaketako bosgarren kontzertua**

Danbaka musika lehiaketako bosgarren kontzertua izango da gaur, egubakoitzaTaldeak: Flipin Folk (Ermua-Eibar), Rock Privado (Oñati-Donostia), The Wet Band (Mutriku) eta Turboshit (Bergara).

Gaur, Espaloia antzokian, 22:30ean.

BERGARA

**> Disko-jartzaileen emanaldiak Ziripot tabernan**

Gaur, egubakoitza, DJ Pako (kpk) disko-jartzailea arituko da, eta bihar, zapatua, Makala DJ.

Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

ELGETA

**> Hiru talderen kontzertua izango da bihar gaztetxean**

No Hay Soluzion, Punk! Tapie eta Deficiencia Rock taldeen kontzertua izango da.

Emanaldia 22:00etan hasiko da.

BERGARA

**> Bergarako Orfeoiko umeen kontzertua izango da**

Bergarako Orfeoiko umeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza. Sarrera 2 euro da.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 19:00-20:00.

ARETXABALETA

**> Gabonetako emanaldiak, Leizarra musika eskolak**

Leizarra musika eskolak honako emanaldiak egingo ditu: dantza (gaur, egubakoitza), Gabonetako kontzertua (abenduak 15 eta 16) eta Haur Hezkuntzako kontzertua eta dantza (abenduak 17).

Kultura etxeko Zaraia aretoan, 18:00etan; gaurko dantza emanaldia, 18:15ean.

BERGARA

**> Bergarako Orfeoia, Gabero eta Ganbara Gazte taldeak**

Bergarako Orfeoiak, Gabero Abesbatzak eta Ganbara Gazte Abesbatzak kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, Mariaren Lagundian, 20:00etan.

ANTZUOLA

**> Gabonetako kontzertua egingo dute Musika Eskolakoek**

Musika Eskolako ikasleek Gabonetako emanaldi berezia egingo dute astelehenean.

Abenduak 15, astelehena, udaletxeko areto nagusian, 18:30ean.

BERGARA

**> Deabruak Teilatuetan taldeak kontzertua egingo du**

Txapa Irratiak antolatuta, Deabruak Teilatuetan eta Fiachras taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua. Taldea banandu eta bederatzi urte geroago, berriro agertokira igoko da Tolosako laukotea.

Bihar, abenduak 13, gaztetxean , 23:00etan.

## Ospakizunak

OÑATI

**> Jaiotza antzeztuko dute Elkar Heziko ikasleek**

Jaiotzaren antzezpena egingo dute Elkar Heziko ikasleek gaur, egubakoitza. Txokolatea bizkotxoekin ere banatuko dute. Batutako dirua Argentinara bidaliko dute.

Gaur, egubakoitza, plazan, 15:00etan.

ARETXABALETA

**> Erretiratuen elkartekoek Santa Luzia ospatuko dute**

Basotxo erretiratuen elkarteko kideek Santa Luzia eguna ospatuko dute txokolatejana eginda. Elkarteko kide guztiak daude gonbidatuta. Aurten 90 urte bete dituztenei omenaldia egingo diete.

Bihar, zapatua, Basotxoko tabernan, 17:00etan.

ARETXABALETA

**> Sahararen aldeko festa eta jostailu batzea egingo dituzte**

Iesbaa taldearen eta Udalaren ekimenez, *Ludotekatik ludotekara* festa egingo dute bihar, zapatua, Saharan ludoteka bat egiteko. Argazki erakusketa, tailerrak, txokolatea, haur berbena eta beste ekintza batzuk izango dira.

Bihar, zapatua, Iturrigorrin, 17:00-19:30.

ARRASATE

**> Erraldoi konpartsa txikiak kalean egingo du entsegua**

Arrasateko erraldoi konpartsa txikiak kalean entseatuko du, eta horren inguruko jaia egingo du. Biteri plazan entseatuko dute, eta puzgarriak, gaitari eta trikitilariak, txistorra eta konpartsaren material salmenta izango da. 14:00ak aldera, otarra zozketatuko dute.

Bihar, zapatua, Biteri plazan, 13:00etan hasita.

## Antzerkia

ESKORIATZA

**> Maite Frankok ipuinak kontatuko dizkie umeei**

Maite Franko ipuinkontalariak emanaldia egingo du eguenean, hilak 18. 4 urtetik aurrerako umeendako da.

Eguenean, hilak 18, liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE

**> 'Baserriko saltsa' delako umeendako antzezlana**

Kataluniako La Badula taldeak *Baserriko saltsa* antzezlana egingo du. Oilo andereari arrautza bat lapurtu diote. Gaur egungo gizartearen gatazken inguruko gogoeta umoretsua da.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 18:00etan.

BERGARA

**> Leire Iruin kontalariak emanaldia egingo du gaur**

*Irakurri* kanpainaren barruan, Leire Iruin kontalariaren saioa izango da haur liburutegian. 4-6 urte artekoei ipuinak kontatuko dizkie, 45 bat minutuko saioan.

Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 17:45ean.

ARETXABALETA

**> Ipuin kontaketa emanaldia izango da zapatuan**

*Katxin* izenburuarekin, umeendako ipuin kontaketa saioa egingo du Antton Irustak. Sarrera doan da.

Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

## Erakusketak

BERGARA

**> Beart elkarteko kideen lanen erakusketa eta salmenta**

Beart elkarteko kideek hainbat margolan jarriko dituzte erakusketan, eta erosteko aukera ere izango da.

Domingo Iralan da; euria eginez gero, San Martin plazako arkupetan.

Etzi, domeka.

BERGARA

**> Mikel Araiztegi bergararraren margo erakusketa**

Mikel Araiztegi Uribesalgok (Bergara, 1955) erakusketa du. 19 lan dira, eta dira paper gaineko akrilikoak, estilo figuratibo-espresionista baten.

Nahikari tabernan, abendu osoan.

PROPOSAMENA

BERGARA

### > Euskadiko Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo du

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Bergaran, 18 urtean egiten duten lehena. Miguel Gonzalez Bastidaren *Lorea* piezarekin hasiko dira, eta Mozarten eta Korsakoven lanak joko dituzte gero.

Sarrerak salgai jarri dituzte Musika Eskolan, 15 eurotan; kontzertua baino ordu bete lehenago, geratu diren sarrerak pilotalekuko leihatilan salduko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean.



BERGARA
**> Epiren margolan batzuk, ikusgai Zer Nahi tabernan**
Epi margolari bergararraren zazpi bat margolan daude erakusketan Zer Nahi tabernan. Hiri-paisaiak, marinak, natura hilak, loreak... dira gaiak. Lan batzuk uda eta udazkenean egindakoak dira, eta beste batzuk, lehenagokoak.
Zer Nahi tabernan.

ARETXABALETA
**> Idoia Elexpuru aretxabaletarraren erakusketa**
Idoia Elexpuru Ugarte aretxabaletarrak hainbat margo dauzka erakusketan kultura etxean. Txema Agirre-Zenitagoiarekin eta Juanjo Altunarekin ikasitakoa da, eta hainbat lehiaketa irabazitakoa da.
Kultura etxean, abendu osoan, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; domeketan itxita egongo da.

## Bestelakoak

ARRASATE
**> Kale heziketa programaren aurkezpen jaia egingo dute**
Kale heziketa programa aurkezteko jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza. Tailerrak, grafitiak, musika... izango dira.
Gaur, egubakoitza, Biteri plazan, 16:30-18:30.

ARRASATE
**> 'Malbe' Alejandro Iturbe Aranaren gaineko liburua**
*Malbe Alejandro Iturbe Aranaren bizitza* delako liburua aurkeztuko dute hilaren 15ean. Bedoñako Malbe baserritarraren gainekoa da; herri-lurren gainean egin zuen borroka azaltzen da, eta baita baserriko bizimodua ere. Liburuak Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalen laguntza izan du.
Hilaren 15ean, astelehena, Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI
**> Elkartasun azoka egingo dute bihar, zapatua**
Elkar-Hezi ikastetxeak elkartasun azoka egingo du bihar, zapatua, urtero Gabonen aurretik egiten duen bezala. Hainbat GKE eta bestelako talde izango dira.
Bihar, zapatua, Foruen plazan, 10:00etatik 14:00etara.

ARETXABALETA
**> Jam saioa antolatu du Jaiki elkarteak etzirako**
Jam saioa antolatu du Jaiki elkarteak. Inprobisazio saioa denez, antzerkia, bertsolaritza, musika, dantza... denetarik sartzen da. Hala ere, oraingoan, Mikel Laboari omenaldia egingo diote, eta haren inguruan norberak bere ekarpena egitea proposatzen dute.
Bestalde, oraingo hileko dantza libre topaketa eguenean, hilak 18, egingo dute, leku berean, 18:00-20:30.
Etzi, domeka, kuartel zaharreko dantza lokalean, 18:00-18:30.

# Zinema



## Appaloosa **

**Zuzendaria:** Ed Harris.
**Aktoreak:** Ed Harris, Viggo Mortensen.
AEB, 2008.
114 min. 18 urtetik gorakoendako.

Ed Harris aktoreak film gehienetan bigarren mailako pertsonaiak egin dituen arren (*En un lugar del corazón, El show de Truman, Las horas, Elegidos para la gloria*), beti konpondu izan da zuzendariei lan bikain bat eskaintzeko. Bere interpretazioak neurtuak, benetakoak eta intentsitatez beterikoak izaten dira. Harris zuzendari lanetan ere aritu da: duela urte batzuk *Pollock*, Jackson Pollock margolariari buruzko filma zuzendu zuen, eta orain, berriz, aktore eta zuzendari lanetan arituaz, *Appaloosa* westerna burutu du.

*Appaloosa*-k nahiko kritika onak jaso baditu ere, niri ez zait film ona iruditu. Baditu gauza on batzuk: dotoreziaz filmatuta dago, bere denbora hartzen du eszena bakoitza filmatzeko, baina ez da nahikoa. Gidoi aldetik gauzak ez daude behar den moduan landuak, western askotan izaten diren egoerak eta pertsonaiak ikusteko aukera dugu: pistolari gogorrak, *saloon*-eko neska, indiarrak, lekuko jauntxoa, trenak, bahiketak, e.a. Ez dut esango filma topikoetan geratzen denik, baina bai azalean. Westerneko lekuak, egoerak eta moduak agertzen badira, ez da generoaren muina barneratzen. Filmak, batez ere, bi gizonen arteko adiskidantza harremanak azaltzen dizkigu: bi pistolari gogor, trebeak eta etika berezi batekin, herriz herri doaz ordena eta bakea ezarri nahian. Pertsonaia horiek ez dira ikaratzen, gertatzen dena gertatzen dela ia denak bost axola zaiela ematen du, eta sentsazio hori heltzen bazaigu, oso zaila da ikusleari azaltzea pertsonaiei inporta ez zaiena. Hau dela eta, filma ez bada aspergarria izatera heltzen, nahiko hotz uzten gaitu. Istorio eta pertsonaien aldetik *Rio Bravo* burura ekartzen badigu, lortutako emaitza Howard Hawksen filmetik oso urrun geratzen da. *Appaloosa*-k ez du western generoari sustapen berri bat ematerik lortzen.

**Antonio Zabala**

**ARETXABALETA**
**ARKUPE**

**El niño con el pijama de rayas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.

**Horton**
Domeka: 17:00.

**4 meses, 3 semanas, 2 días**
Eguena: 19:30.

**ARRASATE**
**AMAIA ANTZOKIA**

**Berri ona**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Basoaren izpiritua**
Domeka: 17:00.

**BERGARA**
**ZABALOTEGI**

**Juno**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Horton**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**El club de la lucha**
Domeka: 18:00.

**ELGETA**
**ESPALOIA**

**Bagdad rap**
Eguaztena: 21:30.

**OÑATI**
**KULTURA ETXEA**

**Noche de tormenta**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Superagente 86**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**EIBAR**
**UNZAGA**

**Ultimátum a la Tierra**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

**GASTEIZ**
**GURIDI**

**Crepúsculo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Ultimátum a la Tierra**
17:30, 20:00, 22:30.

**Red de mentiras**
22:30.

**Bolt**
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

**Pérez, el ratoncito de tus sueños 2**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Las horas del verano**
20:00, 22:30.

**Madagascar 2**
Egubakoitza: 17:30, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

**007: quantum of solace**
17:30.

**El gran día para ellas**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Quemar después de leer**
22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Mongol**
17:30, 20:00, 22:30.

**My blueberry nights**
18:00, 20:15, 22:30.

**Gomorra**
17:00, 19:45, 22:30.

**Como los demás**
18:00, 20:15, 22:30.

**Trío de ases, el secreto de la Atlántida**
17:30, 20:00.

**La buena nueva**
20:00, 22:30.

**La ola**
17:30, 20:00, 20:15.

**Olentzero eta oparien ordua**
17:30.

**Corazones rebeldes**
22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**Opera: Hansel & Gretel**
Martitzena: 20:30.

**High School Musical 3**
12:15, 16:20.

**007: quantum of solace**
18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

**Appaloosa**
17:55, 20:05, 22:15, 00:25.

**Madagascar 2**
12:15, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Outlander**
18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Bolt**
12:15, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00.

**Crepúsculo**
12:15, 15:45, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Quemar después de leer**
21:40, 23:40.

**Red de mentiras**
21:50, 00:15.

**El niño con el pijama de rayas**
12:15, 16:05.

**Una amistad inolvidable**
12:15.

**Superhero movie**
12:15, 16:30.

**La ola**
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**Saw V**
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.
Domeka: 21:50, 00:15.

**Santa Clausen kondaira**
12:15.

**La leyenda de Santa Claus**
16:25.

**Ultimátum a la Tierra**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**La buena nueva**
22:00, 00:00.

**Olentzero eta oparien ordua**
12:15, 15:40.

**El reino de los chiflados**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Perez sagutxoa 2**
12:15, 15:50.

**Ratoncito Pérez 2**
17:50, 19:50-

**My blueberry nights**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Crepúsculo**
16:30, 17:00, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:45.

**Pérez, el ratoncito de tus sueños**
16:20, 18:30, 20:25, 22:15.

**Ultimátum a la Tierra**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 01:00.

**Bolt**
15:50, 16:15, 18:00, 18:20, 20:30, 22:40.

**Appaloosa**
20:10, 22:30, 00:45.

**007: quantum of solace**
16:00, 18:15, 20:30, 22:40, 01:00.

**La leyenda de Santa Claus**
16:15, 18:15.

**Saw V**
20:00, 22:00, 00:30.

**El reino de los chiflados**
16:10, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

**Outlander**
15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Madagascar 2**
16:10, 16:30, 18:05, 18:30, 20:30, 22:25.

**Superhero movie**
20:05, 22:05, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**Berri ona** ***
Espainia, 2008. Zuzendaria: Helena Taberna. Aktoreak: Unax Ugalde, Barbara Goenaga, Guillermo Toledo.
103 min. 13 urtetik gorakoendako.
1936ko matxinadaren garaian, Miguel herri sozialista bateko parroko izendatzen dute. Gerra hasieratik, frankistek hartzen dute herria. Miguelek errepresaliatuak defendituko ditu, eta Elizako hierarkiaren aurkako jarrera hartuko du.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Appaloosa** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Ed Harris.
New Mexico estatuan girotuta dago, 1882. urtean. Virgil Cole polizia federala eta Everett Hitch haren laguntzailea dira protagonistak.

**Cenizas del cielo** ***
Espainia, 2008. Zuzendaria: Jose Antonio Quiros.
Ferguson abenturazale eskoziarra da, eta turismo gidak idazten ditu. Espainiako iparraldea bisitatzen du bere azken liburua osatzeko.

**Red de mentiras** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Ridley Scott.
CIAk misio arriskutsuetarako eta leku gatazkatsuetan informazioa lortzeko duen gizon baliotsuena da Roger Ferris.

**Gomorra** ***
Italia, 2008.
Zuzendaria: Matteo Garrone.
Napolesko mafiaren gaineko kontakizuna da, bost pertsonaiaren istorioaren bidez.

**Superhero movie** *
AEB, 2008. Zuzendaria: Craig Mazin.
Scary Movie filmen sortzaileek Spider-man eta bestelako superheroi filmen parodia egiten dute, Rick Riker gaztearen bidez.

**Outlander** ***
AEB-Alemania, 2008. Zuzendaria: Howard McCain.
Espazionzi batek Lurra jotzen du. Bizirik irauten duen bakarra Kainan gerlaria da, eta Moorwen izakia dakar berarekin.

**La ola** ***
Alemania, 2008. Zuzendaria: Dennis Gansel.
Irakasle batek esperimentu bat egiten du: bere ikasleengan diziplina zorrotzeko erregimena ezarri, nazismoa zelan jaio zen azaltzeko.

**007: quantum of solace** **
Erresuma Batua-AEB, 2008. Zuzendaria: Marc Forster.
Vesperrek, maite zuen emakumeak, traizioa egin dio James Bondi. Horren atzetik, erakunde arriskutsu bat dagoela jakingo du.

**Asfixia** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Clark Gregg.
Victorrek iruzur egiten dio jendeari, amaren mediku tratamendua ordaindu ahal izateko.

**nire aukera**



**Josu Herrarte**
AEDko 25. urteurreneko ekitaldien koordinatzailea

## "Euskaraz egiten nuen Burgosen"

Asteburuak AEDko urteurreneko ekitaldien prestatze lanetarako hartzen ditut. Datorren astean, hizkuntza gutxituen gaineko jardunaldiak amaitzen direnean hartuko dut tartetxo bat nire aisialdirako; izan ere, aspaldi ahaztu nuen hitz horren esanahia. Nik AEDn egiten dudan lana, lana izateaz gain, militantzia kontua ere bada. Izan ere, ia bizitza guztia Burgosen pasatu dut, eta euskararekiko lotura handia dut. Bederatzi urte nituela egin genuen Burgosera eta aurten bueltatu naiz Arrasatera, Udalean lanpostu bat eskaini zidaten-eta.

**Burgosen bizi zarela diozu. Ez zara Arrasatera egokitu?**
Ez da hori, inondik inora; Burgosen bizi naizela diot denbora laburra daramadalako hemen eta nire apartamentua Burgosen dagoelako. AEDko lana amaitzen denean ez dakit zer egingo dudan, baina askotan Burgosen bizi naizela esaten dut, bizitza guztia bertan eman dudalako.

**Eta euskararekiko duzun grina hori?**
Gurasoak arrasatearrak dira eta beti egin izan dugu euskaraz etxean. Etxeko euskara, baina, oso mugatua izan ohi da. Euskalkia halahola menperatzen nuen, baina euskara batua oso arrotza zen niretzat. Hala ere, euskararekiko grina hori beti izan dut, eta hona etortzeak lagundu dit hizkuntza lantzen.

**Burgostik AEDko urteurreneko ekitaldiak antolatzera.**
Hau erronka da niretzat, kontrolatzen ez dudan ingurune baten lan egin behar dudalako eta euskaraz jardun behar dudalako.

**Eta ez duzu hartzen aisialdirako denborarik?**
Egia esan, gutxi. Kirola egitea asko gustatzen zait, eta, mendi buelta bat egiteko denbora badut, egin egiten dut. Eskalatzea eta piraguan ibiltzea ere atsegin dut, eta baita musika entzutea ere.

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2008-12-12

# Aupa, Aretxabaletako UDA!

**BUFANDAK** Aretxabaletako UDA kirol elkarteak 500 bufanda egin ditu; dagoeneko salgai daude 15 eurotan

**EGOERA EKONOMIKOA** Realak eman beharreko dirua iritsi ez delako jarri dituzte salgai bufandak

**DISEINUA** Zuria eta urdina oinarri duela, alde batean 'Aretxabaleta' eta bestean 'Aupa UDA' jartzen du; ezkutua ere badu

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Futbol zelaietan egunotan egiten duen hotzari aurre egiteko eta etxeko jokalariak behar bezala animatzeko, aliatu berria dute orain Aretxabaletako UDA kirol elkarteko zaleek: bufandak.

Elkarteko futbol saileko presidente Jokin Antxiak ekimen berri horren jatorria nondik datorren azaldu digu: "Aurten, Realaren aldetik dirurik ez datorrenez eta onartutako aurrekontura iristen ez garenez, ekimen batzuk abian jartzea pentsatu dugu egoera horri aurre egiteko; tartean, bufandak saltzea".

Antxiak aipatu du betidanik izan dutela horrelako ekimen bat martxan jartzeko gogoa: "Intsignia zuen zerbait gura izan badugu ere, orain arte ez gara animatu. Orain, baina, egoerak presionatuta, martxan jarri gara".

Diseinu aldetik, taldeko presidenteak gustuko ditu bufandak. Taldeko koloreak oinarri hartuta, alde batean *Aretxabaleta* dago idatzita eta bestean, berriz, *Aupa UDA*. Izkinetan, kirol elkartearen ezkutua eta sortu zeneko urtea azaltzen dira; 1946. urtea, hain zuzen ere. Antxiaren esanetan: "Urdina apur bat argi geratu bada ere, oso pozik geratu gara emaitzarekin. Zaleek ere bufanda gustuko izatea espero dugu".

**500 BUFANDA**

Zaleek ez dute hutsik egin. Joan den azaroaren 30ean, Ibarran jokatutako futbol partiduan jarri zituzten lehenengoz salgai, hamabost euroren truke; ehun zale inguruk erosi zuten orduan. Partidua bufanda lepoan zutela ikusi zuten eta horrek animoak eman ei zizkieten etxekoei, norgehiagoka irabazi zuten-eta. Partiduetan ez ezik, futbol zelaiko tabernan eta Gurea tabernan ere eskura daitezke. Gabonak baino lehen, kalean postu bat jarrita ere salduko dituzte. Elkarteak, guztira, 500 egin ditu.

Antxiak nabarmendu gura izan du bufanda ez dela futbolarekin bakarrik lotu behar: "Ohituta gaude bereziki futbolean ikustera, baina elkarteko sail guztietarako balio du".



Aretxabaletako futbol taldeko zaleei gustatu egin zaizkie UDAk egin dituen bufandak. GOIENKARIA

## ahobero

### "Herri batean 2.000 herritarrek EAE-ANVri ematen badiote botoa, tratamendua behar dutelako da"

**Jose Bono** > Espainiako Kongresuko presidentea

Horixe da joan den egubakoitzean Espainiako Kongresuko presidenteak esandakoa, Inazio Uria enpresariaren kontrako atentatuaren harira. Tratamendua agian hark behar du, egiten dituen adierazpenengatik.

## iturri onetik

### Datorren urteko Merkemerkauan 23 merkatarik jarriko dute postua

Arrasateko Ibai-Arte elkarteak III. Merkemerkaua antolatzen dihardu. Aurreko edizioetan Udalarekin elkarlanean antolatu du ekimen hori; aurten, baina, merkatariak bakarrik dabiltza zeregin horretan. Oraindik ze aste bukaeratan egingo den zehaztu barik badago ere, azoka otsailean izango dela azaldu dute. Gainera, jakinarazi dute 23 merkatarik jarriko dutela postua Uarkapen.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Zer jan

Tarteka –maizegi– iristen dira albiste zalapartatsuak jaten dugunari buruz. Askotan izaten dira animaliekin lotuak, gaitzen bat harrapatu dutelako auskalo zerk eraginda. Baina ez beti: ez da aspaldikoa Txinako esnekien arazoa, apropos kutsatu eta hainbat haurren heriotza eragin duena.

Egunotako eskandalua Irlandatik dator, txerriki eta behikien okelekin. Argi adierazten di dauden kontrolek ez dutela guztia bermatzen, eta eskrupulu bakoak ugari direla munduan. Baina bada zerbait gutariko bakoitzak egin lezakeena: hurbilekoa jan. Bide luzea egin eta esku asko pasatu dituen jakiak arrisku handiagoa du horregatik bakarrik. Elikagaien katea zenbat eta motzagoa, orduan eta seguruagoa. Ahal den guztietan, jan dezagun bertakoa, auzokoa.

## ai, ene!



### Barbakoa merkea egungo krisiari aurre egiteko

Krisi garaian bagaude ere, ez daukagu aitzakiarik barbakoak gertatzen ez jarraitzeko. Irudimen apur bat baino ez da behar.

www.sarda.es



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

